

Goienkaria

2006ko azaroaren 10a > Egubakoitza > VI. urtea > 264. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Jakin-minak eramanda hasten da jendea genealogia egiten"

Juan Carlos Mora
Genealogoa > 09



BERGARA

Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeendako zerbitzua > 24

'DEBARRI'

Arritxu Olidenek dio eskualde kontzeptua garatu behar dela > 31

LEINTZ GATZAGA

Azoka egingo dute etzi, domeka, San Milixan eguna ospatzeko > 39

TXIRRINDULARITZA

Iban Velasco: "Euskaltelen deiaren zain nago; ez dakit ezer" > 40

EKONOMIA > FORU ALDUNDIAREN AURREKONTU PROIEKTUA

AP-1 eta Gizarte Politika, foru aurrekontuen ardatzak gurean

GUTXIENKOA Debagoienean gutxieneko 161 milioiko aurrekontu proposamena egin du ahaldun nagusiak

AUTOBIDEA Eibar-Gasteizko Gipuzkoako zatiak bukatzeko dirutza handia proposatzen da: 154,9 milioi euro

ONARPENA Aurrekontu proiektua asteon aurkeztu du ahaldun nagusiak, eta abenduan onartuko dute > 02-03

Agorrosinen gaineko gehigarria

Bergarako Agorrosin ekin-tzagunearen gaineko gehigarria zenbaki honekin.



INGURUMENA > KONPOSTA

Hondakin organikoak birziklatzea

Hondakin organikoak jaso eta horiek konposta egiteko erabiltzeko plana indarrean jarriko du Foru Aldundiak Gipuzkoa osoan 2009. urtean. Eta 2007an plan pilotua egingo du Urola Kostan.

Debagoieneko Mankomunitateak eginda dauka bere plan pilotua, eta bi erakundeon asmoak osagarri dira. > 05

POLITIKA > EPAIKETAK

Sei lagun, Madrilen epaitzekoak

ETari laguntzea leporatzen diete sei debagoiendarri > 04

G2a

'Seussen mundua' Bilbotik Bergarara

Bergarako Orfeoia Bilbon estreinatu zuen joan den Gabonetan *Seussen mundua* musikala, eta bihar, zapatua, Bergaran emango dute. Bi emanaldi egingo dituzte, 19:30ean eta 22:30ean, biak pilotalekuan.

Seussical the musical musikalean oinarritutako lana da. Theodor Seuss umeendako idazle oparo eta arrakastatsua izan zen, eta haren mundua ezagutarazten du musikalak. > 43



GERTUAGO Orfeoia Bilbon egin zuen estreinaldiko eszenak Bergaran ikusi ahal izango dira zapatuan. BENITO CANTERO

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailekuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala

Araba etorbidea z/g - ARRASATE
Tel.: 943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38



90 ZP Gasolina
25 ZP Elektrikoa
Hiri-kontsumoa: 5,2

HONDA KIA
The Power of Dreams KIA MOTORS

Aprobetxa itzazu atsedeen ekipoen eta osagarrien azaroko aukera berriak.

Atsedeen bikoitzaren hilabetea



Atsedeen hartuko duzu



zure poltsikoak deskantsu hartuko du

ZARUGALDE 25/ ARRASATE / Tel: 943 77 18 35
ARRIZURI 7/ BERGARA / Tel: 943 76 25 91

Gizarte zerbitzuek, AP-1ek eta kulturak, aurrekontu altuenak

FORU ALDUNDIA Ahaldun nagusiak 2007rako aurrekontu proposamena aurkeztu du, Debagoienerako inbertsio garrantzitsuekin

GUTXIENEOA Ziurtatuta dago 161 milioi euroko gutxieneko inbertsioa gurean; hortik gehiena, 154,9 milioi, AP-1eko bi zatik daramate

EGOITZA Gizarte Politikan, proiektu garrantzitsuena nagusiendako egoitza berria da; Aretxabaletan egongo da baina eskualderako izango da

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoienak, gutxienez, 161 milioi euroko inbertsioa jasoko du datorren urtean Foru Aldunditik, aurrekontu proposamenak aurrera egiten badu. Diru-kopuru jakina eman zaien proiektuei dagozkien 161 milioi horiek, baina inbertsioa altuagoa da; izan ere, Debagoiena eta beste herri batzuk hartzen dituzten proiektu batzuk ere badaude.

2007rako aurrekontu proposamena aurkeztu zuen ahaldun nagusiak, Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik, joan den astean, eta atzo, eguena, zen batzorde bakoitza bere aurrekontua aurkezteko Batzar Nagusietan. Abenduan onartuko dira. Pentsatzen da aurrera egingo dutela, EAJk eta EAK gehiengo absolutua dutelako Batzar Nagusietan. Guztira, 805 milioitik gora proposatzen ditu Aldundiak inbertsioetarako, 2006an baino %8,9 gehiago.

HIRU PARTIDA ALTUENAK

Debagoiengan, diru partidarik altuena, askogatik, Bide Azpiegitura Sailari dagokio: AP-1eko Gipuzkoako bi zatiak -Eskoriatza-Arlaban eta Arrasate-Eskoriatza- bukatzeko 154,9 milioi. Sail horretako partidarik altuena da Gipuzkoa osoan. Gainera, milioi erdi dago Olandixoko

Inoizko kopururik altuena du Foru Aldundiak inbertsio eta kudeaketarako: 805 milioi euro, iaz baino %8,9 gehiago

Gizarte Politikan, ekintza askok dute diru kopurua gure eskualdean: Bide Berrik, Antzuolako gizarte etxeak...

saihesbidea egiteko, eta dirulaguntzak izango dira baita Antzuolako sarbidea eta Zubillagako zubia egiteko.

Gizarte Politika Sailak dauka hurrengo partidarik altuena, eta horretan, aurrekontu orokorretako joera berbera jarraitzen da. Inbertsio asko eta oso garrantzitsuak daude eskualdean.

Besteak beste, Debagoienak azpi-eskualdeko egoitza berria izango du. Gizarte Politika Sailak hainbat datu baieztatu dizkio aldizkari honi: Aretxabaletan egongo da, 65 urtetik gorako eta, batik bat, mendekotasunak dituzten nagusiendako izango da. 140 leku inguru izango ditu -"gizartearen beharren arabera" joango da kopurua, dio sail horrek- eta Arrasate, Eskoriatza eta Oñatiri ere emango die zerbitzua. Ekimen pribatu batetik dator proiektua, baina Aldundiak milioi bat euro inguru ditu aurrekontuarekin.

Beste proiektu garrantzitsu batzuk hauek dira: Oñatiko unitate psikogeriatrikoa (782.431 euro); Bide Berri, Antzuola, Elgeta eta Gatzagako giza zerbitzu mankomunitatea (39.000); Antzuolako gizarte etxe berria (600.000 euro) eta Arrasate, Bergara eta Oñatiko nagusien egoitzak egokitzeko dirulaguntzak. Horrez gain, beste inbertsio bat badago: batetik, gutxitasun psi-

kikoak dituztenendako 20 egoitza leku, ASPACE elkartearen bidez; eta bestetik, garuneko kalteak dituztenendako beste 30 eguneko zentro baten; bigarren hori non izango den oraindik ez dute zehaztu. Guztira, Debagoieneko inbertsioa 2,3 milioi eurotik gorakoa izango da arlo horretan.

Hirugarren zenbateko onena Kulturak dauka. Hor, Debagoienak 1,78 milioi jasoko ditu inbertsiotan. Zati handiena Bergarako Agorrosin guneari dagokio, erabilera askotarako kultura ekipamendu kontsideratzen da-eta: 1,15 milioi. Aretxabaletako kultura etxe berrirako 600.000 euro daude, eta Antzuolako larrugintzaren ikerketa zentrorako, 35.000. Horrez gain, Aldundiak Oñatin eta Tolosan dituen agiritegiak berritzeko 1,6 milioi daude aurreikusita.

Horrenbestez, Bide Azpiegiturak eta Bidegik, Gizarte Politikak eta Kulturak osatzen dute Debagoienerako aurrekontuen zatirik handiena.

LURRALDEBUS

Aipatu beharreko inbertsio gehiago proposatzen dituzte EAJk eta EAK osatutako foru gobernuak Debagoienerako.

Sailez sail, aipatu beharrekoa da Lurralde Antolaketak dakarren proposamena: 9,13


milioi erabiliko dira garraioa bultzatzeko, Lurraldebusen txartel bateratuarekin, zerbitzu eta maiztasun gehiago sortzearekin eta Debagoieneko geltoki intermodalarekin. Oraindik ez dago zehazterik geltoki horrek zenbateko aurrekontua hartuko duen; edozelan ere, 2007an bultzatzea da Aldundiaren asmoa. Autobuseko inbertsioek ere eragin zuzena izango dute gurean. Sail horren helburua da datorren urtean, txartel bateratuaren bidez, tarifak jaistea.

Garapen Iraunkor Sailak, bestalde, bidegorri bultzada emango die: 1,1 milioi daude aurreikusita Gipuzkoako hiru sarrerako, tartean Debagoienekoarendako. Sail horretan ere, 23,6 milioi biderraten dira Ur Partzuergoarekin hitzartutako azpiegiturarako, tartean Urkuluko urtegitako.

Gizarte eta Erakunde arteko Harremanen tartean, Arrasateko Mojategiko igerilekuetarako milioi erdi ematen da, eta hiru milioi euskara bultzatzeko lan egiten duten erakunde eta taldeei, hori Gipuzkoa osoan.

Diputatu nagusiaren kabineak 518.332 euro emango dizkio UNED urrutiko ikasketa unibertsitateari.

Landa Ingurune Garapen Sailak Oñatiko Iturrigorri basoa eta Arantzazuko ingurunea txukun-



**INSTITUTO
OPTICO**

Erdiko kale 22
Arrasate
Tel.: 943 79 71 68

Bidekurutzeta 10
Bergara
Tel.: 943 76 97 03

Eguneko lentillak, erabili eta botatzekoak, 60 unitateko 2 kaxa 34 eurotan.

Aprobetxa ezazu eskaintza hau eta Kostalde turistikoaren gida eta mapak doan eskuratuko dituzu.

Eibar-Gasteiz autobidea, "egia bihurtu den ametsa"

Errepideak eta gizarte zerbitzuak, horiek dira Aldundiko aurrekontu proposameneko bi ardatz handiak, eta Debagoienean, eskala txikiagoan, errepikatu egiten da joera hori: AP-1erako partidek hartzen dute, ez bakarrik Debagoieneko aurrekontuaren zatirik handiena -konfirmatutako 161 milioi eta erditik 154 baino gehiago-, baizik eta Bide Azpiegitura Sail osoko zati handiena ere. AP-1ek *Gipuzkoako biribila* delakoa osatuko du Urumeako autobidearekin eta Donostia eta Urretxu-Zumarragako hobekuntzeekin batera. Hauxe da ahaldun nagusiaren mezua: "2008ko urtarrilaren 2an irekiko da AP-1, Euskadiko bide-komunikazioen historian egia bihurtutako ametsa". *Gipuzkoa iraunkorra* ereduarekin bateratzen da hori: batetik, hiri-hondakinak kudeatzeko partzuergoa osatuko da, eta bestetik, eskualdeari dagokionez, bidegorri sarearekin aurrera egingo da.

AP-1rengatik ez balitz, askoz nabarmenagoa litzateke Debagoienean Gizarte Politikan proposatzen den inbertsioa, bi milioitik gorakoa. Horko proiektu garrantzitsuenak Debagoieneko azpi-eskualdeko nagusieneko egoitza berria da. Aurrekontu orokorretan, Gizarte Politika da gehien garatu dena: 2006tik hona gehien hazi den atala delako: 164,8 milioi ditu, iaz baino %16,51 gehiago. Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratzeari dagokion inbertsioarekin, Aldundiak aurrekontuaren herena ematen die gizarte politikari.

Idea bat nagusitzen da: *Gipuzkoa hiria* kontzeptua. "Aurreko aurrekontuetan oinarriak ipini genituen; orain emaitzak ikusiko ditugu", dio Aldundiak.

tzeko lanak finantzatzeko ditu Gipuzkoa berdea, naturaz blai! izeneko programaren barruan. Programak 2,3 milioi ditu.

Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Sailak ere nabarmentzeko inbertsioak proposatzen ditu. Besteak beste, Gureak tailerrendako 5.144.000 euroko sarrerara dago. Kontuan hartu behar da Gureak sareko zenbait tailer daudela Debagoienean, eta



AP-1eko Gipuzkoako bi azken zatiek hartzen dute Debagoieneko aurrekontuaren gehiena.

ARGAZKILARIA



Oñatiko unitate psikogeriatrikoa aurkeztu berri dute. 782.000 eurotik gora ematea proposatzen dute.

GOIENKARIA

kopuru horretatik zerbait jasoiko dute.

Bestetik, tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeendako zerbitzuetarako 77.400 euro proposatzen dira, eta emakumeoi laguntza psikologikoa emateko programak finantzatzeko, beste 370.000. Arrasaten lehendik badago horrelako zerbitzua, eta aste honetan bertan aurkeztu du Bergarako Udalak ere.

AURREKONTU OROKORRAK

Aurrekontu proposamenak 805 milioi eurotik gora aipatzen ditu Aldundiaren gestiorako, eta inoiz izan duen kopururik altuena da hori, eta iazkoa baino 65 milioi altuagoa. Hori ahalbidetuko dute erakunde horrek izan dituen diru-sarrerara altuek: datorren urtean, lehenengo aldiz, 4.000 milioi euroak gaudituko dira, aurreko baino %9,38 gehiago. Gonzalez de Txa-

barrik gogorarazten du legealdia beretako 503 milioiko aurrekontuarekin hasi zuela Aldundiak, eta orain 805 milioikoa dela.

Gestiorako 805 milioi horien erdiak inbertsio garbiak dira; beste 331 milioi Bidegi enpresa publikoari dagozkio, eta 14, Etorlurri, etxebizitza sustatzeko enpresa publikoari. Bestalde, horietatik kopuru handiena, 719 milioi, gestio arruntari dagokio;

gainerakoa, Ezohiko Inbertsio Planari. Horren bidez finantzatzen da, adibidez, Debagoieneko erresidentzia berria.

Bestalde, Aldundiak jasoko dituen 4.000 milioi horietatik, 2,55 inguru Eusko Jaurlaritzaren dako izango dira, hezkuntza, osasuna, herrizaingoa... kudeatzeko; Estatuari eman beharreko kupo bezala, 516 milioi emango ditu Gipuzkoak, aurreko baino %21,86 gehiago; eta Udal Finantziatzaileko Foru Fondoak 373 milioi izango ditu, aurreko izan duen baino %3,34 gehiago.

2007an, Foru Aldundiaren zorra 344,2 milioikoa izango da, eta hori finantzatzeko 15,6 milioi ipini nahi dituzte.

Hori guztia kontuan hartuta, ondorioa da Gipuzkoako aurrekontu proposamenak inbertsioari egiten diola jaramon handiena. Ahaldun nagusiak honako helburuak lortu nahi ditu inbertsioekin: Gipuzkoa "berritzaile, lurralde aldetik orekatua, iraunkorra eta gizarte kohesionatuarekin". "Gipuzkoa, berrikuntza lurraldea euskal gizartearen helburu estrategikoa da", dio Gonzalez de Txabarrik; eta "berrikuntzaren alorrean Europarekin bat egitea da Gipuzkoako gizartearen eginkizun nagusietako bat", gaineratzen du. Horri jarraituta, aipatutako bi ardatz nagusiez gain -bide azpiegiturak eta gizarte politika-, Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarterako Sailaren aurrekontua ere hazi egin da: %12,1. Guztira 38,2 milioi euro dira.

Aurrekontuak, hortaz, ez du aurrekoarekin apurtzen, han ezartzen ziren kontzeptuak eta oinarriak jarraitzen ditu-eta.

'EUSKAL Y'-ARENDAKO 253

Foru Aldundiko aurrekontu proiektuak Eusko Jaurlaritzakoak aipatzen ditu. Jaurlaritzak bere aurrekontu proiektua ere jakinarazi du, eta berritasun garrantzitsu bat dakar, Debagoienari bete-betean eragiten diena: lehenengo aldiz, Abiadura Handiko Trenerako diru-kopuru bat dago, 253 milioi euro, hain zuzen ere. *Euskal Y*-aren lehenengo zatia urte hasieran adjudikatu litekeela esan du Nuria Lopez de Gereñuk, Garraio sailburua.

Horren gainean, *Euskal Y*-aren lanek "Gipuzkoan aro berri bat ekarriko dute garraio publikoetan eta komunikazioetan", ahaldun nagusiak aurrekontu proposamenaren aurkezpenean esaten duenez.

I A A R D C L Z M U S I K A B M O C P O I A A R D C L Z P L I
L R S E C E T R E L I B H E V G O I N A L R S E C E T R E L I
P A A I S O E L K A R Z R E A R O N D E P A A I S O N C N B C
A S R T V P T Q B Ñ T D H E H L M N Q Q A S R T V P T Q B Ñ T
L N D L I B U R U A K E K V E O E T N O L N D T N A T R R Q H
V S H T E L K A R F M S S B Ñ D V L A I S I A L D I A A R F M
V S H Ñ I N L S N E A B A R A O B M I V V S H Ñ I N L S N E A
Z H K U L T U R A A Ñ R I G S S A A R R A S A T E N E P E A Ñ
T E H H Q L F P T A A Q E H L H Z F R C T E H H Q L F P T A A
E T V D L E T E S C Z M Z L A Ñ D A A M E T V D L E T E S C Z
I S Ñ V R F I H R T A N L U H L R Ñ K U I J O K O A K H R T A

Kultura eta aisialdian gura duzun guztia

Erdikokale, 14 - ARRASATE
Tel.: 943 797 829

ekar
elkar ezagutzen dugulako

www.elkar.com

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA



BILKURA Euskal Herrian Euskaraz taldeak elkarretaratzea deitu zuen epaitegi aurrean.

GOIENKARIA

EUSKARA > EPAIKETA

Epaiketari uko egin diote hiru gazte bergararrek

GOIENKARIA > BERGARA

Ane Jauregi, Ibai Gaztelu eta Elena Larrañaga bergararrek epaiketari zuten martitzenean Bergarako epaitegian.

Akusatuetakoa bik saioa hasierako utzi zuten auzi-gela epaiketari parte hartzeari uko eginenez: "Epaileak euskaraz ez dakielako eta gure hizkuntza eskubideak urratu dituztelako".

Irteterakoan Euskal Herrian Euskarazeko lau lagun ikusleen eserlekuetatik altxatu ziren *Euskararik gabe Euskal Herririk ez*;

Epaitegiak euskaldundu zioten elastiko eta kartelak erakutsiz.

Unai Iturriotz abokatuak hitz egin zuen gero, gazteek falta egin zutenetik –kartel batzuk ipintzea – bi urte pasa direnez, gertakariak preskribituta egon beharko lirakeela esanez. Erabakiaren berri epaiarekin batera emango zuela erantzun zion epaileak. Hala, hirugarren gaztea ere kanpora atera zen. Abokatuaren esanetan, "hirurek ukatu egiten dituzte leporatutako gertaerak eta ez dute onartzen itzulpen sistema".

Akusatuak kanpoan zirela egin zen epaiketa, gaztelania hutsean. Orain sententziaren zain daude.

ELKARTASUNA EPAITEGI KANPOAN

Bitartean, jende taldea elkartu zen epaitegi atarian, hizkuntza eskubideak errespetatu eta epaitegiak euskaldun daitezela eskatzeko. Tartean, Bergara Aurrerako Mila Elortza, Aralarko Iñigo Iñurrategi, Hizkuntza Eskubideen Behatoki zuzendari Paul Bilbao eta Euskal Herrian Euskarazko eta Jarduneko kideak.

ESANDAKOAK



Unai Iturriotz
Abokatua

"Herriarrak eskubidea du administrazioarengana euskaraz zuzentzeko eta erantzuna euskaraz jasotzeko. Epaileek diote itzultzaile bidez bermatuta dagoela eskubide hori. Gure ustez epaileak akusatuak ulertu behar ditu, ez itzultzailea".



Paul Bilbao
Euskararen Behatokia

"Euskaldunok bigarren mailako herritartzat hartzen gaituzte. Gertaera lotsagarri baten aurrean gaude. Berriz ere agerian geratu da hizkuntza eskubideak ez ezik, defentsa eskubideak ere urratu egiten zaizkigula".



Iñigo Arregi
Euskal Herrian Euskaraz

"Guk nahi dugu epaiketari egin daitezten, nahi dugu administrazioarekin harremanak izatea, gainera euskaraz. Baina justizia administrazioa bera da eskubide hori ukatzen diguna, eta hori salatu nahi dugu".

kontsumoa



Espainiako aurrezte tasa %22koa da 1995etik.

GOIENKARIA

Hamar familietatik hiruk aurretzen du dirua gastuak ordaindu eta gero

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Oinarrizko gastuei eta zorrei aurre egin eta gero, hamarretik hiru familiak baino ez du izango aurrezteko adina diru. Horietatik %20 hipoteken menpe daude eta aurrekontuko soberakina hilabeteako maileguaren interesak ordaindu ostean lortuko dute. Batez beste, Espainiako familien zorra % 176,6 hazi da 1998 .eta 2005. urteen artean. Zorpetza familien errentaren %131 igo da. de la renta disponible bruta de las familias. Horren eragile handiena etxebizitza erosteko maileguak dira: 2005ean% 93,36koa zen eta % 94,28koa izango da 2006 urte amaieran. Zorraz zor, hala ere, Espainiako ekonomiaren aurrezte tasa gutxi gorabehera %22koa da 1995etik. Bestalde, familien %10ak dauzka hilaren amaierara iristeko arazoak euren ahalmenaren gainetik zorpetzen direlako.



Autoen salmenta %1,8 jaitsi da lehen hamar hilabeteetan

Urteko lehen hamar hilabeteetan Espainian 1.256.776 auto saldu dira, iaz epe berean baino, %1,8 gutxiago. Arrazoia da interes tipoen igoerak eraginda norbana-koek eskaera gutxiago egin dituztela. Saltzaileen arabera, 2006 urtearen amaieran %2,2ra arte jaitsiko dira salmentak.



Zaldun-ziza orri horia perretxikoa saltzea debekatu egin dute

Osasun Ministerioak zaldun-ziza orri horia (*Tricholoma equestre*) perretxikoa merkaturatzea debekatu du. Mikologoendako oso preziatua bada ere, ikerketa batzuen arabera, hainbat egunetan jarraian perretxiko mota honen kopuru handia jateak giharretako gaitza, rabdomiolisia, eragin dezake.

Familiak errentaren %42 erabiltzen dute etxebizitza erosteko

Espainiako Bankuaren datuen arabera, hirugarren hiruhilekoan familiek urteko errenta gordinaren %42,1 erabili zuten batez beste etxebizitza erosteko. Datua iazko irailekoarekin alderatuko bagenu nabarmenagoa da igoera. Izan ere, %36 erabiltzen zuten orduan; orain baino %6 gutxiago.

Produktu ekologikoak sustatzeko 200.000 euro erabiliko dira

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Departamenduak kanpaina berezia egingo du urte amaieran. Helburua da Euskadin ekoiztutako nekazal produktu ekologikoen kontsumoa sustatzea. Horretarako 200.000 euroko aurrekontua duen publizitate kanpaina gertatzen dihardute.

ZABORREN KUDEAKETA > 2009. URTERAKO EDUKIONTZI MARROIAK GIPUZKOA OSOAN JARTZEA NAHI DU DIPUTAZIOAK

Hondakin organikoak jasotzen hasiko dira Gipuzkoako hainbat herritan

Urola Kostako lau herritan abiaraziko dute plan pilotua 2007an, eta 2009an Gipuzkoa osoan

Lehenengo fase horretan, 3.000 tona hondakin organiko jaso eta kudeatzea aurrez ikusten dute

AINTZANE IRIZAR > DEBAGOIENA

Gipuzkoako Diputazioak hondakin organikoak batu eta horiekin konposta egiteko plana jarriko du abian Urola Kostako lau herritan: Zarautz, Zumaia, Azepeitia eta Azkoitia, hain zuzen ere. Diputazio-ko arduradunen helburua da plan hori 2007an abiaraztea eta 2009. urterako Gipuzkoa osora zabaltzea.

Fruta eta barazki hondakin gordinak, pasta, jogurtak eta zukuak batuko dituzte, besteak beste. Hondakinok jasotzeko, gaur egun dauden lau edukiontzien ondoan bosgarren bat jarriko dute, marroi kolorekoa. Lehenengo fase horretan, 135 jarriko dituzte aipatutako lau herrietan. Papera eta kartoia, beira eta ontziak jasotzeko sistemen aldean, badauka berezitasunik hondakin organikoak jasotzekoak; izan ere, boluntarioek bakarrik erabili ahal izango dituzte edukiontzi berriok. Ikastaro laburra egin beharko dute boluntario aurkezten diren herritarrek eta giltza bat eman-

go zaie edukiontzia zabaltzeko. Horren arrazoia da ziurtatzea hondakin organikoak bakarrik botako direla edukiontzira. Jasotakoaren %95 hondakin egokiak izatea aurrez ikusten dute. Aurrez ikusten dutenaren arabera, Goierrin, esaterako, 10.000 giltza banatuko dituzte.

Batutako hondakinarekin konposta egiteko, bestalde, Lapatxen, Azepeitian, konpostatze planta eraikiko dute. Konposta udalek kudeatuko dute eta lorategi eta parke publikoetan erabili, ongarrri moduan.

DEBAGOIENEN PLAN PILOTUA

Hondakinekin konposta egitea ez da gauza berria. Gurean, esaterako, Debagoieneko Mankomunitateak nork bere etxean konposta egiteko plan pilotua abiarazi zuen iaz urrian. Ibarreko 50 familiak hartu zuen parte plan hartan. Lorategiak edo landa-lurrak zituzten familia haiek guztiak. Ikastaroa egin zuten eta konpostagailua jarri zien etxean Mankomunitateak.

Urrian hasi eta bost hilabetez, Mankomunitateak ekimen horren jarraipena egin zuen. Aurrerantzean, Diputazioak egingo die jarraipen hori, urtean behin.

Mikel Jaio Mankomunitateko Ingurumen arduradunak zera adierazi digu: "Oso emaitza onak izan ditu plan pilotu horrek; konposta egiten hasi ziren familia ia guztiak jarraitzen dute zeregin horrekin". Honakoa gaineratu digu: "Diputazioak abian jarriko duen plana eta iaz guk abiarazitakoa osagarriak dira. Gainera, beste plan bat garatzen ere badihardu Diputazioak; hiru-garren plan horren helburua da ekoizle handiengana iristea,

nekazaritzako elikagaien enpresak, esaterako, eta eurek sortutako hondakin organikoak konposta egiteko bideratzea".

Plan hori, baina, oraindik lantzen dihardute eta ez dago guztiz garatuta.

Iazko plan pilotuarekin jarraitzeko, datorren urtera begira, beste 70 bat konpostagailu ekarri eta beste horrenbeste familiari konposta egiteko aukera zabaltzeko asmoa dauka Mankomunitateak.

EDUKIONTZI MARROIAK GUREAN

Debagoienera edukiontzi marroiak noiz helduko diren galdetuta, zera erantzun digu Mikel Jaio: "Lehendabizi ikusi egin beharko dugu Urola

Kostako esperientziak zelako emaitzak ematen dituen; ikusi beharko da ze arazo sortzen diren, ze hutsune dituen sistema berriak, jendeak hondakinak ondo bereizten dituen, eta abar".

Jaiok azaldu digunez, mankomunitateetako eta Diputazio-ko arduradunek adostu zuten plana era horretan abiaraztea, hau da, eskualde jakin batean, horrela, jendearen erantzuna eta esperientziaren emaitzak ikusita, hutsuneak konpondu eta herrialde osora zabaltzeko.

Dena dela, Gipuzkoako Diputazio-ko arduradunen nahia da 2009. urterako Gipuzkoa osora hedatzea hondakin organikoak batzeko sistema.

3.000 TONA URTEAN

Gaur egun, 6.000 tona hondakin batzen dira Gipuzkoan urtero konposta egiteko. Planta bakarra dago, Ormaiztegin, baina han konpostatzen diren hondakinak inausketetatik eta lorazaintzatik datozenak dira bakarrik. Hondakin horiekin, 800 bat tona konposta ekoizten dituzte. Azepeitian, Lapatxen, eraikiko duten konposta plantan, 3.000 tona hondakin tratatuko dituzte.

Plan hori Gipuzkoa osora zabaltzen dutenean, urtero 55.000 tona hondakin organiko jasoko dituztela espero dute Diputazio-ko arduradunek. Ordurako, Donostialdean beste konposta planta bat eraikiko dute.

Aralar ez dago ados Diputazioak aurkeztutako planarekin

Aralarrek prentsurrekoan adierazi duenez, Diputazioak Urola Kostan abiaraziko duen esperientzia pilotu hori Gipuzkoako mankomunitate guztietara zabaltzeko beharko litzateke, eta mankomunitate bakoitzak bere azpiegitura txikia eduki beharko luke. Proposatzen dute mankomunitate bakoitzak 2.000 familiarekin hasi plan pilotua eta familia horiei guztiak ikastaro trinkoa eskaintzea. Proposamen hori Diputazioari eta Mankomunitate guztiei helaraziko diete.



JOKIN ETXEBARRIA

SAN MILIXANAK 06

XIV.

Langintzen
Feria
Azaroak 12,
Igandea

Zatoz Gatzagara! Etxean bezalaxe!

Euskal buztingintza

Kosmetika naturala

Zilarrezko bitxiak

Tornua

Zeta eskuz tindatze jardunean

Oihal zatiekin egindako lanak

Ezpelarekin egindako lanak

Ehungailuarekin lanean

Gazta egilea (Keritzara)

Artoarekin egindako alfonbrak

Esmalte eta erretxinarekin egindako bitxiak

Patchwork artea

Baserriko barazki eta fruituen kontserbak

Artisau gozogintza

Piper erreak



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA



POLITIKA > EPAIKETAK

Datozen hilabeteotan ibarreko sei lagun epaitu behar dituzte Madrilen

Azaroaren 14an eta 15ean, Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrieta epaituko dituzte

Gainerakoei oraindik ez diete zehaztu epaiketarako data, ezta fiskalaren eskaera ere

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko lau lagun eta Antzuolako bi epaitu egin behar dituzte datozen hilabeteotan, eta Askatasunak prentsaurrekoa eman zuen egoera hori salatzeko. Hala, jakinarazi zuen Arrasateko bik, Gorka Aztiriak eta Gaizka Olabarrietak, datorren martitzenean eta eguaztenean dutela epaiketa, Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Fiskalak sei urteko kartzela zigorra eskatuko du bi gazteondako, ustez ETARI laguntzearen.

Hala, epaiketaren lehen egunerako, martitzenerako, manifestazioa deitu du Askatasunak Arrasaten. Hitzordua 19:30ean da, Herriko Plazan, eta herritarrei parte hartzeko dei egin die: "Gatazkaren konponbidean sinesten duten herritar guztiei".

Hauxe ere gaineratu zuten: "Gure babes osoa eman nahi diegu epaituak izango diren gure herrikide zein euskal herritar orori".

BESTE LAU, DATAREN ZAIN

Arrasateko bi horiekin batera, epaiketaren zain daude Arrasateko beste bi lagun, Gaizka Azkarate eta Saioa Alzua, eta Amaia Mundiñano eta Patxi Cabo antzuolarrak. Baina haiei oraindik ez diete jakinarazi noiz epaituko dituzten. Eta epaiketarako datarik ez jakinarazteaz gainera, ez diete jakinarazi ere zein zigor eskatuko duen fiskalak euren dako.

KARTZELAN ZENBAIT HILABETE

Aipatutako sei lagun horiek behin-behineko askatasunean



ASKATASUNA Ezkerretik, Gorka Aztiria, Iker Olabe eta Gaizka Olabarrieta. U.M.

daude gaur egun. Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrieta 2005eko apirilean atxilotu zituzten eta 2006ko otsailera arte kartzelan izan ziren; bederatzi hilabetez, beraz. Bestalde, Gaizka Azkarate eta Saioa Alzua 2003ko azarotik 2006ko otsailera arte izan ziren preso, 27 hilabetez. Patxi Cabo lau hilabetez izan zuten kartzelan eta Amaia Mundiñano kalean utzi zuten epailearen aurrean deklaratu eta gero. Guztiak ere fidantzapean utzi zituzten kalean.

AUZITEGI NAZIONALA IXTEKO

Sei lagunon egoera salatzearekin bat, Askatasunak Auzitegi Nazionala egiten dabilen papera ere salatu zuen: "Oinarri juridikorik gabeko atxiloketa prebentiboak, torturaren eguneroko erabilpena, babesa eta legitimazioa, bizi osorako zigorrak, larri gaixorik diren presoek bahiketa...". Horregatik guztiagatik, "garantia bako epaitegia dela salatu zuten. Parisko 14. sekzioko epaitegia ere salatu zuten eta bi epaitegion desaktibazioa exijitu.

ENPRESAK > FINANTZA KUDEAKETA IKASTAROAK BERGARAN

Finantza kontuak ezagutzen lagunduko die Elkargik enpresei

Elkargik Bergaran duen bulegoak kudeatuko ditu jardunaldiak, eta Debarroko 80 enpresa inguruk hartuko dute parte ikastaroetan

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Finantza kontuak hobeto ezagutzen lagunduko die Elkargik Debarroko enpresaburuei, eta Debagoieneko enpresaburuak ere gonbidatuta daude Elkargik

Bergaran antolatu dituen hitzaldietara. Finantza jardunaldi horietan, banketxeekin nola negoziatu, merkatuan dauden finantza laguntza onenak nola lortu eta kostuak nola kudeatu

erakutsiko dute, besteak beste. Elkargiko profesionalak egingo dituzte hitzaldiak azaroaren 13an, 20an eta 27an Bergarako Miguel Altuna Institututoko aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

AHALMENA HANDITZEA HELBURU

Jardunaldien aurkezpenean Jabier Alberdi Elkargiko zuzendariak esan duen moduan, "hitzaldi horien helburua da finantza arloan eta arlo ekonomikoan gertatzen ari diren aldaketei aurre egiteko enpresa ertain eta txikiak duten ahalmena handitzea. Horretarako finantza arloko hiru gai oinarriko eta garrantzitsu aukeratu ditugu". Horieta nola negoziatu behar den azalduko dutena, Esteban Herediak egingo du, Elkargiko finantza zerbitzuetako zuzendariak. Oinarria garrantzitsua dela dio hark, "kudeaketa formazio onarekin hobetzen" dela.

Bigarren jardunaldian merkatuko finantza-linea eta laguntza onenetara nola iritsi aztertuko dute. Enpresaren inbertsioak

nola finantzatu eta jarduera irizpideak zeintzuk diren ikertuko dituzte hor, baita merkatuan dauden finantza-linea eta laguntzetara nola heldu aztertu ere. Kasu praktikoak ere erakutsiko dituzte. Hirugarren eta azken saioan, azaroaren 27koa, kostuen kudeaketa egokia egiteko behar diren baliabideak eta programak erakutsiko dituzte.

80 ENPRESA JARDUNALDIETAN

Enpresei negozioa nola kudeatu lagundu nahian antolatzen ditu Elkargik Bergaran egingo dituzten moduko jardunaldiak. "Iaz, adibidez, 140 ikastaro antolatu genituen eta 1.300 enpresak hartu zuten parte. Bergaran egingo ditugunak Debarro osoko enpresendako dira. Momentuz 60k eman dute izena, baina 80 inguru elkartuko gara uste dut, eta kopuru ona da hori", esan du Jabier Alberdik.

BERGARAKO BULEGOAK KUDEATU

Elkargik Bergaran duen bulegoak kudeatuko ditu jardunaldiak. Ekainean zabaldu zuten bulego hori, eta orain arteko lanaren balorazio positiboa egin du Alberdik: "Enpresak eta banketxeak, biak hurbildu dira".

Elkargik 630 enpresa bazkide ditu Debarroan. Bazkideen %80 dira 50 langile baino gutxiagoko enpresak. 52 milioi euroko abala du Elkargik Debarroan; %82 industria eta eraikuntza sektoreei dagokio eta %18 merkataritza eta zerbitzu alorrari.

0 km

Mondeo serie mugatua

ESKAINZA BEREZIA

6.000 euroko deskontua.

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

> ARANSKI

Keinuen hizkuntza ikasteko aukera Bergaran

Aransgik, Bergarako Udalen laguntzarekin, keinuen hizkuntza lantzen hasteko ikastaroa antolatu du. Gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituzten Debagoieneko herritar guztiei zuzenduta dago ikastaro hori eta urtarrilean hasiko da.

Ikastaroa Bergaran izango da, Aransgiren egoitzan. Matrikula 80 eurokoa da. Izena emateko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 76 27 03.

> OSASUNA

Familia medikuak 10 minutuko lanuztea egitera deituta daude

EAEko lehen arretako 4.000 mediku deituta zeuden 10 minutuko lanuztea egitera, gaur, egubakoitza.

Estatuko *Plataforma 10 minutos* delakoak deitu du lanuzte hori. Plataforma horren esanetan, lehen arretako osasun zerbitzuaren kalitatea gainbehera dator eta hori salatu dute. Besteak beste, kontsultaren gutxieneko denbora 10 minutukoa izatea eskatzen dute.

> HERRIZAINGO SAILA

Segurtasun uhalaren erabilpena bultzatzeko kanpaina

Segurtasun uhalak, ibilgailuetan umeendako eserlekuak eta eskola garraioa zaintzeko kanpaina hasi zuten astelehenan Ertzaintzak eta udaltzainek. Horretarako kontrolak egingo dituzte azaroaren 19ra bitartean. Horietako kontrol bat egon zen martitzenean Elorregin, Bergaran.

Kanpainaren helburua da gidariak kontzientzia hartzea segurtasun uhalak eta umeendako eserlekuak duten garrantziaz.

> IKASTOLEN ELKARTEA

Ingelesko material onenaren saria jasoko du Zubizarretak

Ingeles Hiztunen Elkarteak Presidentearen saria eman diote Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari. Ingelesko ikas-material onenari ematen zaion sari gorena da hori, eta Joserra Zubizarreta eskoriatzarrak, ikastolen elkartearen presidentea, hilaren 15ean jasoko du sari hori Ingalaterran. Edinburgoko Dukeak emango dio saria.

Ikastolek *Space search* izeneko CD-ROM didaktikoa egi-teagatik jaso dute saria.

KOMUNIKABIDEAK > LAN ESPARRUAN HARPIDETZAK SUSTATZEA DA HELBURUA

'Berria'-k eta Fagor Industrialek hitzarmena sinatu dute

Langileek kioskoko erdi prezioan lortu ahal izango dute 'Berria' egunkaria

AINZANE IRIZAR > OÑATI
Berria egunkariak eta Oñatiko Fagor Industrial enpresak akordioa sinatu zuten martitzen goizean, Zubillagako lantegian. Egunkariaren zuzendari Martxelot Otamendi etorri zen *Berria*-

ko ordezkari, eta Fagor Industrialeko lehendakari Iñigo Alberdi-ekin batera sinatu zuen hitzarmena.

Akordio horren helburua da lan esparruan *Berria*-ren harpidetzak sustatzea eta enpresak

zeregin horretan inplikatzeko. Horrela, Fagor Industrialeko langileek kioskoko erdi prezioan lortuko dituzte egunkariak.

ENPRESA UGARI

Geroago eta enpresa gehiago dira euskal egunkariarekin hitzarmenak sinatzen dihardutenak. Besteak beste, Sokoia, Irizar, AMPO eta Zenbat Gara enpresekin sinatu dituzte dagoeneko.

Gurean, Fagor Arrasate enpresarekin sinatuta dute eta beste kooperatiba askorekin harremanetan daude.

Zer Plan duzu lanari utzi eta gerorako?

Lanean ari garen bitartean denok pentsatu ohi dugu nola gozatuko ote dugun gure erretiroa. **KUTXA** jakin badakigu, denok ezberdinak garela eta etorkizunerako asmo ezberdinak ditugula. Horregatik aurrea hartu eta aurre-igartzeko gai gara, gaur bertan, biharko zuretzako planik egokiena zein den.

KUTXA AURREIKUSPEN-PLANAK
Adituak planik plan.

Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa eta Kutxa BI BGAEtara atxikita daude.

www.kutxa.net

kutxa
zer nahi duzu bihar?

gure artekoak

IRABAN BASERRIKO KIWIAK > Oñatiko Garagaltza auzoan dago Iraban baserria. Inguru guztiak kiwi landarez beteta dauzka eta batzen dituzten milaka kiloak hamar kiloko kaxetan saltzen dituzte.

Felix Biain

"Bertako kiwia kanpokoa baino askoz gozoagoa da"

AINTZANE IRIZAR > OÑATI

Orain dela hogeitun landatu zituen Felix Biainek kiwi landareak. 600 bat landare ditu eta urtean hogeitun mila kilo batzen dituzte. Alaba biek eta lagun batek laguntzen diote zainketa eta batze lanetan.

Nolatan landatu zenituen kiwi landareak orain dela 20 urte?

Galizian ikusi nituen kiwi sail batzuk eta pentsatu nuen emaitza onak izateko aukera genuela hemen. Horrela, sagastiak kendu eta kiwiak landatu nituen.

Zein zen zure asmoa?

Saltzea; 600 bat landare jarri nituen. Nire asmoa zen saltzea, baina garai hartan ez zen fruta ezaguna; gainera, nahiko garestia zen.

Bizi daiteke horretatik?

Baserritik, gaur egun, ezin da ia ezertatik bizi. Orain erretirata nago, baina baserritik aparte lanean jardundakoa naiz. Dena dela, laguntasun bat da.

Zer behar du kiwiak ondo hazteko?

Lur hareatsua behar du eta ur asko. Ureztatze sistema jarri ta dugu. Bestalde, izotza oso arriskutsua da kiwiarendako.



Maite eta Felix Biain, kiwi artean.

A.I.

FITXA TEKNIKOA

> EKOLOGIKOA

Kiwi landareek ez dute inolako tratamendurik behar. Ekologikoak dira.

> HAMAR KILOKO KAXAK

Iraban baserrian bertan eta Arrasateko Agracentron saltzen dituzte kiwiak, hamar kiloko kaxetan.

> HAYWARD

Horixe da Iraban baserrian duten kiwi motaren izena. Mota horretakoak dira kiwi handienak.

Jendeak baloratzen ditu bertako produktuak?

Bai, geroago eta gehiago. Gainera, jendea konturatu da bertako kiwiak kanpokoak baino gozoagoak direla.

Hozkailuan gordetzen dituzue kiwiak?

Ez; giro freskoan ondo mantentzen dira, martxora arte-edo.

Nondik etortzen zaizkizu bezeroak?

Gehienak Oñatitik etortzen zaizkit, baina Arrasateko denda baten ere saltzen dut.

etxeke leihotik



Goiatz Arana > GOITBko albistegietako arduraduna

Amaren etxekotik begiratu beharko

Asteon esan didate *Etxeko leihotik*-en estreinatuko naitzela, eta baietz esan diet; hori bai, amarenetik beharko duela, 28 urte bete berri, etxe propio barik jarraitzen dudalako, beste gazte askok moduan. Eta etxebizitzaren prezioak eskandaluzkoak direla esateaz aspertuta eta egoera hau noiz lehertuko zain gauden bitartean, hara non jakiten dudan ikastaro bat antolatu dutela, zertarako eta gazteek etxebizitzarako sarbidean ditugun oztopoak eta haien arrazoiak identifikatzeko. "Ederki gaude", pentsatu dut. Itxura batean dirudiena baino zerbait gehiago izango dela pentsatuz, egitaraua irakurri dut ondoren.

Etxebizitza batean sartzeko ditugun trabak eta sartu ondorengoak, ekonomia eta hirigintza mekanismoa, EAEko eta Espainiako Estatuko etxebizitza politiken ikuspuntu historikoa eta Europako etxebizitza politikak ezagutzeko aukera eskainiko du ikastaroak. Gipuzkoako gazteria sailletako teknikari eta zinegotzietan zuzendua dago, eta, beraz, pentsatzen dut bertan izango direla Debagoienekoak ere. Galdetuko diegu bueltan, ea guk ere zerbait ulertzea lortzen dugun!

"Gazteen etxebizitza beharrak ikastaroa antolatu dute"

> Oraintxe berdin dio etxea nolakoa den eta non dagoen; leku onean egon edo ez, etxe berria edo bigarren eskukoa izan... Bizi gutzirako leporaino sartu behar du batek, independizatu gura badu.

> Guztiak saldu egiten dira, ordea, eta hori da txarrena; lehentxeago edo geroxeago denak sartzen direla zurrumbilo ero horretan! Jendeak nola demontre egiten duen galdetzen diot, maiz, neure buruari.

begi-bistan



Espaloitik Ibargaraira (Bergara) 2006/11/09

Argazkia: Edu Mendibil.
Testua: Edu Mendibil.

Espaloia eta Ibargarai lotuko dituen bidea egiteko lanak hasiko dituzte laster. Zirkulazioa handik bideratuko dute etorkizunean. Argazkia Mariaren Lagunditik aterata dago.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Beatriz Zabalondo
IRAKASLEA

Beatriz Zabalondo HUHEZIKO irakasle elgetarrak *Ikusentzunezko itzulpena* izeneko liburua argitaratu du, Josu Barambones EHUko irakaslearekin batera. Bikoizketa etxetarako lan egiten duten itzultzaileen lan egiteko modua jaso dute liburuan.



Iñaki Anasagasti
POLITIKARIA

Telesforo Monzon politikari bergararren gaineko liburua aurkeztu du Iñaki Anasagasti EAJko senatariak. *Llámame Telesforo* izenburua darama liburuak. Besteak beste, 1973an Venezuelan Monzoni egindako elkarrizketa osorik batu du liburuan.



Manu Muniategi
PINTOREA

Gasteizko Artium museoak erakusgai jarri du pintore bergararren *Rotchenko Japonesa Blanca* margolana. Orain dela bi urte erosi zion lan hori museoak bere fondorako eta hiruzpalau hila-betez egongo da ikusgai. Diptikoa da eta 310x366 zentimetroko neurria du.

Familiaren genealogia nola egin, zein bide jarraitu edo ze agiri eskatu behar diren azalduko du Juan Carlos Morak Bergaran egingo dituen hitzaldietan. Abizenaren garrantziaz eta familia historiaz ere jardungo du. Aste honetan egin du lehen hitzaldia, eta datozen bi martitzenetan dira hurrengo biak, Miguel Altuna Institutuan, 18:30ean.

Juan Carlos Mora > Dokumentalista

"Batik bat, jakin-minak bultzatuta hasi da jendea genealogia egiten"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Dokumentalista da Juan Carlos Mora, eta Aranzadi zientzia elkartean egiten du lan. Udalerrietarako ikerketak eta txostenak egiten espezialista da, eta genealogia ere aztertzen du. Tesia bera horri buruz egin zuen. Bere esanetan, azken hamar urte hauetan jende asko hasi dela genealogiak egiten, eta artxiboetako ordenagailuak okupatuta egoten dira gehienetan.

Zuhaitz genealogikoak da bakarrik genealogia?

Hasieran, gure arbasoen, aurreko belaunaldien ikerketa da genealogia, baina hori baino gehiago izan behar du. Senide bat non jaio, norekin ezkondu edo noiz hil zen jakin baino gehiago esaten du zientzia horrek: senide horien biografia jakiten lagundu beharko luke, nola bizi ziren, ze lanbide zuten, ze arazo zituzten edo zergatik emigratu zuten, besteak beste.

Abizena da hori guztia jakiteko jarraitu behar den bidea?


Abizena garrantzitsua da, baina arazoak ere sortzen ditu. Euskal Herrian, abizena ez da izenari lotzen 1870. urtera arte, erregistro zibila sortu arte. Ordura arte, batzuek aitaren abizena hartzen zuten eta beste batzuek etxearen izena jartzen zuten izenaren ostean. Urte hartatik aurrera, ordea, izenaren ostean aitaren abizena jarri behar zela erabaki zuten. Kasu batzuetan, adibidez, gertatu da anai-arrebek abizen ezberdina izatea. Azkenean, bide egokiena da arbaso baten datuak hartzea eta horiei tira egitea.

Zer da, orduan, jakin behar dena familiaren genealogia ezagutzeko?

Lehenengo pausoa hau da: gurasoak, aitona-amonak edo osaba-izebak noiz jaio edo noiz ezkondu ziren jakitea eta datu horrekin erregistro zibilera edo parrokiako artxiboetara joatea. Han datu horiek konfirmatuko dituzu eta euren oinordekoak ere agertuko dira, baldin eta herri horretakoak baziren; bestela, herriz eta artxiboz aldatu beharko duzu.

Zergatik eskatzen dizu jendeak genealogiak egitea?

Kuriositateagatik. Historia eta ezagutzen ditugun pertsonak lotzen ditu genealogiak, eta horri buruz gehiago jakitea askori gustatzen zaigu.



Bergarako udal artxiboak gonbidatuta etorri da Juan Carlos Mora hitzaldiak egitera.

O.E.

ARBASOAK

"11-12 belaunalditan 1.028 edo 2.056 arbaso ditugula kalkulatu dugu"

Herentzia izan daiteke beste arrazoi bat?

XVII. eta XVIII. mendeetan, garrantzitsua zen norbaiten senide zinen edo ez erakustea, doteak edo lursailak egon zitezkeelako jokoan. Egun, ordea, kasu puntual batzuetan baino ez da izaten herentzia arrazoia. Orain

ABIZENAK

"Genealogiarekin hasteko bide bat da abizena, baina pista okerra izan daiteke"

hiruzpalau urte, aldiz, hona zetozen etorkinek erakusten bazuten senideren bat zutela hemen, errazago lortzen zuten nazionalitatea, eta askok egiten zituzten zuhaitz genealogikoak.

Ze harreman dute genealogiak eta zuzenbideak?

ARTXIBOAK

"Jende asko dabil, eta artxibo batzuetan txanda eman edo sarrera kobratzen dute"

Oso lotuta daude. Kausa penal batzuetan, adibidez, ahaidetasuna zigorra leuntzeko arrazoia izan daiteke. Medikuntza arloan ere, genealogiak esan diezazuke zure oinordekoak nola hil diren eta, bihotzekoak jota hil badira, esaterako, jakin dezakezu arrisku hori izan dezakezula.

Debagoieneko herrien edo familien inguruko genealogiarik egin duzu?

Egin dudun lehenengoetako genealogia Bergarako Domingo Soraluze konkistatzailearen ustezko oinordeko batendako izan zen. Pizarroekin batera Peru konkistatzera joan zen bergarar hura. New Jerseyko pertsona bat jarri zen nirekin harremanetan, haren oinordekoa zen edo ez ikusteko.

Enkargu asko jasotzen dituzu Ameriketatik ere?

AEBek ez dute apenas historiarik, eta iparamerikar batendako, adibidez, oso garrantzitsua da erakustea XVI. mendean Bergaran bizi zen familia bateko oinordekoa dela eta, gainera, bere arbaso bat Amerikako konkistatzaileetako bat izan zela.

Egungo eta lehengo familia motak ez dira berdinak. Horrek badu zerikusirik genealogiarekin?

Bai. Horrek zaildu egingo du genealogiak egitea hemendik urte batzuetara. Baina gai horri buruz ere hitz egingo dugu Bergarako jardunaldietan.

Zenbat abizen izan ditzakegu gutako edozeinek?

Genealogian heltzen zaren mugaren arabera. Hala ere, kalkulatu dezakegu 11-12 belaunalditan 1.028 edo 2.056 arbaso daudela, nor bere abizenarekin. Garai baten abizen bakarra erabiltzen zuten, aitarena edo baserriarena. Lehen, endogamia ere bazegoen eta kopurua txikiagoa izan daiteke, baina bestela, horietatik dira kopuruak, gutxi gorabehera.

Ze kostu dauka genealogia egiteak?

Ez da berdina 1790. urtean gelditzea edo XVI. mendearaino heltzea. XVI. mendearainoko genealogia batek, adibidez, 800 euro inguru kostatzen du. Familia historiak ere egiten dira, eta horiek garestiagoak dira, Valladolideko, Tolosako edo Oñatiko artxiboak kontsultatu behar direlako.

Nondik hasi behar du bere kasa egin gura duenak?

Herriko artxiboetatik. Jende asko ari da egiten, eta artxibo batzuetan ordua eskatu behar da edo kobratu egiten dute sartzeko. Nire laguntza behar badu: jcmora@ereiten.com.



zabalik

Joxemari Muxika

Politikari aspergarriak

Aurreko batean egunkaria eskuan nuela lagun batek ikusi ninduenean, galdetu zidan ea ez al nintzen aspertzen ekartzen dituen albisteak irakurtzerakoan. Gutxi pentsatu behar izan zuen baietz erantzuteko. Neuri ere aspergarria egiten baitzait egunkari eta baita hedabideetako albisteak irakurtzea eta entzutea.

Hedabide bat izan edo bestea izan, egunero kontu berak edo antzerakoak argitaratzen dituzte. Kontu berak eta pertsonaia berak protagonista. Aldatzen dena, gehienez, politikari bakoitzak albisteari jartzen dion azentua da.

Politikariengandik hedabideetan jasotzen dugun ikuskizuna bata besteari egoeraren errua botatzen ikustea da. Batak "a" badio besteak "b" dio eta alderantziz.

Badirudi euren bezero boto-emaleei eusteko liskarrean ibiltzea besterik ez dakitela egiten. Benetan aspergarria.

Gaiak finkatuak dituzte: lurraldetasuna, Espainiaren batasuna, alderdien legea, presoak eta zer gehiago? Kale borroka, manifestazioetarako deialdiak.

Ez dakigu politikariek zer dioten gaur egungo gizartearen egoerari buruz: ekonomiaz, kulturaz, enpleguaz, pobreziaz, espekulazioaz... Guztiok hobeto bizi gaitzen gizartea eraldatzeko egitasmoez, zer diote politikariek? Alderdian izango dituzte egitasmoak, baina guk botoa eman diegun politikariek bizi ditugun giza arazoei buruz diotenaz ezer gutxi dakigu. Ez dakigula ezertxo esan genezake.

Botoa eskatzen digute eta ez dakigu arazoa kudeatzeari buruz zer pentsatzen duten. Kontu zehatzen inguruko konponbideari buruz euren iritzia agertzea ez ezik, erreferendum baten bitartez gure iritzia eskatu ere egin dezakete, baina ez dute egiten. Berriz botoa nahi badute, berenganatzeko orain arte baino zerbait gehiago egitea proposatzen diet.

"Ez dakigu politikariek zer dioten egungo gizartearen egoerari buruz"

"Erreferendum bitartez gure iritzia eskatu ere egin dezakete, baina ez dute egiten"

Goienkaria

Argiraratzailera Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Sailetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarrizko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziorza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

KARABANEN APARKALEKUA
Karabana erosi berri duen lagun batek galdera hau egin digu: karabana herriko edozein aparkalekutan laga dezaket ala arau zehatzak daude horretarako?

Antzuolako Udaleko aparejadore Valen Moñuxek esan digunez, herri bakoitzak arautu behar du hori bere ordenantzetan: "Antzuolan orain artean ez da araudirik izan. Baina karabana arazo bihurtzen ari dela ikusita, arautu egingo dugu, eta neurria izango da herriko aparkalekueatik kentzea karabana".

Bergarako udaltzainek zera zehaztu digute: "Karabana ezin dira laga; bai, ordea, autokarabana. Baina bi hilabete baino gehiago leku berean ezin daitezke utzi".

Arrasaten aspaldi onartu zen karabanen aparkalekua baimentzea Markuleten eta Musakolako industriagunean, "baina kexak jaso ditugu eta neurria berraztertuko dugu".

Oñatiko kasuan ez dago horren gaineko ordenantzarik; beraz, arautu gabe dago karabanen jabeek herrian aparkatu dezaketen ala ez.

SU TXIKIAK EGITEKO BAIMENA
Herritar batek esan digu bere etxe inguruan obretan su txikiak edozein unetan pizten dituztela. Baimen berezirik behar da horrelako suak pizteko edo mendian sasiak erretzeko?

Bergarako udaletxeko teknikari Joseba Aizpuruaren esanetan, "ez da posible zoru urbanoan horrelako suak piztea. Obretan soberan dituzten materialak

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidalguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoikionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

berez ez dira obraren aldamenean erre behar. Guk obra lizentziak ematen ditugunean jakinarazten dugu materialen soberakinak araututako zabortegietara eramane behar direla. Beste gauza bat da txabola baten aldamean sasi batzuk erretzea, hori ez dago araututa eta egiten da".

Erre beharrekoa sasi gutxi batzuk baino gehiago direnean, eta sua basoan edo mendian egin behar denean, "basozainaren bitartez Foru Aldundira baimena eskatu behar da, eta ondoren, egunean bertan abisua eman", esan digu Mendi Nekazaritza Bulegoko Mari Karmen Iturbek.

URA HEGAZKINETAN

Aste bukaeran hegazkinean bidaia egin behar duen irakurle batek zera galdetu digu: egia da ezin dudala urik eramane hegazkinean?

Debekatu egin dute eskuko ekipajearen likidoak (edariak, zopak, perfumak, kremak, xaboiak, olioak...) eramane. Baina likidoak 100 ml-ko poteetan eta plastiko gardenezko poltsetan (guztira litro bat) eramane ahal izango dira.

marraskiz

Unai Busturia



Bakea

Eneko Bidegain

www.goiena.net/blogak/barraraino

Bakea eta bi sos. Aspaldi ikasi nuen erranaldia. Zenbat aldiz ez dugu entzuten hori, edo bestela "bakea emazu", "egizue bakea...".

Bakea! Bakea! Mundu honetan, inportantena bakea balitz bezala. Haur ttipi bat negarrez hipaka ari denean eta aitak edo amak, bake beharrez, isilarazteko ipurdian zartako bat ematen dionean, ez dakit

ohartzen den ez dituela hola isilaraziko hauraren orroak.

"Bakea emazue" edo "Bakea behar dugu", erraten diote Euskal Herriari. "Bakeak ez du prezio politikorik". Hara esaldi giltza. Bi sos ere ez ditu balio? Bakea nahi dute. Baina Euskal Herriak eman diezaiela bakea.

"Zaude isilik haurra, ez egin negarrik, munduak ez du eta malkoen beharrik". Euskal Herria haur negarti bat baizik ez balitz bezala... Haurra goserik baldin badago, ez du bakeak aseko.

Bakea nahi dute? Orduan zer ari dira hainbeste polizia,

guardia zibil eta CRS bideetan? Hori da haien bakea?

Ez nazazula traba, haurra, futbol partida ikusten ari naizen mementoan.

Sua piztu zen iaz Frantziako hiri handien bazterretan. Bakea polizia gehiago igorritz, bazterrak gehiago zainduz, etxeratze deia ezarri lortu zuten.

Haurra ezar dezakezu armairu zokoan zigorturik, ea zenbait denboraz bakea ematen dizun, baina goseak jarraitzen badu, ez dizu luzaz emanen bakea. Orain berriz kezkatuak dira hiri bazter horietan istiluak gertatzen ari baitira... Nagusiak bakea nahi du,

plazara


ETaren su-etenak eragindako hasierako zirrarak behera egin duela dio artikulua idatzi duen Aralarko Gipuzkoako antolaketa arduradunak. Egungo euskal esparru politikoan zeresana ematen duten gai nagusietan oinarrituta etorkizunerako eman beharreko pausoez dihardu. Ezker abertzale berria etorriko dela sinistuta, autodeterminaziorako bidea egingo dutela dio.

Oxel Erostarbe*

Batzen gaituenetik gehiagora bidean

Handia izan zen Lizarra Garaziko treguak euskal gizartearen sortutako itxaropen eta ilusioa. Handia baita ere tregua apurtzeak ezker abertzaleari eragin zigun kaltea. Martxoaren 24koak, berriro, zirrarara eragin zigun. Zirrarara nolakoa zen bagenekien, ordea, lehenagotik bizitakoa. Hilabeteak aurrera egin ahala epelduz joan da hasierako berotasuna; keinu faltak zalantzak besterik ez du sortu.

Estrasburgoko deklarazioaren bezperan, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak herriko tabernetan sagardo, garagardo eta kalimotxo litroak zenbatzen zituzten eta ezezagunek pistolak lapurtu zituzten Frantzia. Espainiako eskumaren esku beltzak bake prozesua oztopatzen jardungo duela aurrez bagenekien. Beti agertzen den euskal abangoardiak protagonismoari eutsi nahi dio.



MIKEL ARROIABE

BIKTIMAK

Alde bateko zein besteko biktimek behar dute guztion babesa. Sufrimendu larregi eragin da gure herrian. Guztion erronka da elkarbizitzarako zubiak eraikitzea.

PRESOAK

Bake prozesuaren amaieran preso politiko guztiek etxean behar dute. Mugimendurik ez dago eta gaixorik daudenei ere Parot doktrina ezarri zaie, euren eta familien sufrimendua areagotuz. Gai-xorik daudenek eta zigorra bete-ta dutenek kalean behar dute. Zapaterok ezin du 2008ko maiatze-ara arte itxaron sakabanaketarekin bukatzeko. Iñaki de Juana libre ez uzteko egin dutena nola uzartu demokraziarekin?

LEGALIZAZIOA

Gobernuari dagokio Batasunaren legalizazioa, eta keinuen zain gaudela. Ikusteko dago gobernuak bertan behera utziko duen Alderdien Legea edo Batasunak estatutu berriak onartuko dituen. Hurrengo hauteskundeetan Batasunak parte hartuko du.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Gobernu espainiarrak eta frantsesak ETArekin hitz egin behar dute bakeaz: armen desagertzeaz, biktimez eta presoez. Normalizazioaz hitz egitea alderdi politikooi dagokigu, non jarri ere adostu behar dugu herri hau herritarrek gura dutena izango dela. Erabakitze

"Alde bateko zein besteko biktimek behar dute guztion babesa. Sufrimendu larregi eragin da gure herrian"

"Aro politiko berri baten aurrean gaude, indarkeriaren amaieran eta eztabaida politiko berri baten atarian"

eskubidea aldarrikatzen dugunok indarrak batu behar ditugu.

LORPENAK BIDE POLITIKOTIK

Borroka armatuaren bidez lortutako Euskal Herri independenteak beltza luke etorkizuna. Sinistuta esan behar dugu ezker abertzaleko bide politikoetatik soilik lortu gura ditugula lorpen politikoak. Hausnarketa horrek behar luke izan tregua ekarri zuena.

ARO BERRIAK ERRONKA BERRIAK

Aro politiko berri baten aurrean gaude, indarkeriaren amaieran eta eztabaida politiko berri baten atarian. Larregitan eguneroko arazoak bigarren plano batera utzi dira eta aro politiko berriak merezi du erronka berriei heltzea. Ezkerreko alderdion erronka da eguneroko gaietan eragitea, desberdintzen gaituena ahaztu gabe. Ezkerreko alderdiok elkarlanean jardunez bakarrik bilakatuko gara eraldakuntza sozialerako tresna.

Bake egoerak bestelako ezker abertzalea behar du: abangoardia gabe, barne demokraziarekin, eraginkorra... Aralar sinistuta dago etorriko dela ezker abertzale berria. Bide horretan autodeterminazioaren alde indarrak batu eta eguneroko arazoei aurre egingo dien indar batuketa proposatzen dugu. Testuinguru honetan ulertu behar dugu Batzar Nagusi eta udal hauteskondeei begira Ezker Batuarekin koalizioan joateko ahalegina. Ausartak izan behar dugu eta batzen gaituene-tik gehitzen asmatu.

*Aralarko antolaketa arduraduna Gipuzkoan

zer deritzozu?

www.goiena.net

EAJk Txabarri ez aurkeztea, ondo?

BAI	%42,66
EZ	%58,33

> ALDERDIEN AGINTEA

Ez zait ondo iruditzen. Gauzak ondo egin baditu, zergatik ez eman aukera bat? Herritarrek ez du ezer balio, alderdiek agintzen dute demokrazia honetan. **Mikel**

> EZ ONDO EZ TXARTO

Hori EAJ barruko kontua da eta alderdiak hori erabaki badu, ba kitto. **Lasuen**

> TXABARRIK IZAN DU BERE AUKERA

Bai, ondo. Txabarrik izan du aukera eta nahiko ondo egin duela esan daiteke. Baina, orain, Gipuzkoako EAJn beste batzuek agintzen dute eta beren gustukoa dena ipini nahi dute. Berri honek ere aukera merezi du. **Arrasatetik**

> UTZI BERRIRO AURKEZTEN

Okerrena da alderdiek agintzen dutela eta ez herritarrek. Txarto egin al ditu gauzak Txabarrik? Utzi orduan berriro aurkezten? **Ainhoa**

DATORREN ASTEKOA: Salatuko zenuke ikusitako tratu txar kasu bat?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

preziorik ordaindu gabe. Zapaltzaileak bakea eskatzen du. Zapalduak justizia. Justiziarik gabeko bakea, bake ahula da.

Anoeta hil?

Imanol Murua Uribe
www.berria.info/blogak/imanol

ETak Zutabe-n esaten duena Anoetako proposamenarekin kontraesanean dagoen edo ez eztabaidan jardun dugu goizean irratian, Joseba Arruti Deia-ko adiskidearen esaldi borobiletik

abiatuta: "Anoetako proposamena hilda dago".

Ados nago ETA alderdien arteko elkarriketa politikoe-tan zertaz, nola eta noiz hitz egin behar duten esaten ibiltzeak desitxuratu egiten duela Anoetako proposamenak egin zuen bereizketa: alegia, elkarriketa politikoak alderdien kontua dira, eta ETARI eta Espainiako Gobernuari arazo "teknikoak" konpontzea dagokie. Joan den abuztuan ere egin nuen honetaz gogoeta, ETaren agiriaren harira. Baina, funtsean, bereizketa garrantzitsu horrek indarrean dirau: ETak normalizazio

politikoari buruzko elkarrizketa politikoetatik kanpo jarraitzen du, eta jarraitu behar du.

Dena den, gauza bat da bi negoziatzioguneen bereizketak indarrean jarraitzea, eta oso bestelako kontua bi karril horiek bata bestearekin zerikusirik ez dutela pentsatzea, modu independentean aurrera egingo dutela sinestea. Benetan uste dut, irradian esan dudana bezala, alde guztiak jabetzen direla horretaz (Espainiako Gobernu inor baino nabarmenago), batzuek aitortuko ez duten arren.

Errealismo politikoa da hori ere, pragmatismoa.

koplak

Markel Otaegi

Bilbon ostegun gaueko oster

Ostegun gaba daukagu eta Bilbon barrena oster. Tragoak nahiko merke daude ta goazen denok edatera.

Mahai inguruan hamasei lagun joko batzun tira-biran. Erantzun txarra emanez gero edan ezazu segidan.

Katxi mordo bat edan ondoren aldatutzeko asmoaz. Txoko berrira joan ahala graduak igotzen doaz.

Kalean barna iji ta aja abestien alegera. Nongo balkoitik dator botila? Zen guk geneukan galdera.

Antzoki zaharra azken-azkena jada balantzan, erdizka antzestu inork ez egin arren bazen hamaika artista.

Dena hain azkar itxi ziguten kalean ezta bi sagu. Bergaran farra eskasa baina Jam-a behintzat hor daukagu.

Eta orain Elebide?

Irati Pagoaga

(Debagoieneko EHEren izenean)
Debagoiena

Ezin dezakegu ulertu Elebide bezalako erakunde bat Eusko Jaurlaritzak sortzea, herritarrek hizkuntza eskubideen urraketak salatzeke, eta urratzailea, berriro egin ez dezan aholkatzeke.

Jaurlaritza da hain zuzen ere urraketa hauei soluzioa bilatu behar diena. Beraz, tresna berriak sortzen hasi baino lehen dituen baldintzak aldatu edo moldatu egin beharko ditu berriz gerta ez daitezen. Erakunde publiko honek bera euskalduntzeko behar adina egiten ez duela agerian geratu da.

Momentu honetan horrelako erakunde bat sortzeak ez dauka zentzurik, Kontseiluak sortutako Hizkuntza Eskubideen Behatokia abian egonda. 2001az geroztik ari da lanean Euskal Herri osoko hizkuntza eskubide urraketak jasotzen.

Adibide bezala aipatu, non geldituko dira abenduan egingo diren osasun arloko oposaketetan hizkuntza eskakizunak? Hizkuntza eskubideen urraketa hauek salatzen hasita zein izango da Elebideren asmoa?

Ignacio Herran Izarra hil da

J. Inazio Miner Gaztanbide

(Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kidea)
Bergara

Urriaren 26an hil zen Frantziako Frejus herrian (Kosta Urdina) Ignacio Herran Izarra, 93 urterekin. UHPko (Union de Hermanos Proletarios) kidea izandakoa, 36ko gerra zibilean Euskal Herrian hain gogor borrokatu zuen batailoiko boluntarioen artean bizirik gelditzen zen azkenetakoa.

Arabako Puentelarra herrian jaioa, gazterik etorri zen bere familiarekin Bergara. Garai hartan inguruko probintzietako etorkin multzo handiak hartzen zituen gure herriko industriak. Oihal fabrikak eta Labegaraietako Cerrajerak izango ziren, batez ere, ordurako indarra hartuta zegoen langile mugimenduen ardatzak, eta baita, handik urte batzuetara, 36ko uztailan, matxinatuen kontra lehenengo altxatuko ziren ezkerreko milizianoen mintegiak ere.

Bergarako Eskola Elementalean mekanika ikasi eta

Izan aktiboa (II): erakunde publikoen papera

Iñaki Ugarteburu (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendari nagusia) > Gipuzkoa

Orain dela pare bat asteko artikuluan sedentarismoa eta elikadura desegokiaren ondorio larriak azaltzen saiatu nintzen; bigarren honetan planteatu nahi dut zeintzuk diren erakundeen partetik egin beharreko urratsak.

Sedentarismoak eta loditasunak sortzen dituzten arazoek aurre egiteko jarri izan dira martxan hainbat programa, bai osasun alderditik, bai kirol arloko ikuspuntutik, *Oinez bizi, Irun sasoi...* Bakoitzak bere martxa darama eta neurri batean beren helburuak betetzen ari dira. Baina esku artean dugun arazoa oso handia da; herritar askoren osasuna jokoan egon daiteke, eta horrekin lotuta: bizi kalitatea jaiste, bizi itxaropena murriztea, osasun gastua igotzea, lan errendimendua jaiste, etab.

Tamaina honetako arazo baten aurrean, benetako erantzuna eman beharra dago; benetakoa eta koordinatua, bateratua. Munduan zehar dauden esperientziak ikusirik, Kanadakoak adibidez, erakunde publiko eta pribatuaren arteko elkarlana eta batzuen eta besteen inplikazioa izan da ezaugarri nagusietako bat.

Asko dira gaiarekin zerikusia duten erakundeak, eta erakundeetako departamentuak:

1. Osasun Sailak, hasteko, arazoaren ondorio zuzena gaixo kopuruaren igoera delako; dagoeneko pandemia delako.
2. Hezkuntza Sailak, haiei dagokielako haur, gazte eta helduak hezte, eta prebentzioan dagoelako gakoa.
3. Kiroletako Sailak, jarduera fisikoa eta kirola sustatzea delako gure helburu nagusia.
4. Hirigintza Arloko Sailak, herri eta hirien diseinuetan duten eraginagatik; haiek aurreikusten dituztelako bidegorriak, eskailera mekanikoak, igogailuak...
5. Kontsumo Sailak, elikadurarekin duten zerikusiagatik. Ziur nago lotura gehiago aurki daitezkeela, baina azaldutako bost sailak, guztiak edo horietako batzuk, baditugu Eusko Jaurlaritza, foru aldundietan, eta baita mankomunitate edo udaletan ere.

Ondo ikusten ditut tabakoaren edota alkoholaren aurka egiten diren programak; sentsibilizazioa, izugarritzko marketing kanpainak, lege aldaketak, etab. Sedentarismoaren eta loditasunaren aurrean, dimentsio horietako kanpainen beharrea gaude.

Jar gaitezen martxan lehenbailehen, eta diseina ditzagun planak aipatutako erakundeen artean eta gizarteko beste ordezkariekin: aktiboak izateko, modu egokian elikatzeke, jarduera fisikorako inguru aproposak sortzeko, etab.

Aktiboak izan, bestela...

Tetuanen soldadutza egin ondoren, lizentziatu berri zela harrapatu zuen militarren kolpeak, Santa Marinako jaiak ospatzen ziharduela. "Dantzan genbiltzan, eta militarrak jaiki zirela esan ziguten, eta koadrilako batzuk boluntario aurkeztu ginen Udaletxean... Lehenengo egunetan talde bat osatu zen, Bergarako Guardia Zibileen brigada batek zuzentzen zuen, Miguel Escoin zuen izena, eta Bergara inguruko mendietara igo ginen".

36ko irailean Bergara nazionalen menpe jausi zenean, Intxorta defenditzen jardungo du beste miliziano askorekin batera, eta Molaren tropen aurrera-martxa moztea lortuko dute. Frontea ez atzera eta ez aurrera geratu zen orduan, eta miliziak

unitateetan moldatu eta Eusko Gudaroste jaio berrian berrantolatatu ziren. Ignaciok eta ezkerreko (JSU) beste bergarar eta oñatiar batzuek UHPren hirugarren konpainia osatuko dute, eta talde honetako teniente izatera helduko da bera. Asturiarrak ziren konpainia honetako ofiziale gehienak. UHPren 5. batailoiak Legutioko batailan parte hartuko du, euskal gudarostearen erasoaldi bakar eta desastroso hartan, Gorbeia urtegien eta Barazarko mendatearen defentsan. Berriro ere Elgetara itzulirik (37ko apirila), Dragoiekin, eta Kirikiño eta Martiartu batailoio abertzaleekin batera, aurre egin zioten abiazio eta artilleria faxistaren eraso etengabeari, eta ia sarean harrapatuta zeuden tropek

atzeraka egin behar izan zutenean, hauek babesten jardun zuten, Eibar ingurutik ihes egitea lortu zuten arte. "Gure konpainiako kapitaina Unzurrunzaga zen –beste bergarar bat–, eta Intxortan zauritu zutenean, kapitain kargua eskaini zidaten, baina uko egin nion, ardura handiegia iruditu zitzaidan".

Birrintutako Gernikan laguntzen, Markinako mendiak eta Bizkargi defendatzen... UHPk, beste euskal unitateak bezala, leher eginda egin zuten atzera, egurra eta egurra jaso, etsaiaren nagusitasunari ezin erantzunez.

Gero Zornotzan, 333 kotan, larritasuna eta izua berriz, heriok odol euriz busti zuen beste behin bere taldea. "Segundo Olazagoitia arrasatearra –Santxo, ezizenez– hil zen, Dragoien komandantea. Gero Lemoako Haitzean borrokatu ginen, eta Bilboko Gerrikoan, Erletxen eta Lezaman.

Handik Artxandara, azkeneko borroka Bilbo defendatzen. Han hil zen, burua moztuta, gure komandantea, Felix Casero Menendez asturiarra, eta harekin batera larri zaurituta geratu zen Joakin Amilibia.

Artxandan, beste teniente batek eta biok, gure unitateen hondarrekin, erasoei eutsi genien ametralladora batzuekin, 12 zauritu izan genituen.

Gero, Bilbo galdu zenean, hainbeste baja izan genituen, batailoiak berrantolatatu egin ziren eta berri bat osatu genuen UHP eta Prieto-ren artean".

Gero Saltacaballosen, eta azkeneko borroka Puente Viegon, Santanderren inguratuta bukatu aurretik. Bere ama, Eulalia Izarra, familiarekin batera, faxisten abantzeari ihesi zihoan, gerran jarraitzen zuten tropa hondarrekin batera samar, eta abiazio frankistak Ampuero-ko elizaren kontra egindako bonbardaketa selektiboan hil zen.

Francoren hegazkinek atzera-aurrera batzuk egin zituzten, eta jende guztia elizan sartu zela ikusi zutenean, bonbardatu egin zuten. Bergarako Castro familiako barbero bat (Francisco Elorza, Seguran jaiotakoa) eta biok, Prieto batailoiko ofiziale batzuekin batera, txalupa bat hartu eta arraunean itsaso zabalera irten ginen.

Han Pasaiako arrain-ontzi batek hartu gintuen. Asturias-tik zetorren Santanderrera jendea hartzera, baina ezin izan ginen portuan sartu, beste ertzetik artilleria frankistak bonbardatzen gintuelako. Kapitainak

Frantzia aldera jo zuen eta La Rochelle-ko portura heldu ginen. Trenera igo eta Bartzelonara joan ginen, Carlos Marx kuartelera, eta han bulego baten jarri ninduten lanean Iparraldeko frontetik zetorren jendea berreskuratzeke. Handik hiru hilabetera, Levante aldera destinatu ninduten, baina Tortosan bidea moztuta zuten ordurako, eta ezin izan nintzen pasatu. Paco Galan-en agindupean zegoen Batallon Disciplinario de Combate delakoan sartu nintzen orduan, Artesa del Segre-n. Ebroko batailaren ondoren, kapitain gradura jaso ninduten, eta geroago, Guardias de Asaltoko konpainia batekin batera, basoan gordeta zeuden matxinatuen bila jardun nuen Seo de Urgel aldean. Gero Manresako Kapazitazio Eskolara joan nintzen, eta handik komandante agiriarekin irten nintzen. Han ezagutu nuen Nora, nire emaztea.

"Katalunia galzorian zegoenean, Frantziara pasatu ginen otsailaren 9an, goian zerua eta behean lurra, eta Mediterraneoko hondartza baten itxi gintuzten, Setfond-en, alanbre-estakaz inguratuta. Negua zen eta hondar gainean eduki gintuzten manta soil batekin. Soldadu senegaldarrak egiten zuten guardia, txano gorria buruan. Euria egiten zuenean paseatu egiten genuen. Ea Espainiara ala Frantziako Legiora joan nahi genuen galdetzen ziguten. Nik ez batera eta ez bestera esaten nien. Gero euskaldunak Gurs-era (Biarro) ekarri gintuzten, kontzentrazio esparrura, eta handik Tolosara (Akitania) joan nintzen kartutxo fabrika batera, ajustadore moduan. Halako batean, alemanak ailegatu ziren eta kontzentrazio esparruan sartu nahi izan gintuzten berriz, baina dozena bat lagunek ihes egin genuen basora. Gero baserri baten lanean ibili nintzen bi urtez Lot departamenduan. Beti ezkerreko ideiak izan ditut, baina ez dut sekula militaratu alderdi politiko batean".

Ignacio Herran, belaunaldi hartako beste milaka euskaldun bezala, etsai errukigabe baten kontrako borrokan abiada bizian heldu behar izan zuen gazte kementsu eta idealista bat izan zen. Etsai hori bizirik dago oraindik herriaren oroimen kolektiboa, politiko ilustreko adostutako ahanzturari esker. Gainera orain oroimen hori "zuzendu" nahian dabilta, denoi dagokigunean deskubritzea.

Bakean har dezala atseden Ignacio Herran Izarrak.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Iritsi da zure ordua: azaroaren 10ean 20:00etan Boulevard dendagunean

1.500 sari.

**Motoak, telebistak, asteburuak,
bizikletak, deskontuak...**

Harrapa itzazu zeure eskuekin.



3. urteurrena

www.el-boulevard.com

DEBARRI OÑATI

Lourdes Idoiaga,
Oñatiko alkatearekin
berbetan

Emisio eguna:
Asteazkena 15, 21:15ean

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea


Aurrez galderak egiteko:
www.goiena.net webgunean
edo 943 71 23 95 telefono
zenbakian.



Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

DEBARRI / Babeslea
GRUPO RK UZ
ARRASATE-ARETXABAETA

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

BIDABURU AROSZTEGIA

Oñati
• Era guztietako berrikuntza lanak, leihoak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.
Zubillaga 20
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13
bidaburu.h@euskalnet.net

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behe
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e. arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
• Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

ZUTARRI SL

Arrasate
Zerkaosteta 17, behe
T: 943 79 67 78 / Faxes: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ESKAIOLISTAK

EMILIO ESKAIOLAK

Aretxabaleta
• Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa, sabai desmontagarriak
Bedarretako San Migel auzunea 14, behe D
T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

G. IZCUE IRURZUN

Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak...
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABAETA ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behe
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behe
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behe
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Ura
• Gas
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar dokorea 5, behe C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Errethenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
• Metal arosztea, PVC eta arosztea
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioa
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

LEIHATEK

Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behe
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

L. GONZALEZ PINTURAK

Aretxabaleta
• Pintura orokorra, pintura papereztatua
Basabe poligonoa F-6
T: 686 113 581




> **ARRASATE**
Celestino Uriarteren gaineko liburua argitaratu dute > 20



> **BERGARA**
Indarkeria kasuak salatzen laguntzeko txartelak banatuko dituzte > 24



> **ARETXABALETA**
Arritxu Oliden alkateak GOITBn esandakoak laburbilduta > 31



> **ANTZUOLA**
Alfontso Ugarte musikaria ezagutarazteko ekitaldiak > 36

ARRASATE ETA OÑATI > IKASTOLATIK SAHARARA

Ikastolatik Saharara proiektuarekin 130 ikasle baino gehiago doaz kanpalekuetara

Arrasateko Arizmendi eta Oñatiko Txantxiku ikastoletako ikasle eta ikasle ohiak doaz

Ikas bidaia berezi horretan, astebete egingo dute Aaiungo kanpalekuan

UBANE MADERA > HERRIA

Ikas bidaia berbak benetako zentzua hartzen du Ikastolatik Saharara proiektuarekin; ikasle garai-ko parrandak egitera barik, oraingo honetan benetan ikastera doaz-eta Arrasateko eta Oñatiko ikasleak Sahararako kanpalekuetara. 142 lagun inguru joango dira: Arizmendi Ikastolako ikasle ohiak eta Arizmendiko eta Txantxiku ikastoletako batxilergoko eta DBH-ko ikasleak. Haiei laguntzen 15 nagusi doaz: irakasleak, medikuak, NUBIko kideak (NUBI proiektua bultzatzen ere ibili da) eta Fronte Polisarioko ordezkariak. Hala azaldu digu proiektua bultzatzen ibili den Arizmendiko ikasle ohi Leire Baltzategik.

Abenduaren 1etik 8ra izango dira Aaiungo Wilayara kanpalekuan. "Haimetara goaz, bosnako taldetan. Eta ez gara izango bakarrik. Esan digute 5.000 pertsona-edo joango direla hara aste berean, abenduko zubi horretan hegazkin mordoak doazela Italiatik, Alemaniatik... Saharara".

ORTUAK LANDU ETA BESTE

Argi dute gora begira egotera ez doazela haraino: "Hangoa ezagutzera goaz eta saiatu behar dugu, aldi berean, proiektu jakin bat aurrera eramaten; baina ez dakigu oso ondo zeintzuk diren orain dituzten behar nagusiak eta nahia-gu dugu hara joan eta ikusi benetan zer behar duten. Dena den, badakigu eskola batzuk margotu behar ditugula, ortuak landu... eta horrez gainera, daramagu 10.000 euro materialean: zortzi ordenagailu Lea-Artibaik emanda, Mugarri eta Citroenek emandako lane-



ARIZMENDI Argazkian, Aaiungo kanpalekura joango den Arizmendiko ikasle eta ikale ohi taldea.

ARIZMENDI

rako lan-jantziak, Cegasaren linternak, Astoreren opariak, IFAMek emandako giltzarrapoak, Fagorrek NUBIri emandako lapiko mordoak, banketxeek emandako gozokiak... Horren beharrezkoak ez ditugun gauzak eraman behar ditugu. Horrez gainera, joango gara ikustera hango merkaturak, dunak ezagutuko ditugu... Azken batean, laguntzeaz gainera, hango esperientzia eta kulturarekin hartu-eman izatea da

helburua. Guk emango dugu materialki ahal duguna, baina eurek emango digute bizitza ikusteko beste modu bat".

ESPERIENTZIAK ELKARTRUKATZERA

Lanera doaz, baina alde zuzenetik ere lan handia egin dute Ikastolatik Saharara proiektua garatzeko: "Hasi ginen otsailean, batxilergoko 2. mailan geundena. Taldetan banatu ginen: txosna taldea, materiala batzeko,

komunikazio taldea, kamisetak egiteko... Eta harrezkero ekintza mordoak egin dugu: txosnak jarri jaietan, kamisetak saldu, erri-fak, tangak... Eta justu orain Sahara Astea ospatzen gabiltza Arrasaten, NUBI elkartearekin".

Horrek guztiak ahalegin handia eskatu die, baina bultzatzaileek argi dute egin beharrekoa dela: "Ez goaz ondo pasatzeko ideiarekin. Gura dugu lagundu. Jendeak berba asko egiten du Sahararen

ADIERAZPENAK

"Saharari lagundu gura diogu, baina lehenengo, hango errealitatea ezagutu behar dugu"

"Inporta duena da guk laguntzea baina ez bakarrik han, bidaiatik bueltan jarraitu egin behar dugu"

Leire Baltzategi > Arizmendi

gainean, baina ez dakigu zer den, ez gara egon inoiz; hango errealitatea ezagutuko dugu hura ikusita. Baina garrantzitsuen da bueltan laguntzen jarraitzea".

HITZALDIK HUNKITUTA

Saharara joateko ideia nondik nora sortu zen ere kontatu digu Leire Baltzategik: "Arizmendin beti izan dira eskolaz kanpoko taldeak. Badago, esaterako, elkartasun talde bat eta handik beti biderratu dute Saharara laguntza. Horrek bultzatuta, iaz etorri zen hitzaldi bat egitera Garazi; Ormaiztegin bizi da, baina aita sahararra zuen eta bera ere han jaio eta bizi izan zen, 10-11 urtera arte. Hunkituta geratu ginen hari entzundakoekin, eta guk ere joan nahi genuen, baina beranduegi zen gure ikas bidaia aldatzeko. Dena den, 20-30 lagun hasi ginen mugitzen. Baina ikusi genuen horrela ezinezkoa zela eta dei egin genuen Arizmendin. Baina Arizmendikoekin hegazkin bat betetzea lortuko ez genuela pentsatu eta Txantxiku ikastolara zabaldu genuen deia. Azkenean, autobusa betetzeaz gainera, batzuen artean zozketa egin behar izan dute, zein joango den erabakitzeko".

ESKERRAK EMATEKO

Bukatu aurretik, Leire Baltzategik eskerrak eman gura dizkie NUBI elkarteak Agurne Juldaini eta Arizmendiko Leire Aranari ekimen hori bideratzearen.

SAHARA ASTEAREN AZKEN EGUNA

Proiektua bihar aurkeztuko dute, eta 'azken diruak' batuko dituzte

Bihar izango da Arrasateko Sahara Astearen azkeneko eguna. Eguerdian hasi eta 21:00ak arte ekitaldiak egingo dituzte plazan. Besteak beste, 11:30ean hasita, Arizmendiko maskota *Argitxo*-k boloa egingo du; umeendako trailerrak eta jolasak izango dira; tonbola zabalduko dute, ikasleek batu dituzten opari eta bestelakoekin (300 opari baino gehiago); kamisetak eta errifak salduko dituzte; txosnatxoak ipiniko dute, sagardo eta pintxoekin eta Txikitxu taldeak dantza

saioa egingo du. Horrekin batera, tea egingo dute eta baita hennarekin marrazkiak ere, Saharako produktuen erakusgarri.

Arratsaldean, berriz, esandako guztiarekin batera, Ekin Emakumeek taloak egingo dituzte; bigarren eskuko liburuen azoka ipiniko dute; eta Goikobaluk kantu saioa egingo du. Guztia, 18:00etan hasita.

Bestalde, datorren astean Oñatin ospatuko dute Sahara Astea, Arrasatekoaren antzera.

kale inkesta

Zer moduz gelditu da Biteri plaza berria? Gustuko duzu?



Unai Baena
Langilea
Arrasate



Felix Uribe
Erretiratua
Arrasate



Unai Arizmendiarieta
Ikaslea
Arrasate



Leonor Barquero
Erretiratua
Arrasate



Rosario Zeziaga
Langilea
Arrasate

Nire ustez nahiko ondo dago; handia da, gainera. Eta horri esker auto gutxiago ibiliko dira inguru horretan. Azoka egiteko leku aproposa dela uste dut, pasealekua ere badelako.

Txukun samar utzi dute, baina e-structura handiegia delakoan nago. Ez dakit zertarako den hain altua. Azokakoendako, berriz, ez dago ondo: euriak busti egingo ditu eta hoztu egingo dira.

Ondo dagoela uste dut, azalera handia hartu du plaza horrek. Gainera, auto gutxiago ibiliko dira. Azokarako ez da oso leku aproposa. Hobeto estalita dagoen leku bat behar du azokak.

Harrituta gelditu naiz plaza berria zer-nolako handia den. Bestalde, eraikina handiegia dela uste dut. Nire ustez, base-rritarrek horren azpian hotz handia jasan behar izango dute.

Ez zait gustatu, eta hala esan nuen inaugurazioan. Ez dago itzalik ezta jarlekurik. Seber Altube eta Laubideko plaza ere hala-koak dira, hutsak eta hotzak. Egin aurretik gal- detu egin beharko lukete.

txaloak eta txistuak



UBANE MADERA

Ezin errespetatu guztiona den hori



Arrasateko bizilagun batek kontatu digu zela aspalditik zuen susmoa Olarte kalean ipini zituzten lorontziak lapurtuko zituztela. Eta halaxe izan da. Ipiniz zituztenetik ez da denbora asko pasatu behar izan jendeak lapurtu eta etxera eramateko. Gertatu eta abisatu egin digu.

asteko datua

3

Oñatiko hiru lekutan lapurreta egiten ahalegindu dira oraingo astean, eta bitan sartu egin dira: Kurtzebaltz elkartean eta Gual aholkularitzan. Zorionez, diru gutxi eraman dute eta kalte materialak ere ez dira handiak izan.

usteak uste

Aintzane Irizar

Gaixotzeko eguna: eguaztena

Ama batek esan dit aurten, guztira, hogeita hamar ume baino gehiago jaioko direla Antzuolan. Ez da marka makala, gero, 2.000 biztanleko herri batendako! Azkeneko urteotako kopururik altuena izango da.

Hala ere, ez dugu pediatarrik herrian. Herri txikietan bizi garenok gainerakook baino eskubide gutxiago dugu, antza. Antzuolara bizi izatera etorri nintzenez ez zidan inork horrelakorik kontatu, baina... Oso garrantzitsua ei da herri txikietan biztanleria ez galtzea, herri txiki biziak behar ei ditugu. Horretarako, umeak ekarri behar ditugu, besteak beste. Baina, pediatarrik ez dugu, ez ei zaigu tokatzen. Astean behin etortzen da Bergarako. Gure umeei eguaztentean gaixotzen irakatsi behar diegu. Eta hori ez da batere lan erraza.

Egia da geroago eta zerbitzu gehiago dugula: eskolako jantokia, haurtzaindegia eta zaintza zerbitzua. Baina, hain oinarrikoa den osasun zerbitzuan horrelako hutsunea egotea bizi garen herrialde aurreratu honetan, bada zerbait.

Mediku bakarra eta bera erdalduna izatea ere bada zerbait esateko modukoa, baina, hori beste baterako lagako dugu.

5 galdera...

Iñigo Elosegi

Gipuzkoako Uren Partzuergoa
Donostia

1. Estatuan uraren erabilera (60 litrotik gora pertsonako/eguneko) zigortzen badute, EAEn ere bai?

Hemen, uztailean, legebiltzarrean onartu zuten uraren euskal legea. Hor azaltzen da pertsonako eta eguneko 130 litrotik gorako kontsumoari ezarriko litzaiokeela zerga ekologiko hori. Momentuz, indarrean dago, uztailetik aurrera. Baina oraindik ez da kobratzen araudirik ez dagoelako. Larrañaga sailburuak esan zuen urte eta erdi edo pare bat urte beharko direla abiarazteko.

2. Larregiko erabilera zigortzeak konponduko luke arazoa?

Helburu horrekin egin da eta nik uste dut eraginena bat izango duela. Dena den, gu nahiko erabilera ona ematen ari gara urari. Ez da orain hamar urteko kontua. Orain 10 urte ur biltegietan 350 litro ur sartzen genuen pertsonako eta eguneko eta 2005ean, berriz, 285 litro sartu genuen.

3. Egia da ur instalazioen egoera ez dela oso ona eta hortik litro asko joaten dela?

Lehen aipatu dugun jaitziera ur instalazioen hobekuntzaren seinale ere badela pentsatzen dut. Gure lurraldean ihesak izango dira %16-18koak.

4. Hemengo egoera (Debagoienekoa) horren larria izan ez arren, zenbateraino da kezagarria?

Maiatzetik hona ez du ia euririk egin Debagoianean. Urkulu %60 inguruan dabil. Badugu ura, euria egin ez arren, beste sei-zortzi hilabeterako. Goierrin, berriz, urtegia herenean dago eta euria egin ezean, 18-20 asterako ura dago, beste iturri batzuk bideratu ditugu urtegiara. Gainera, orain da urtegiak betetzeko sasoa.

5. Debagoienerako ur kontsumo datuak Estatukoak modukoak dira?

Ez. Debagoienerako batz bestekoa da 135 litro pertsonako eta eguneko. Apurtxo bat altuagoa da Leintz ibarrean eta Bergaran industria kontsumoa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

ZERBITZUAK > JOLAS-GUNE BERRIA SANTA BARBARAN

Arrasateko historian oinarritutako jolasak ipiniko dituzte Santa Barbaran

Arrasateko herensugea, gaztelua eta dorrea irudikatuko dituzte; Udalak gura du parkea ipinita izatea urtea bukatu baino lehen

UBANE MADERA > ARRASATE
Jolas-gune tematikoa ipiniko dute Santa Barbaran, Arrasateko historian eta mitologian oinarritutakoa. Asmoa da Santa Barbara parkearen hasieratik zubira arte dagoen espazioa hiru gunetan banatzea, umeen adinaren arabera. Eta oro har, jolas-gune guztia zailtasunak dituztenendako egokituko dute. Obren Saileko teknikari buru Moises Altunak eman dizkigu xehetasun guztiak.

LEHENENGOAN, DRAGOIA

Lehenengo gunea 6 eta 36 hilabete bitarteko umeendako izango dela azaldu digu, Arrasateko dragoia irudikatuko dutela: "Gune horrek edukiko du txirrista bat hodi baten barruan eta irudikatuko du dragoia, Arrasateretik lotura adierazteko; izango da ailegaerra bere osotasunean". Horrek esan nahi du gorpildun aukiekin goraino igo ahal izango dela txirrista erabiltzeko.



DRAGOIA, DORREA ETA GAZTELUA Argazkian ikus daiteke zelakoak izango diren Santa Barbarako jolas berriak. ARRASATEKO UDALA.

BIGARRENEAN, GAZTELUA

Beste gunea bat prestatuko dute 3 eta 8 urte arteko neska-mutikoendako egokituta. "Da gaztelu bat, Santa Barbaran bere egunean egon zen gaztelua irudikatzen. Dauka gaztelua bera, pasabideekin, dorre batzuekin eta txirristekin. Beheko aldean, berriz, jokoak ditu: abakoak... Eta hor, gainera, edozein ibil daiteke, lurraren mailan dagoelako. Gorago igotze-

ko, berriz, eskailerak daude. Izan ere, jolas-gunerako proposamenak bidali dizkigute sektorean Estatuko puntakoenak diren enpresa guztiek, baina guztiek bakarrik ipini dute zeharo ailegaerra 6 eta 36 urte bitartekoendako jolasa, dragoiarena; gainerako biak ez dira guztiz ailegaerrazak. Bi horiek beheko aldea izango dute ailegaerra eta beheko aldean jolasak izango dira".

HIRUGARRENEAN, DORREA

Eta hirugarren gunea 6-12 urte arteko neska-mutikoendako izango da eta dorrea irudikatuko du hango jolasak. "Santa Barbaran zegoen dorrea irudikatzen du. Behean eskalatzeko gunea izango du, rokodromo itxurakoa. Eta goitik behera, berriz, txirrista dezentte handiak. Horiek ere hodi batzuen barruan sartuta joango dira. Oso bereziak dira, luzeak direlako eta

DATUA

85

MILA EURO INGURU KOSTAKO DA

Hain justu, 84.200 euro inbertituko ditu Udalak jolas-gunean: "Bederatzi enpresa aurkeztu dira, Estatuko sektoreko puntakoenak, aurrekontua handia delako".

hodi barrutik doazelako. Esan digute halakoek arrakasta handia izaten dutela neska-mutikoen artean".

SEGURTASUNA BERMATZEKO

Bestalde, xehetasun orokorreki dagokienez, Moises Altunak esan digu hiru gunek izango dutela gomazko lurra, segurtasuna bermatzeko: "Eta dragoiaz, gazteluaz eta dorreaz gainera, guneguztian ipiniko ditugu jolas tradizionalak: ziburuak, malgukiekin mugitzen diren zalditxoak...".

URTEA BUKATU AURRETIK

Lanak berehala hasi gura ditu Udalak: "Nahi dugu urte bukararako parkea ipinita egotea; ez dakigu ahal izango dugun, baina nahi dugu aurten ipini. Hala ez bada, datorren urtearen hasieran ipinita izango da". Jakinarazi digunez, Gasteizko Yor enpresak ipiniko du jolas-gunea.



ETXEBIZITZAK ELGETAN

Elgetan (Torrealdea)

B blokea: 16 etxebizitza eta apartamentu.

Bukaera: 2007ko apirila.

- 2 logeladun apartamentuak, garajearekin (bi leku): 215.000 €
- 3 logeladun etxebizitzak, garajearekin (bi leku): 239.000 €

C blokea: 24 etxebizitza eta apartamentu.

Bukaera: 2008 urtea.

Elgetako etxegintza SL Tel. / Faxe: 943 79 83 08 Aldai kalea 7, behea ARRASATE



ZORTZI URTE Harreman dendak zortzi urte daramatza Arrasaten. U.M.

GIZARTEA > BIDEZKO MERKATARITZA

Produktuak emango dituzte dastatzeko bihar

Eroski Hipermerkatuko Harreman dendan dastatu ahal izango dira produktuok

UBANE MADERA > ARRASATE

Bidezko merkataritza ezagutze-
ra emateko asmoarekin, gober-
nuz kanpoko Harreman elkar-
teak Eroskiko dendako produk-
tuak dastatzeko aukera emango
du bihar. "Oso aukera ona da pro-
duktu hauek ezagutzeko, kalite-
koak eta biologikoak izate-
az gainera, pertsona asko duin-
tasunez bizi daitezten laguntzen
baitute", adierazi digu gober-
nuz kanpoko elkarteko kide
Cristina Etxenausiak.

Hala, bada, interesa due-
nak bihar Arrasateko Hiper
Eroskira jo behar du; hantxe
dago eta Harreman denda.

NOIZ ETA ZER

Hain justu ere, denda horren
ordutegia da 10:30etik 20:30ak
arte; horrenbestez, bihar ere
ordutegi hori kontuan hartu
beharko dute produktuak das-
tatzera doazenek.

Bestalde, dastatu ahal izan-
go dutena honako hauxe da:
kafeak, galletak, txokolatea,
marmelada, bonboiak, gozo-

kiak, azukrea eta txokolatezko
krema.

Horrez gainera, behin das-
tatzera joanez gero, zerbait ero-
si gura duenak aukera zabala-
goa dauka; izan ere, bestelako
jakiak eta edariak ere saltzen
dituzte Eroski Hipermerkatu-
ko sarrerako dendan; baita arti-
sautzako produktuak, bitxiak,
eta ehun-gaiak ere.

LORTZEKO ZAILA

Helburuari dagokionez, berriz,
zaila da hura lortzea, hau da,
bidezko merkataritzarekiko
jendearen elkartasuna lortzea:
"Egia esanda, ez dugu lortu jen-
dea behar hainbat sentsibiliza-
tzerik. Era askotara saiatu gara,
baina kontsumitzaile gehienok
ez ditugu kontuan hartzen, ero-
sterakoan, herri pobretuen behar-
rak eta kontsumo arduratsua-
ren kodigoak. Gure bezeroak,
gehienak, herri baztertuekiko
konpromisoa dutenak dira.
Hala ere, jarraituko dugu lane-
an", jakinarazi digu Cristina
Etxenausiak.

HARREMAN DENDA

Zortzi urte bidezko merkataritza gure ibarrean hedatzeko ahaleginean

Harreman dendak zortzi urte daramatza zabalik. Gure ibarrean bakarra da. Hain justu ere, gura ibarreko gobernu kanpoko bederatzi erakunde kudeatzen dute: Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Serso San Viator, Activos por un Mundo Solidario (AMS), Atxorrotx, Hiruatx, Anelkar, Banoia, Fisc eta Harreman. Dendako produktuak datoz, batez ere, Hego Amerikatik, Afrikatik eta Asiako zenbait herrialdeetatik. Bidezko prezioan saltzen dituzte. Horrela, gune pobretako ekoizle eta nekazariak lana duintasunez egiteko bidea dute eta, besteak beste, kontsumitzaileek kalitatezko produktuak erosten dituzte, langilearen eskubideak eta ingurumenaren errespetatu direla jakinda.

HIRIGINTZA > GELMA AUZIA

EBk errekurritu egin du hitzarmena

Irailaren 25ean
Gelmaren,
Obenerrekaren eta
Udalaren artean adostu
zuten hitzarmena
errekurritu egin du EBk

A.L./U.M. > ARRASATE

Hain zuzen ere, Ezker Batuak errekurritu duena da Udalak jaso behar duen aprobetxamendua. Izan ere, eta EBk prentsaurrekoan esandakoaren arabera, legez, hitzarmenean zehaztutako kopuruaren %10eko aprobetxamendua dagokio Udalari. Kopurutan ipinita, zifra izango litzateke ia zazpi milioi euro.

Irailaren 25eko hitzarmenaren arabera, berriz, 4.700.000 euro pasatxo jasoko ditu Udalak Gelmaren lursailarengatik. Eta hain justu ere, Ezker Batuak salatzen du Hirigintza Saileko teknikariek abuztuan egindako txosten batean zehazten den diru kopurua eta Udalak jasoko duena ez dela berdina: "2006ko abuztuko txosten teknikoak zehazten du ia zazpi milioi euroko aprobetxa-

mendua izan behar duela Udalak, eta gero, hitzarmenean lau milioi pasatxo zehazten dira; hortaz, ia bi milioiko aldea dago", salatu zuen prentsaurrekoan Ezker Batuak ordezkari Ander Rodriguez zinegotziak. Gaineratu zuen Ezker Batuak aurkeztutako probekin argi gelditzen dela Gelmako hitzarmena administratiboki balio gabe gelditzen dela. Eta hori frogatzeko helburuarekin Administrazio Gaietarako Auzitegian errekurtsioa ipinito dutela iragarri zuten martitzeneko prentsaurrekoan.

USTELKERIAREN AURKAKORA

Horrekin guztiarekin batera, Ezker Batuak salatu zuen horrelakoak eginda Udala dirua galtzen dabilela: "Beharpen fiskal horiek aplikatzen dituzten bitartean, hurrengo ekitaldirako inbertsioei aurre egiteko zortetan sartuko da Udala".

Halaber, EBko zinegotzi gazteak adierazi zuen herritarren aurrean "behar morala" dutela eta aurkeztuko dutela errekurtsioa eta jakinarazi zuen ustelkeriaren aurkako Estatuko Fiskaltzara ere jo behar duela Gelmaren auziarekin.

> POLITIKA

Paco Garcia alkate izateko aurkeztuko da hauteskundeetan

Ezustekorik ezean, atzo egue-
na egin zuen prentsaurrekoa
Arrasateko PSE-EEK, alkate-
tzarako hautagaia aurkezte-
ko. Hala, aurreratutakoaren
arabera, Paco Garcia izango
da alderdiko zerrenda burua.

Paco Garcia 20 urte dara-
matza Arrasateko zinegotzi
moduan. Bestelakoan artean,
Debagoieneko PSE-EEko
idazkari nagusia da eta Gipuz-
koako exekutibako kidea eta
Batzar Nagusietakoa ere bai.

> POLITIKA

Lanuzteak eta mobilizazioak, ikasleek deituta

Datorren azaroaren 17an
Ikasleen Nazioarteko Eguna
dela eta, Ikasle Abertzaleak
taldeak lanuzteak eta mobi-
lizazioak antolatu ditu dato-
zen egunotara begira. Hala,
azaroaren 17an bertan, beste-
ak beste, manifestazioa egin-
go dute Arrasaten, 19:00etan,
Seber Altubetik aterata.
Horrekin batera, ikastetxee-
tan lanuzteak deituko dituz-
te. Datorren astean emango
dituzte xehetasun gehiago.



Zatoz probatzera!

OROIMEN HISTORIKOA > 'CELESTINO URIARTE, KLANDESTINITATEA ETA ERRESISTENTZIA KOMUNISTA' LIBURUA AURKEZTU DUTE

1934an borrokatu zirenen omenez, Celestino Uriarteren gaineko liburua

Iraultzaren alde aritzen Celestino Uriarte arrasatearraren historia batu dute

Liburua Txalapartak argitaratu du, eta dokumentala ere egiten hasi dira

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

1934ko urrian iraultza egin zuten herritar askok Arrasaten. Alderdi Sozialistako kide ziren eta uste zuten Espainiako Estatu osoan piztu zela iraultzaren garra. Gipuzkoako beste herri batzuetan eta Asturiasen izan zuten oihartzun handiena. Arrasateko lagun haiek oso argi zuten. 1933an mendira igo ziren armekin entrenatzera. Errepublikak sozialista ezarri gura zuten.

ALDERDI KOMUNISTAREKIN

Sozialisten duda-mudak zirela eta, Alderdi Komunistara jauzi egin zuten haiek batzuek. Haien artean Celestino Uriartek. Dragoien batailoian borrokatu



AURKEZPENA Joxe Iriarte *Bikila* (hitzaurrea berak egin du), Garai eta Larraitz Altuna egileak eta Mikel Soto (Txalaparta). I.B.

ostean, gerra bukatzearekin bat Txilera alde egin zuen. Lau urte geroago, klandestinitatean murgildu eta hirigunetako gerrillak

gidatu zituen, Madrilen, Valentzian, Asturiasen..., eta Alderdi Komunistaren barruan ardura handiak izan zituen. Atxilotze-

an heriotza-zigorra ezarri zioten, baina handik ihes egin eta Europa alde egin zuen. 70eko hamarkadan Espainiako Alder-

di Komunistarekin hautsi eta beste alderdi bat sortu zuen. 1979ko irailaren 9an hil zen, Parisen, laugarren bihotzekoak jota, 70 urte zituela.

EUSKARAZ KALERATU DUTE

Bada, bizitza guztia borrokan igaro zuen arrasatear haren bizitza jaso du Juan Ramon Garaik. Garaik miretsi egiten du Celestinoren lana, eta baita belaunaldi hartako lagunena ere. Hego Amerikan, Frantzian, Madrilen, Asturiasen, Burgosen eta Arrasaten 27 lagunetik gora elkarrizketatu ditu; hainbat artxibotan orduak eta orduak igaro, eta dokumentazio ugari batu behar izan du lan hori egiteko.

DOKUMENTALA ERE EGITEN

Txalaparta argitaletxeok baiezta eman zioten liburua irakurri barik, aurretik Garaik egindako lanen jakitun, eta hark 312 orritan batu du Uriarteren historia.

Baina arrasatear haren historiak jende gehiago txunditu du. Hala, Txepe Lara ekoizleak dokumental bat egitea erabaki du, eta dagoeneko hasi dira horren gainean lanean. Jaurlaritzak ez die dirulaguntzarik eman gura izan, baina, hala ere, aurrera egitea erabaki du Larak.

Juan Ramon Garai > Oroimen historikoa jasotzen dihardu

"Belaunaldi hark lortu gura zuen mundua posible da"

I.B. > ARRASATE

Garaik, beste hiru lagunek lagun-duta, hiru urte igaro ditu liburu hori prestatzen. Lanorduetatik kanpo egin behar izan du.


Buruz buru hasi zuten Celestino Uriarteren gaineko liburua egiten ala Urriko Iraultza eta Espainiako gerra aztertzerakoan hartu zuten erabakia?

Bigarrena. *Belaunaldi etena* egin ostean, Debagoienan izan zen gerra osteko erresistentziaren gainean idazteko asmoa genuen, eta Aranzadiko lagun batek Martuteneko artxibora sartzea lortu zuen. Celestinoren gaineko informazioa ikuskatzeko eskatu eta informe dezente aurkitu zuen. Hortaz, armadaren Ferrolgo artxibora jo genuen eta han txundituta gelditu ginen Celestinoren ibilbidearekin.

Orduan bertan hartu genuen erabakia liburua Celestinoren gainekoa izan zedin.

Denbora luzea eman duzu liburu hori egiteko, eta, gainera, lanorduetatik kanpo egin duzu...

Bai. 3 urte eman ditut horretan, baina Larraitz Altunarekin elkarlanean egin dut. Horrez gain, Julia Mongek eta Luzio Reglerok laguntza handia eman digute. Gogorra izan da hainbeste denbora ematea, baina hori guztia motibatuta egin dugu, belaunaldi hark egin zuenaren aurrean txapela erantzten dugulako. Are gehiago, haiek amestu eta borrokatu zuten mundua posible dela uste dugu.



GOIENKARIA

Jende askorendako bitxia izango da liburu hori gaztetxean aurkeztea...

Bai, badakigu, baina gure usteetan oso garrantzitsua da. Batetik, historia zati hori gazteei erakutsi gura diegu; eta bestetik, Celestinoren belaunaldia, iraultzaren alde eta frankismoaren kontra borrokatu zuena, oso gaztea zen. 1934ko urrian atxilotu zituzten gehienak 25 urtetik beherakoak ziren. Horra hor datua.

Gosek liburuaren mezua jaso eta eguneratu egin du, ezta?

Bertso batzuei musika jartzea eskatu genien, eta eurek eraldatu egin dute, baina emaitzak hunkitu egin gaitu.

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Astelehenetik ostiralera
eguneko menua

Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ERAKUSKETAK > HARRESI ARETOAN ETA GASTEIZEN

Eskulturak eta olioak ikusgai daude

Iñigo Arregik eskulturak jarri ditu Gasteizen; eta Jon Fdez. de Arroiabek margolanak Harresin

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Arrasateko artista batek eskulturen erakusketa jarri du Gasteizko Felisa Navarro galerian; eta Elorrioko margolari batek hainbat lan ikusgai jarri ditu Arrasateko Harresi aretoan. Biekin izan gara, erakusgai jarri dituzten lanen berri izateko.

Iñigo Arregi oso ezaguna da Arrasaten. Urte ugari darama margotzen eta bestelako artelanak egiten. Adibide moduan, Maritxu Kajoi jairako lehenengo horma-irudiak egin zituen beste lagun batzuekin elkarlanean; eta 1973an taldeko erakusketa egin zuen Arrasateko udaletxean. Era berean, 70eko hamarkadan Gipuzkoako Aurrezki Kutxak aukeratu eta Gipuzkoan barrena margolanen hainbat erakus-

keta egin zituen. Handik aurrera, 80ko eta 90eko hamarkadetan bakarkako erakusketa ugari egin zituen Gipuzkoako, Andaluziako, Valentziako, Madrilgo eta Parisko erakusketa aretoetan.

BESTEEN LANAK ERAKUTSI

2000tik aurrera, erakusketa gutxiago egin ditu, Arrasaten duen dendan beste artista batzuen lanak erakusten ibiltzen delako; hala ere, urtero erakusketa bat baino gehiago egiten ditu.

ESKULTURARI EKIN DIO BERRIRO

Aspaldian, eskulturak egiten hasi da berriro. Iraganean erabiltzen zuen egurrez gainera, Corten izeneko altzairu berezia ere erabiltzen du eskulturak



BAZ-EN SARRERAN Altzairuzko eskultura bat jarri du Iñigo Arregik.

I.B.



PAISAIA UGARI Fernandez de Arroiabek ehunka paisaia egin ditu.

I.B.

egiteko; hain zuzen, altzairu horren kanpoaldea herdoildu egiten da.

Bada, aspaldian egin dituen 14 eskultura batu eta Gasteizko Felisa Navarro aretoan jarri ditu ikusgai. Abenduaren 5era arte dago horiek ikusteko aukera martitzenetik zapatara bitartean, arratsaldez. Eskultura horiez gain, baina, haiekin harremana duten lau grabatu eta bi olio ere batu ditu.

Lan horietan, gizakia, industria eta beste alor batzuk uztartzen ditu. Horretarako, forma organiko eta geometrikoak erabiltzen ditu.

PAISAIAK, HARRESIN

Bestalde, Elorrioko Jon Fernandez de Arroiabek margolanen erakusketa jarri du Arrasateko Harresi aretoan. Gaurtik, egubakoitza, hilaren 26ra bitartean egongo dira ikusgai haren lanak. Astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara bitartean; eta zapata eta domeketan, goizez eta arratsaldez.

Fernandez de Arroiabek 26 urtetik gora darama paisaien gaineko olioak egiten. Horretarako, lekuan bertan margotzen du. Harresin 36 bat lan batu ditu, Elorrioko, Arrasaten eta Araban egindakoak. Horietatik bi abstraktuak dira; gainontzeak, berriz, paisaiak.

Hainbat erakusketa jarri ditu orain arte: Bilbon, Durangon, Elorrioko, Gasteizen eta Arrasaten, besteak beste.

Biteri Ongi etorri!

Gure herriko dendak gero eta hurbilago



Ibai-Arteko komertzioetan gutxienez 10€ko erosketa egiteagatik Biteri parkingean ordu bete kotxea doan aparkatzeko txartela jasoko duzu

2007ko urtarrilaren 31ra arte iraungo du kanpainak.



Laguntzailea:



futbitoa zaldibar

EMAITZAK

Dribling-THC.....	6-0
HLB 108-Saukelu Abian.....	2-3
Abokajarro-Cipris Taberna.....	7-0
Lasagabaster-Manhattan Pippol.....	4-7
Billy & The Cowboys-AT Celaya.....	2-3
Betrayer-Iritz Taberna.....	6-6
Iluntz-Cicatrús.....	5-3
Iturriotz Taberna-Dublin Irish Pub.....	5-1
Mc Dauen Auen-Equs.....	2-0

PARTIDUAK

Azaroak 11, zapatua	Epaileak
09:50 AT Celaya-Dublin Irish Pub	Cicatrús
11:00 Cipris-Cicatrús	Dublin Irish Pub
12:00 Iluntz-Iturriotz Tab.	Cipris
13:00 HLB 108-THC	Iturriotz Tab.
15:50 Billy & The Cow-Lasagabater	Dribling
17:00 Abokajarro-Dribling	Betrayer
18:00 Betrayer-Equs	Abokajarro

Azaroak 12, domeka.	Epaileak
10:50 Cipris-THC	Manhattan Pippol
12:00 Iritz Taberna-Manhattan Pippol	THC
13:00 Saukelu Abian-Mc Auen Dauen	Iritz

SAILKAPENA

	P	J
1. Iluntz.....	6	2
2. Saukelu Abian.....	6	2
3. AT Celaya.....	6	2
4. Betrayer.....	4	2
5. Iturriotz Tab.....	4	2
6. Mc Auen Dauen.....	4	2
7. Abokajarro.....	3	2
8. Dribling.....	3	2
9. HLB 108.....	3	2
10. Dublin Irish Pub.....	3	2
11. Manhattan Pippol.....	3	2
12. Iritz taberna.....	2	2
13. Billy & The Cowboys.....	1	2
14. Lasagabaster.....	0	2
15. Cicatrús.....	0	2
16. Equis.....	0	2
17. THC.....	0	1
18. Cipris.....	0	1

Adi azken orduko aldaketari!

Astearen hasieran www.zaldibarkofutbito-txapelketa.com webgunea bisitatu duenak, jakin, ordutegian aldaketa bat izan dela. 16:00etan jokatu behar zuten taldeek 18:00etan jokatu dutela, alegia.

ATLETISMOA > ATLETIADA ANOETAN

Atletiadan hartuko dute esku Arrasate Atletiko Taldeko 32 neska-mutikok

Bihar egingo dute Anoetan Kutzak babesten duen Atletiada proba. Probak hasi aurretik, herrietako ordezkariak desfilea egingo dute

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Gipuzkoan neska-mutiko gehien batzen dituen probetakoa da bihar Anoetan egingo duten Atletiada. Fernando Zufiria entrenatzailearen esanetan, atletismoko taldea duten Gipuzkoako herri guztiak izango dira ordezkariak, eta giro paregabea egongo da:

"Hemengo gazteak deseatzten egoten dira proba hori iristeko. Azken batean, gaztetxoak atletismoan hasteko eta gustua hartzeko proba aproposa da".

Hala, Arrasateko 32 atleta izango ditu lehian. Gehienak infantil eta alebin mailetakoko lasterkariak dira. Ondoa duzue zerrenda.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO LIGA

Gure Jorge Fernandez, hori da hurrengo kontrarioa

Ford Mugarrik talde horren kontra jokatu du asteburuan etxean

X.U. > ARRASATE

Gezurra badirudi ere, hori da oraingo asteburuan Ford Mugarri Arrasateko izango duen kontrarioaren izena: Gure Jorge Fernandez. Eta ez, ez da gure Jorge Fernandez, telebistan aurkezle lanetan dabilena, Gas-teizko talde bat baizik.

Bromak alde batera, azken bi jardunaldietan esku-hutsik itzuli dira Bernardo Balerdiren eta Fertzuren mutilak. Joan den astean ere aurreratu zuen Balerdik etxetik kanpora gaitza izango dela etekin esku-ratzea, baina asteburuan Ford Mugarrik Iturripen jokatu du, etxean.

Eta, Arrasateko taldeak hori izan behar du indartsu, puntu horiek ezin dute-eta alde egin. Sailkapenean bi puntu gutxiagorekin dago Gure Jorge Fernandez. Esatea bakarrik... Ea ez diguten umore ona kentzen.

Atletiadan esku hartuko duten Arrasateko atleta gazteen zerrenda:

60 metroko lasterketan:

Infantil maila (Mutilak)	
> Rafa Cordero Murillo	Institutua
> Jian Chen Jian	San Viator
> Asier Amutxastegi	San Viator
> Josu Revuelta Gartzia	San Viator
> Gaizka Donai Otegi	Gazteluondo

Luzera jauzia:

Infantil maila (Mutilak)	
> Iñigo Uribarren Garai	Institutua

1.000 metroko lasterketan:

Infantil maila (Mutilak)	
> Andoni Perez Kortabarria	Almen

4x100 metroko lasterketan:

Infantil maila (Mutilak)	
> Iñigo Uribarren Garai	Institutua
> Jian Chen Yin	San Viator
> Andoni Perez Kortabarria	Almen
> Josu Revuelta Gartzia	San Viator

60 metroko lasterketan:

Infantil maila (Neskak)	
> Ane Ribas Martinez	Institutua
> Cristina Fernandez Gordoa	Institutua
> Maialen Axpe Etxabe	Institutua
> Eukene Dorronsoro Murgiondo	S.V.
> Lorea Mendizabal Bengoa	San Viat.
> Uxue Bengoetxea Romara	Kurtzeb.
> Aitziber Azaldegí Garmendia	San V.
> Ibone Andres Iglesias	Kurtzebarri

Luzera jauzia:

Infantil maila (Neskak)	
> Lore Mar Barrutia	Almen

4x100 metroko lasterketa:

Infantil maila (Neskak)	
> A errelebuak:	
> Maialen Axpe Etxabe	Institutua
> Eukene Dorronsoro Murgiondo	S.V.
> Lore Mar Barrutia	Almen
> Aitziber Azaldegí Garmendia	Almen
> B errelebuak:	
> Ane Ribas Martinez	Institutua
> Cristina Fernandez Gordoa	Institutua
> Lorea Mendizabal Bengoa	San Viat.
> Uxue Bengoetxea Romara	Kurtzeb.

1.000 metroko lasterketan:

Kadeteak (Mutilak)	
> Martin Berrizbeitia Zugaza	Kurtzeb.

60 metroko lasterketan:

Kadeteak (Neskak)	
> Lide Pagaldai Gazteñaga	Kurtzeb.

60 metroko lasterketan:

Alebin maila (Mutilak)	
> Xabier Zubillaga Gartzia	Kurtzeb.

> Josu Ancin Murguzu	San Viator
----------------------	------------

> Gorka Llodio Bergaretxe	San Viator
---------------------------	------------

> Adrian Aginagalde Garai	Kurtzeb.
---------------------------	----------

> Jon Aranburu Goirizelaia	Almen
----------------------------	-------

4x100 metroko lasterketa:

Alebin maila (Mutilak)	
> Josu Ancin Murguzu	San Viator

> Gorka Llodio Bergaretxe	San Viator
---------------------------	------------

> Adrian Aginagalde Garai	Kurtzeb.
---------------------------	----------

> Jon Aranburu Goirizelaia	Almen
----------------------------	-------

60 metroko lasterketa:

Alebin maila (Neskak)	
> Meritxel Avala Olmedo	Mesedeet.>

> Maddi Garro Lejarreta	Almen
-------------------------	-------

> Maria Iñarra Rojas	San Viator
----------------------	------------

> Nagore Barrena Ibabe	Almen
------------------------	-------

> Garazi Berrizbeitia Zugaza	Kurtzeb.
------------------------------	----------

Luzera jauzia:

Alebin maila (Neskak)	
> Malen Ruiz de Azua Lar.	San Viator

> Izar Gorroñoigoitia Uribarren	Almen
---------------------------------	-------

> Leire Altzola Gordoa	Almen
------------------------	-------

> Naiara Zubizarreta Beloki	Almen
-----------------------------	-------

> A errelebuak:	
-----------------	--

> Maddi Garro Lejarreta	Almen
-------------------------	-------

> Izar Gorroñoigoitia Uribarren	Almen
---------------------------------	-------

> Naiara Zubizarreta Beloki	Almen
-----------------------------	-------

> Leire Altzola Gordoa	Almen
------------------------	-------

> B errelebuak:	
-----------------	--

> Malen Ruiz de Azua Lar.	San Viator
---------------------------	------------

> Garazi Berrizbeitia Zugaza	Kurtzeb.
------------------------------	----------

> Nagore Barrena Ibabe	Almen
------------------------	-------

> Maria Iñarra Rojas	San Viator
----------------------	------------

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Zenbaki Aholkulariak

• Kontabilitatea • Lana

• Fiskalitatea • Juridikoa

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 / Faxe: 943 71 22 68
www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Toilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MENETA taberna

- Eguneroko menua
- Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
- Pintxoak
- Errazioak

Domeka gauetan sukaldea itxita

Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

Kanpotarrak Arrasaten

Victoria Duque > Kolonbiarra
Ikasten eta lanean dabil

"Ikasi egin gura nuela esan, eta lagunek AEKra bidali ninduten"

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Gurean badira bidaiatzeko asmoz etorri diren hegoamerikarrak, kultura berriak ezagutzeko asmoz daudenak. Izan ere, konturatu barik, hegoamerikar guztiak egoera berean etortzen direla uste dugu: beharrak bultzatuta, etorkizun hobe baten bila. Victoria Euskal Herria ezagutzera eta ikastera etorri da.

Arrasatera etorri aurretik, Victoria Hego Amerikan ibili da bidaiatzen: "Esperientzia berriak bizi eta ikasi, hori izan da bidaiatzera bultzatu nauten arrazoiak. Ekuadorren izan nintzen globalizazioaren kontrako

bilkurak egin zirenean, eta baita Caracasen ere, Bolivartarren Mugimenduak indarra hartu zuenean. Hala, gazteriaren aldeko mugimendua bertatik bertara ikustera joan nintzen Venezuelara, eta ia urtebete egin nuen han". Eta, Hego Amerikan hara eta hona ibili eta gero erabaki

"Unibertsitatera joaten banaiz lotuago egongo naiz, baina ez nau arduratzen, denboratxo egingo dudalako hemen"



Victoria Duque.

zuen itsasoaz bestalde egitea: "Urtebete daramat Arrasaten. Zorte handia izan dut, hemen lagunak nituelako. Hala, ikasi egin gura nuela esan nuenean berehala eraman ninduten AEKra, euskara ikastera".

Euskara ikastearekin batera, Victoria Duque unibertsitatera joateko aukera emango dion azterketa prestatzen dabil: "Soziologia ikasi gura dut, eta horregatik aukeratu dut giza zientzien adarra. Gustuko ditut historia, filosofia eta halako gaiak, eta eskolara joateko ez dut ahalegin berezirik egin behar, gustura joaten naiz".

LANEAN ETA IKASTEN

Umeak zaintzen eta zerbitzari lanetan dabil Victoria, eta lanarekin zortea izan duela dio. Unibertsitatera joaten bada, bestalde, badaki zelanbaiteko lotura izango duela; ikasketak amaitu arte bai, behintzat: "Horrek ez nau arduratzen. Badakit denboratxo bat egingo dudala hemen".

bere ustez



Antton Mendizabal

Garapen iraunkorra, edo sostengarria

Orain aste batzuk, GOIENKARIA honetan agertu zen argazkia. Arrasateko adituekin osaturiko talde bat, alkatearekin batera; gure herri eta haranaren garapen iraunkorraren aldeko apustua aurkeztu ziguten. Dagoena ezagutzuz, garapen iraunkorraren aldeko jarre-
rak ikaratzen gaitu. Zein da garapen iraunkor horren oinarria? Amildegiaurren aurrean itsuak soilik eman dezake aurrerapausoa. Dena den, bazeuden alde itxaropentsuak adituen diskurtsoan.

"Arrasateko eta Leintzeko bilakaera estrategikoa ez da aditu batzuen eginbeharra"

Bi iruzkin egingo ditut: Aspaldi, nazioarteko erakundeek igorri ziguten gizakiok bultzatu beharko genukeen garapena "garapen sostengarria" dela. Gizartearen beharrak betetzeko beharrezko baliabideak ustiatu bai, baina datorren belaunaldien beharrak asetzeko errekursoak hipotekatu gabe. Jakina hori ez dela Arrasaten orain arte eduki duguna, eta kezagarria da dagoen horri iraunkortasuna eman nahi izatea. Bestela, Arrasateko eta Leintzeko bailarako bilakaera estrategikoa ez da aditu batzuen eginbeharra; ezta botere ekonomikoaren ardura dutenena ere. Arrasate eta Debagoieneko biztanle guztien ardura delako. Zabal dezagun parte-hartze demokratikoa, behintzat.

txutxu-mutxua



FOTO IMAGEN

1956an jaiotako 104 arrasatear elkartu ziren

Joan den zapatuan elkartu zen koadrilatzar hori, guztiak 1956an jaiotakoak. 50 urte beteta, lehenengoz egin dute kintoen bazkaria, eta lehenengoa izateko topaketa ezin arrakastatsuagoa izan da, Arrasaten 300 lagun inguru daude-eta adin horretakoak. Hala, gutxienez heren bat elkartu zen zapatuan Sara jatetxean. Autobusak bi itzuli egin behar izan zituen lagun guztiak Kanpanzar aldera

igotzeko. Han, erretratua atera, bapo bazkaldu eta 20:00ak arte ibili ziren dantzaz (jakin dugunez, gizonetzko gutxi animatu zen dantza egitera).

Aipatzekoa da Foto Imagen-ekoek kintoen artean Kepa Urraren erretratua txertatu dutela. Esan barik doa Uribarrikoa ez zela bazkarian egon, baina egongo izan balitz bezala, Kepa ere urte hartakoa da-eta.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txar-
rrak jasaten dituzten pertso-
nei laguntza
psikologikoa.
- Ikasketa teknika
eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

UGARTE AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

EMAKUMEA > ONGIZATE SAILAREN EKIMENA

Indarkeria kasuak salatzeko nora jo jakiteko txartelak banatuko dituzte

Arreta telefonoak dituzten 5.000 txartel banatuko dituzte herriko hainbat gunetan, edozein herritarrek salatzeko tratu txarrak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Emakumearen aurkako indarkeria salatzen laguntzeko ekimena jarri du martxan Ongizate Sailak. Horrelako egoera bat salatzeko nora deitu behar duten jakiteko txartelak banatuko dituzte. "Aurten bederatzikasu ezagutu ditugu guk, baina gehiago egongo ziren, ikerketen arabera kasuen %20 baino ez direlako salatzen. Txartel horiekin gure asmoa da biktimak ez ezik, edozein herritarrek salatzea indarkeria egoera bat", azaldu du Arantzazu Amasorrainek, Ongizateko zinegotziak.



SALAKETAK Jon Lopezek eta Arantzazu Amasorrainek aurkeztu dute tratu txarrak salatzeko ekimena.

O.E.

5.000 TXARTEL

Tratu txarrak salatzeko, udaltzeko, Jaurlaritzako eta Aldundiko arreta telefonoak jasotzen

dituzten 5.000 txartel banatuko dituzte egun hauetan herriko hainbat gunetan. Nortasun agiriaren tamainakoak dira txarte-

lak. "Asmoa da herritarrek eskura izatea telefono horiek edozein tratu txar salatzeko. Kultura etxean, igerilekuan, farmazietan

DATUA

9

SALAKETA

Indarkeria jasan duten bederatzik emakumeren kasuak izan ditu aurten esku artean Ongizate Sailak, baina gehiago gertatu direla uste dute, kasuen %20 soilik salatzen direlako, ikerketen arabera.

eta ambulatorioan banatuko ditugu, besteak beste, eta teknikari bat arduratuko da txartelak falta ahala berriak jartzeaz", zehaztu du Jon Lopezek, Ongizateko teknikariak. "Helburua da administrazioaren laguntza herritarrei hurbiltzea horrelako egoerak salatzeko orduan. Gero gu arduratuko gara salaketak jarraitu behar duen protokoloaz", jarraitu du Lopezek.

Hilaren 25a da emakumearen aurkako indarkeria gaitzes-teko nazioarteko eguna.

> LAPURRETA

Karabana baten lapurretaren lekukoak behar dituzte

Karabana bat lapurtu dute astean Labegaraietako aparkalekutik, eta lekukoak behar dituzte lapurreta argitzeko.

Domekatik astelehenera bitartean izan zen gertaera. Labegaraietako aparkalekuan zegoen karabana eta handik eraman zuten lapurrek. Bizilagunen batek zerbaite ikusi balu, informazioa ematea eskertuko dute jabeek eta ertzainek, nork eta nola lapurtu zuten argitzeko balioko duelako. Diruz sari-tuko dute informazioa. Zerbaite ikusi zuenak, telefono zenbaki honetara dei dezake dakiena esateko: 943 76 23 31.

> BEDELKAR

Herri merkataritzaren aldeko jai antolatu du Bedelkarrek biharko

Herriko merkataritzaren aldeko jaialdia antolatu du Bedelkar elkarteak biharko, zapatua. San Martin plazan egongo du jaialdia, goizez. Lau ekitaldi antolatu ditu herriko beste elkarte batzuekin batera.

Ekitaldi guztiak herriko plazan izango dira. Egongo da, besteak beste: pintxo eta edarien dastatzea, doan; Eburne Eraña eta Mari Paz Alustiza Bearteko ikasleen margo erakusketak; eskulanean tailerra Txatxilipurdiren laguntzarekin eta musika eskolako trikitia eta metal eta saxofoi tresnen erakustaldia.

Erretiroa hartu du San Martin eskolako Itziar Ugarrizak

San Martin Agirre eskolako Itziar Ugarriza irakasleak erretiroa hartu du, eta hori ospatzeko Zumelaga jatetxean bildu ziren bere lankideak izan direnak. Eskerrak ere eman zizkioten orain arte egindako lanagatik. Itziar Ugarrizak 35 urte baino gehiago egin ditu San Martinen, horietako batzuk San Lorentzoko eskolan.



IRATI AGIRREAZALDEGI

OGIZUN

koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295



ZABALOTEGI Argazkian, Zabalotegiko dorretxearen azpian dauden lokaletarako sarrera.

E.M.

LOKALAK > GAZTEAK LOKAL BARIK GELDITU DIRA

Zabalotegiko lau lokal itxi egin dituzte, legea betetzen duten ikusteko

Ze obra egin behar diren aztertuko du Udalak; behar bezala egokitu arte ez ditu inork erabiliko

Victoriano Gallastegi alkateak esan duen moduan, "aztertuko dugu ze konponketa edo obra egin behar den lokalak behar bezala egokitzeko. Eskaera asko daude, baina behar bezala egokitu arte ez ditu inork erabiliko, itxita egongo dira".

rik eskaini gabe. "Komunak falta dira eta paretak intsonorizatu egin behar dira, bai, baina orain etxean ditugu instrumentuak, ezin dugu entseatu", dio Elexpuruk. "Gainera, dudak ditut behin azterketa egin ostean lokalak konpondu eta berriro guk erabiliko ote ditugun", jarraitu du, "gazteok beti bidali gaituzte eta lokal batetik bestera". Bizilagun batek GOITBri esan dionez, berriz, eurak ez daude gazteek lokalak erabiltzearen aurka, baina bai komunak jartzearen eta ordutegia zehaztearen alde. Bide batez, musika taldeek ez ezik, tailakoek ere zarata ateratzen dutela esan du. Areto handia eta tailakoena daude orain zabalik.

GAZTEAK ETA BIZILAGUNAK, KEXU Itxi dituzten lokal horiek herriko gazteek erabiltzen zituzten. "Momentu honetan sei taldek erabiltzen genituen, horietako batek 23 urtez erabili ditu", dio Hodei Elexpuru gazteak. Elexpuruk onartzen du lokalak ez zudela ondo egokituta, baina kexu da Udalak behartu dituelako lokalak uztera ordainean beste leku-

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Zabalotegiko dorrearen azpian dauden lau lokal itxi ditu Udalak, legeak jasotzen duen egoeran dauden edo ez ikusteko. Lokalak erabiltzen zituzten gazteak bitartean, entseatzeko lokalik gabe gelditu dira, "Udalak ez duelako lokalik libre eskaintzeko, okupatuta dituelako", alkateak azaldu bezala.

GABONAK > 7.600 EUROKO KOSTUA

Hilabete barru piztuko dituzte Gabonetako argiak

Abenduaren 13an piztuko dituzte eta 2007ko urtarrilaren 7an itzaliko.

entxufea jarriko dute hura argiztatzeko. Bolun ere Gabonetako irudi bat jarriko dute aurten. Mizpirualde egoitzan jarriko dituzten argiak egoitzak berak ordainduko ditu.

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Abenduaren 13an piztuko ditu Udalak Gabonetako argiak. Eta Agorrosin ere argiztatuko dute aurten.

7.000 URO PASA

Maykolux enpresari adjudikatu dio Udalak argiak jartzeko lana. 6.735,30 euro da lan horren aurrekontua. Aurreko urteetako fakturak ikusita, beste 850 euro kalkulatu ditu Udalak argindar kontsumoa ordaintzeko. Guztira, beraz, 7.615,30 euro inguru gastatuko ditu Udalak.

ARGIAK ETA IRUDIAK

Udaletxeko balkoian eta seminarioko eta merkatuko fatxadetan *Zorionak* jarriko dute bestelako argiez gain; Barrenkalea eta Bidekurutzeta kaleak plazan sartzen diren puntuetan bi arku zabal jarriko dituzte eta Agorrosingo fatxadan ere argiak jarriko dituzte. Horrez gain, San Antonioko biribilgunean jaiotza jarriko dute eta

Azaroaren 30ean hasiko dira argiak instalatzeko lanak egiten eta urtarrilaren 15erako denak jasota egon beharko du berriro. Argiak abenduaren 13tik urtarrilaren 7a arte egongo dira piztuta, biak barne, 18:00etatik 00:00etara eta 07:00etatik 08:00etara.

> ELKARTASUNA

Arianek tratamendua hasteko behar dituen 10.000 euroak lortuko dituztela uste du sendiak

Ariane Lowe Tabuenca neskatilak buruan duen gaitza tratatzeko 10.000 euro inguru behar ditu eta Bergarako senideek eta lagunak diru biltzeari ekin zioten duela egun batzuk. Eneko Tabuenca Arianeren osaba pozik dago orain arteko bilketaz: "Lortuko dugula uste dut, bergararrak oso ondo portatu dira. Eskerrak eman nahi dizkiet guztiei". Dagoeneko Alemanian dago Ariane gurasoekin eta datorren astean hasiko da tratamenduarekin. 25 eguneko saioa da. "Gero jakingo dugun gehiago behar duen edo ez", dio Eneko Tabuencak. Bihar, zapatua, gaztetxean eta Go Jam aretoan egingo diren kontzertuetako dirua ere Arianerendako izango da.

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ESKAIOLAZKO DEKORAZIOA

J. GIL

Artekale 20 - 3
Tel.: 615 74 40 95
20570 BERGARA

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ARTEA > IKERKETA LANA

Herriko artelan erlijiosoaren ikerketa kaleratuko du Udalak

Mari Jose Aranburu arte historialari doktorearen 'Arte y Piedad. El arte religioso en Bergara en la Edad Moderna' lana 2007an argitaratuko dute

EDU MENDIBIL > BERGARA

Arte y Piedad. El arte religioso en Bergara en la Edad Moderna liburua argitaratuko du Udalak hurrengo urtean. Aipatutako lana Mari Jose Aranburu arte historialari doktoreak eginikoa da. Izan ere, Aranburuk 2003an EHUko Arte Ederretako Fakultatean aurkeztutako tesia da. Lanak *bikain cum laude* nota jaso zuen epaimahaiaren partetik. Aranburu EHUko irakaslea da

gaur egun, Donostiako Irakasle Eskolan. Aurretik Bergarari buruzko beste liburu bat idatzia du, monografiaren zazpigarren alea, hain zuzen: *Artea Bergaran. Erdi eta Moderno Aroak*.

Udalak kontratua sinatu du dagoeneko egilearekin lana argitaratu ahal izateko. Lanaren gaineko eskubideengatik 9.000 euro ordainduko ditu Udalak. Liburuaren 700 ale kaleratuko dituzte, bi tomotan. Gil Massak 2002an argi-



AZTERKETA Herriko arte erlijiosoa sakon aztertu du Aranburuk.

KAIBIDE/MASSA

taratutako *Urbanismo y arquitectura civil en Bergara* lanaren osagarri izango da. Errenazimendu eta barroko garaiko artelan erli-

jiosoen azterketa sakona egiteaz gain, lanok egiteko motibazioa edota lan horien atzean nortzuk ziren ikertu du Aranburuk.

Metal kontzertuak, Jam aretoan eta gaztetxean

Metal kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 22:30ean hasita. Bilboko Conflict Noise (irudian) eta Lezoko Nova taldeek joko dute. Jam aretoan, berriz, UFO talde beteranoak emanaldia egingo du. Kreisor izango da talde gonbidatua. Ateak 21:00etan irekiko dituzte eta sarrerak (aurrez) 25 eurotan izango dira salgai. Bestalde, abenduaren 3rako Anariren emanaldia iragarri du Txapa Irratiak, gaztetxean. Txapak (FM 97.25) denboraldi berriko programazioari ekin dio dagoeneko. Programazioaren gaineko xehetasunak www.txapairratia.org webgunean daude. Irratsaioren bat egiteko interesa dutenek zapatuetan, 12:30ean, egiten dituzten bileretan parte hartzeko aukera dute.



GOIENKARIA

> PINTURA

Idoia Azkarateren eta Juanjo Altunaren erakusketak

Idoia Azkarate bergararrak erakusketa inauguratu zuen zapatuan, Donostiako Kursaal kafetegian (Ramon Maria Lili kaleko 2. zenbakian). Formatu txikiko 30 lan jarri ditu ikusgai, azaroaren 30era arte.

Juanjo Altunak, berriz, *Espacios en construcción* erakusketa ikusgai dauka Miñanon, Arabako Parke Teknologikoan. Paper gainean egingako lan akrilikoak dira, 47 guztira. Erakusketa abenduaren 31ra arte dago zabalik, astelehenetik larunbatera, 09:00etatik 20:00etara.

> ERAKUSKETA

Miguel Okinaren margoak Aroztegi aretoan

Miguel Okina. Bizitza bat, margoari eskainia erakusketa azaroaren 26ra arte izango da zabalik Aroztegi aretoan. 1949tik 2006ra bitartean margotutako 35 koadro jarri ditu ikusgai Miguel Okinak: erretratuak, paisaiak eta natura hilak. Aroztegi aretoa ondoko ordutegian dago zabalik: martitzenetik ostiralera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan goizez, 12:00etatik 14:00etara.

> MUSIKA

Orfeoi Txikian parte hartzeko aukera gaztetxoendako

Begarako Orfeoiak, herriko eskolekin eta Udalarekin elkarlanean, Orfeoi Txikia jarriko du abian. Abesbatza hori Bergarako eskoletako Lehen Hezkuntzako haur guztiei zuzenduta dago, eta datozen asteetan hasiko da lanean. Orfeoi Txikiaren helburu nagusiak euskal abestiak suspertzea, ahotsaren osasuna lantzea eta herriko tradizioa mantentzea izango dira. Izena emateko orriak eskoletan banatuko dituzte.

Parket flotatzailea

AZKARATE AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

Arotz lanetan behar duzun guztia
Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak
Parketak • Sukaldeak

www.goiena.net/blogak/azkarate

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Mujika gozotegia

Bizkotxoak Erreilenoak Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

GAK

Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

- Era guztietako garbiketak
- Zuen komunitateko administrazioa
- Konponketa orokorrak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

AISIALDIA > JARDUNEKO GAZTETXOEN TALDEAK

Aste bukaeretako aisialdi ekintzak euskaraz egiteko bi talde daude Jardunen

Txiskrilabi eta Txapligu taldeetan 80 gaztetxotik gora elkartzen dira aste bukaeretako aisialdi ekintzak euskaraz egiteko

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Gazteek aisialdia euskaraz bizi izateko, ondo pasatzeko eta herriko haur eta gazteen arteko harremanetan ohitura moduan euskara erabiltzeko asmoz, Jardun elkarteak aste bukaeretako ekintzak antolatu ditu.

Aisialdi ekintza horiek egiteko, haur eta gazteak bi taldetan daude banatuta: Txapligu eta Txiskrilabi.

Txapligu taldean oraingoz 75 neska-mutilek eman dute izena eta begiraleak bost dira. 9 eta 11 urte bitarteko gaztetxoak elkartzen dira zapatu eta domeka arratsaldeetan, 16:00etatik 20:00etara, Arrizuriagako jauregian. Urte osorako 35 euroko kuota ordaintzen dute.

Gaztetxoek askotariko ekintzak egiten dituzte: eskulanak, dantza, musika, irratia, jolasak, bideo emanaldiak, irteerak... Azarorako egitarauan, jolasak, antzerkia, txokolate-jana eta eskulanak daude iragarrita. Azaroraren 18an eta 19an, berriz, Arratera irteera egingo dute.

TXISKRILABI NAGUSIAGOENAKO

12 eta 14 urte bitarteko gazteak zapatu arratsaldeetan 16:00etatik 18:00etara elkartzen dira eta 14 eta 16 urte artekoak, berriz, 18:00etatik 19:00etara.

Mendira zein patinatzerira irteerak, tailerrak (grafitiak, masa-jeak, fimoa, larrua, tatuajeak...) eta kirol ekintzak (surfa, kanoa, zaldian ibili...) egiten dituzte.



ASTE BUKAERA PASA Txiskrilabiko neska-mutillak Gorlizen izan ziren azaroko lehenengo aste bukaeran.

GOIENKARIA

Azaroko lehen aste bukaeran Gorlizko aterpetxera egin zuten irteera neska-mutilek, eta han, kanoan ibiltzeko aukera izan zuten.

Horren harira, Txiskrilabi taldeko bazkide izateko urteko kuota 20 euro da. Aurten, oraingoz, zazpi gaztek baino ez dihardute hiru begiralerekin.

Hala, Jardunetik gazteak animatu nahi dituzte Txapligu eta Txiskrilabiko partaide egitera. Horretarako, Jardun elkartera jo behar dute, Errotalde jauregira.

*Bergarako Udalak eta Bergarako Orfeoia
Seuss-en munduaren ikuskizuna ikustera
animatzen zaituzte.*



NOIZ: azaroaren 11n,
19:00etan eta 22:30ean

NON: Bergarako Udal
Pilotalekuan



Bergarako Orfeoia



BERGARAKO UDALA
Kultura Saila

ESKUBALOIA > LEHENENGO TERRITORIALA

Donibane etorriko da domekan, lider dagoen Bergara estutasunetan jartzeko helburuarekin

Bergarak oraindik ez du partidurik galdu eta Josetxo Muniategiren mutilak lider dira Ormaiztegiarekin eta Usurbilekin batera

XABIER URTZELAI > BERGARA

Baina txapelketa luzea geratzen da oraindik, eta orain arte egindako lanak bide beretik jarraitu behar du igoera faserako sailkatu ahal izateko, hori da eta orain arte taldeak erakutsitako maila ikusita Bergarak duen helburua. Horretarako, domekan Labegaraletan (12:15) bisitari etorriko den Donibane ezin da kontrario izan.

Inor gutxietsi barik, etxetik kanpora erraz irabazten dabilen Bergarari (joan den astean, besteak beste, Bergarak 18-35 menderatu zuen Urola) zortzigarren lekuan dagoen Donibanek ezin dio aparteko zailtasunik eman. Hori izango da, baina, seguruenik Bergarako entrenatzaileak gura ez duena; taldeak behar baino konfiantza gehiago hartzea, alegia. Gainera, Muniategik badi-



LABEGARAIETAN SENDO Ondo jokatu ez dutenean ere irabazi egin dute.

x.u.

tu ez lasaitzeko arrazoiak: "Azkar jokatzeko ez badugu, akabo. Fisikoki indartsuagoa den edozein talderen aurrean sufritu egin genezake, Legazpiren kontra gertatu zen moduan".

IKASTAROA ABIAN

Bestalde, oraingo zapatuan hasiko dituzte Bergaran entrenatzailerak eta epaile izan gura dutenendako prestakuntza ikastaroak.

Gabonak bitartean egingo dute ikastaro hori, eta teknika, taktika, psikologia eta eskubaloiko araudiaren gaineko saioak izango dira. Zapatuetan izango dira eskolak, 10:00etatik 13:00ak arte. Hain zuzen, ikastaro horretan interesa duenak Gipuzkoako Eskubaloia Federaziora dei dezake (943 45 25 34), edo, bestela, ibarreko edozein eskubaloia talderekin harremanetan jarri.

> FUTBOLA

Hiru puntuen bila joango da Bergara Mintxetara

Neka Galanen mutilak goialdeko postuetara jauzi egiteko beharrezko dituzten puntuen bila joango dira aste bukaeran Elgoibarrera. Joan den astean Ilintxaren kontra 1-1 eginda, Bergara sailkapenaren erdialdean geratu da (12 puntu). Eta, bosgarren lekuan dagoen taldea izango dute kontrario (13 puntu).

Datuei begiratua eginez gero, deigarria da Bergara dela gol gutxien jaso dituen taldeetako bat (zazpi gol). Neurri berean, ate aurrean trebetasun handiagoa erakutsi beharko dute, sei gol baino ez dituzte eta egin.

> FUTBOLA

Soraluze mendean hartzea, hori aurrerapausoa

Bigarren erregionalean, BTLS taldeak sailkapenaren erdian jarraitzen du. Bergarrek 14 puntu dituzte, eta oraingo asteburuko kontrarioak ere puntu kopuru bera du, 14 puntu. Hala, hiru puntu erdiesten dituenak aurrerapauso galanta egingo du. Liderrak, Elgetak, lau puntuko aldea du.

> SASKIBALOIA

Candy BKE, lider dagoen Cafes Aitonaren kantxara

Cafes Aitonakoak lider dira, baina atzetik datozen taldeek baino norgehiagoka bat gehiago jokatu, Hala, puntu bateko aldea baino ez dago Bergarako taldearen eta liderraren artean. Joan den astean Irunen kontrako porrota ahazteko asmoz egingo dute mahoneroek bidaia.

labegaraletan

EMAITZAK

Teatekh-Errotagain	2-6
Altospornos-Niu Tim	5-6
Belengua-Tiki Taka	7-2
Irish Pub-Tornilleria Deba	16-5
Komando Piperrak-Azkenak	8-4

PARTIDUAK

Azaroak 11, zapatua, barruan	Epaileak
16:30 Teatekh-Azkenak	Niu Tim
17:30 Belengua-Niu Tim	Tiki Taka
18:30 Irish Pub-Tiki Taka	Komando Pip
19:30 Komando Pip-Tornilleria Deba	Irish
Atzeratuta: Altospornos-Irubide	
Atsedena: Errotagain	

SAILKAPENA

	P	J
1. Errotagain	12	4
2. Altospornos	9	4
3. Irish Pub	9	4
4. Niu Tim	9	3
5. Belengua	9	4
6. Teatekh	6	4
7. Irubide	3	3
8. Komando piperrak	3	4
9. Tiki Taka	0	3
10. Tornilleria Deba	0	3
11. Azkenak	0	4

Ez da komeni berotan esaten diren mehatxuak betetzea

Askotan, jokalariek lehia sartuta daudenean, behar ez direnak esaten dira, eta ez da komeni esaten direnak betetzea. Kontua da joan den astean Tornilleria Debako jokalaria bat ez zegoela batere pozik Tiki Takala epailea egiten zebilen lanarekin. Hori dela eta, hurrengo Tiki Takak jokatzeko zuenean berak epaituko zuela esan zion, eta euren kontra egingo zuela mehatxatu. Esandako moduan, berotasun kontuak. Hala ere, antolatzaileek argi utzi gura dute epaile lanak gaizki egiten dituzten taldeak zigortu egingo dituztela (nahiz eta lana nahita edo nahi gabe txarto egin). Eta txarto epaitu gura duenak, gutxienez, ez dezala ozen esan.

Euskaraz Gehixago eta Hobeto egiten saiatzen gara



EBPN

GEHIXAGO ETA HOBETO PROGRAMA.

Berba egiterakoan euskara egokia erabiltzera bultzatzeko programa da Gehixago eta Hobeto. Programan ume eta gazteekin loturaren bat duten sektore guztiak (eskolak, denbora libreko taldeak, familia...) hartzen dira kontuan eta hainbat material gertatzen dira: eskoletan lantzeko unitate didaktikoak, gurasoentzako azalpenak eta ariketak, Apatxi aldizkaritxoak...

EBPN
euskara biziberritzeko plan nagusia. Bergara

 Informazio gehiago:
www.bergara.net
Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66


Herran

BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53


 12 urteko garantia
vegasa

Agorrosin

Egubakoitza / 2006ko azaroaren 10a / **Arduraduna:** Eneko Azkarate / **Maketazioa:** Oxel Arrieta



ARGAZKIA : XABIER URTZELAI

EKINTZAGUNEA AURRERA



Begarako Udala



Begarako Udala

**Kirola
sustatuz!**



- EGUNEKO MENUA 12:30etatik aurrera
- GOSARIAK
- ENPRESA BAZKARIAK
- PLATER KONBINATUAK
- KINTADAK
- OGITARTEKOAK ETA PINTXOAK
- RAZIOAK
- ENKARGUZ MENU BEREZIAK
- 100 LAGUNENDAKO JANTOKIA

GOIZEKO 7etatik AURRERA ZABALIK
Lantaldetik onena zuen zerbitzura!

BONI LASKURAIN, 21 • 20570 BERGARA
943 77 70 30



Bulego monotonoak, estatikoak eta aspergarriak bukatu dira.

MIABSA, lanpostu eta lantokien pertsonalizazioa modularitate eta aldakortasun kontzeptuekin konbinatzen dugu, laneko esparruaren distribuzio arrazionalena, malguena eta hobereana sortzeko. Lan giro gizatiarrenak eskaintzen saiatzen gara, xehetasun minimoena ahaztu barik eta eskakizun ergonomikoak eta funtzionalak bermatuta.

ALTZARIAK / MANPARAK / ESTALDURAK / TRENKADA MUGIKORRAK / ZORU TEKNIKOAK / SABAI IZUNAK






MIABSA
BARNE ARKITEKTURA

Iparragirre hiribidea 100
48940 LEIOA (Bizkaia)
Tel.: 944 63 02 87
944 63 07 11
Faxa: 944 63 09 08

Igara industrialdea
Portuetxe 45
20018 Donostia
(Gipuzkoa)
Tel.: 943 31 74 47
Faxa: 943 31 74 43

BULEGO PROIEKTUAK



■ 2007KO TARIFAK

Banakakoak, eta diru sarreraren arabera tarifikak

OIHANA ELORTZA

Hilero ordaindu beharko da datorren urteko Agorrosingo kuota eta nahi duenak baxa eman dezake nahi duen hilabetean. Txartelak balio du ibarreko beste kiroldegietara ere sartzeko, Arrasateko Plus zerbitzua barne. Eguneko txartela eta udako abonua ere atera ahal izango dira.

Bergaran erroldatuta dagoen lagun batek Agorrosingo edo ibarreko beste kiroldegi bateko instalazioak erabili nahi baditu, bi aukera ditu: Bergarako kirol zerbitzuan ateratzen badu txartela, automatikoki txartel mankomunitatuta izango du, hau da, Agorrosin eta Labegarietako instalazioak ez ezik, Debagoieneko beste kiroldegiak ere erabili ahal izango ditu, Arrasateko Plus zerbitzua barne. Bestetik, Bergara ez den herri bateko kiroldegira joateko

asmoa badu, herri hartako kirol zerbitzuan aterako du txartela. Kasu horretan, herri horretako kiroldegia erabili ahal izango du bakarrik, eta hango tarifa ordaindu beharko du. Antzuola edo Elgetako biztanleek Bergaran ateratzen zuten lehen txartela, baina orain euren nahi duten herrian aterako dute; baita Aramaiokoek ere.

TARIFAK ONARTZEKO IRIZPIDEAK

Bi irizpide nagusi erabili dituzte tarifikak zehazteko: erabiltzaileak banaka hartu dituzte, ez taldeka, eta bestetik, erabiltzailea bizi den familia unitatearen diru sarrerak izan dituzte kontuan. Horrela, 18 urtetik gorako denek 18 euro (beste herrietan, 14,39 euro da hilean Debagoieneko Plus aukera) ordainduko dituzte hilean, baina etxera sartzen den diru sarrera txikia dela frogatzen badute, tarifa soziala aplikatuko zaie. Irizpide horiek

Hilero ordaindu beharreko tarifikak

	TARIFA NORMALA	TARIFA SOZIALA
Heldua (18tik gora)	18€	7,2€
Umea (0-12). Gurasoak bazkide	0€	0€
Umea (0-12). Guraso bat bazkide	4,5€	1,8€
Umea (0-12). Gurasoak ez bazkide	9€	3,6€
Gaztea (12-18). Gurasoak bazkide	4€	1,8€
Gaztea (12-18). Guraso bat bazkide	7,2€	2,8€
Gaztea (12-18). Gurasoak ez bazkide	10,8€	4,3€
Udako abonua. Umea	29€	-
Udako abonua. Gaztea	36€	-
Udako abonua. Heldua	59€	-
Eguneko sarrera (0-18)	2,65€	-
Eguneko sarrera (18tik gora)	3,70€	-
Ur ikastaroak	6-9 bazkideek	20-81 ez bazkideek
Lehorreko ikastaroak	6 bazkideek	11,5-26 ez bazkideek

jarraituta, datorren urtetik aurrera ez dituzte aplikatuko kontzeptu hauek: erretiratuaren, familiaren eta ikaslearen tasa.

HILERO ORDAINDU BEHAR DA

Datorren urteko Agorrosingo tasa hilero ordaindu beharko da. Norbaitek ikusten badu hilabete jakin baten ez dituela ibarreko kirol instalazioak erabiliko, hilabetea hasi baino hiruzpalau egun aurretik abisua eman eta ez diote hilabete horretako tarifa kobratuko.

Kirol txartela Bergaran ateratzen dutenek Debagoieneko gainerako kiroldegiak eta Labegarieta eta Agorrosingo instalazio guztiak (ekainetik aurrera, bainuetxea ere bai) erabiltzeaz gain, abantailak izango dituzte ikastaroetako prezioetan eta herriko pilotalekuak edo kantxak alokatzerakoan. Kanpokoek soilik igerilekuak erabiliko dituzte.

Antzuola, Elgeta eta Aramaiokoek nahi duten herrian atera dezakete kirol txartela

Ikastaroetan eta frontoi eta kantxen alokairuan abantaila izango dute bazkideek

UNAI ASURMENDI, KIROL TEKNIKARIA

"Bazkideak zaintzea da gure helburua"

O.E.

Prezioak igo arren, erabiltzaile kopurua ez dela jaitsiko uste du Unai Asurmendik, beste herri batzuetan ere horixe gertatu delako, Tolosan, adibidez. Onartu du ez zituztela horrenbeste erabiltzaile espero Agorrosin, eta hornitzaileak egunero ibiltzen dira komuneko papera, kloroa edo freskagarriak ekartzen. Oraindik egoerari neurria hartzen ari dira.

Ia bi hilabete dira Agorrosin zabaldu zutela. Zer balorazio egiten duzu?

Oso ona. Gure aurreikuspen guztiak gainditu egin dira. Ez genuen uste inondik ere horren-

beste jende joango zenik Agorrosin ekintza gunera.

Zenbat jende da hori?

Bi astean 2.000 bazkide berri egin ditugu. Batez beste, 1.200 lagun joaten dira egunero Agorrosinera. Ikastaroetako leku guztiak ere beteta daude: 1.200. Urtarrilerako ikastaro gehiago antolatuko ditugu.

Kexak ere badira: igerilekua zikina, aldagela txikiak, dutexek presio gutxi eta uraren tenperatura erregulatzea zaila, gimnasioan bero...

Garbitzaileek hiru txandatan egiten dute lana; goizeko bostetatik bederatziarte, eguerdian eta arratsaldean. Igerilekuak ez du baldosarik eta dena ikusten da, baita zikina ere. Area, aldiz,

ura garbitzeko dugun depurazio sistema mekanikoak erabiltzen du ura garbitzeko. Aldagelak txiki gelditu dira, bai, baina horrenbeste erabiltzaile espero ez genituelako da hori. 07:00etan, 20 erabiltzaile daude. Berez, eskatutako baino aldagela gehiago ditugu. Dutexei buruz, berriz, astean dira ingeniariak etortzekoak.

Ekainean zabalduko dute bainuetxea baina urtarriletik

"Bataz beste, 1.200 erabiltzaile ditu egunero Agorrosin ekintza gunek"



Unai Asurmendi udaletxeko kirol bulegoan.

O.E.

hasiko gara zerbitzu hori ordaintzen.

Hilero ordaindu behar izateak ematen du aukera ekainetik aurrera ateratzeko kirol txartela, nahi izanez gero.

Zergatik txartel mankomunitatea bakarrik 2008a arte?

Kalkulatu dugulako orduan bukatuko duela Bergarak beste

kiroldegiekin duen zorra. Gero ikusi behar jarraitzen dugun txartel horrekin edo ez.

Zein da zuen helburua datorren urtarriletik aurrera?

Bazkideak leialtzea da helburua, bazkideak zaintzea eta ahalik eta zerbitzu onena eskaintzea. Bestetik, 2007 urtean zehar hasiko gara autofinantziazten.

■ AGORROSIN, URRATSEZ URRATS

Modernoia, berria eta iraunkorra

UBANE MADERA

Irailean estreinatutako instalazioez gainera, Agorrosin ekintzaguneari berriak gehituko dizkiote ekainetik aurrera: spa edo bainuetxea eta kanpoko berdegunea. Horrez gain, hirugarren faserako instalazio gehiago aurreikusitako dituzte.

"Bi berdegune izango dira: behekoa eta goikoa. Goikoa da orain arte egon den bera; hori bai, hango galdara gela bihurtuko dugu komun eta dutxa", argitu digu

Unai Asurmendik, Kirol teknikariak. Gaineratu digu orain kanpoan dagoen igerilekua bota eta goiko aldean berdegunea ipiniko dutela, behekoa: "Oraingo igerilekua ezin da mantendu lur-eremu guztia ezegonkorra delako". Urtarrilean hasiko dira lan guztiak egiten.

Eta hirugarren faserako, berriz, aurreikusita dute egokitzea eraikin zentralaren inguruan, besteak beste: fitness aretoa, belar artifizialeko futbol zelaia, pistak eta kanpoko igerilekua: "Baina ez dago ezer zehaztuta".

MATERIAL MODERNOAK

Kontuak kontu, Agorrosingo eraikin nagusia bukatuta dago eta epe luzerako izango dela diote lanean ibili direnek. Hemen Klimatik esan digute, esaterako, eguzki-xaflez gainera, energia berreskuratze bonba sistema ipini dutela eta eraikinak kontrol sistema adimendua duela: energia berriztagarrien berotasuna erabiltzen du lehenengo eta hura agortzean hasten da gasa erabiltzen.

San Miguel Dekoraziokoek plaka bereziak ipini dituzte sabai eta paneletan, zarata txikitzeko.



Oñatiko Ulma enpresak eraiki du hormigoizko eraikina.

OIHANA ELORTZA

Atebi Aparejadoreak enpresatik, berriz, Xabier Gallastegi aparejadoreak egin du exekuzio materiala. Eta Miab enpresak, berriz, bulego mahaia ipini ditu.

Oro har, material modernoak erabili dituzte eraikina egiteko, epe luzerako erabilgarriak izateko aurreikusita. Antzibar enpresa arduratu da eraikitze lanez.



BAINUETXEA ETA BERDEGUNA

Erainetik aurrera bainuetxea eta kanpoko berdegunea izango ditu. Oraingo berdeguneaz gain, egokituko dute beste bat orain arte kanpoan egon den igerilekuaren gaineko aldean.



OSASUNA ZAINTEKO LAMINAK

Zenbaitetan material berezia ipini dute; adibidez, igerilekuan. PVC-zko laminak ipini dituzte; kutsadura zailtzen dute eta garbitzeko eta desinfektatzeko errazagoak dira, besteak beste. Azken aurrerapenekin egindako eraikina da.



IRUDI KORPORATIBOA, AZK-REN ESKU

Bizitasuna, energia eta emozioa adierazten du gorriak; berdeak: osasuna, bizitza eta aire zabala; eta urdinak: ura, kultura eta oreka. Kirola, kultura eta aisialdia uztartu dituzte AZK Aretxabaletako agentziak.



II emen II klima s.a.l.

ZUAZNABAR 133 - 20180 OIARTZUN (GIPUZKOA)

Tel: 943 49 26 95

Faxa: 943 26 11 09

E-posta: grupo@taldeclima.com

INSTALAKUNTZAK ETA PROIEKTUAK:

KLIMATIZAZIOA

- Hotelak
- Bulegoak
- Kiroldegiak
- Ospitaleak
- Igerilekuak
- Pabilioi industrialak
- Laborategiak

PROZESU INDUSTRIALAK

- Prozesuentzako hozte - sistema
- Prozesuentzako berotze-sistema
- Prozesuentzako tenperatura eta hezetasunaren kontrola
- Biltegi robotizatuen klimatizazioa
- Plastikozko estrusio makinaren zirkuituen hozketa



■ AGORROSIKO ESKAINTZA

Aisialdia, kultura eta kirola, hiru arlo eta gune bakar bat

LEIRE KORTABARRIA

Hiru baten: kontzeptu horri jarraitzen dio Agorrosinek, eta horregatik da kiroldegia, kultura emanaldietarako aretoa edo aisialdi gunea baino gehiago, horiek guztiak hartzen dituelako. Eta horiei lekua emateko, hiru eremu nagusi ditu Agorrosinek: alde lehorra, alde bustia eta goiko solairua. Hor banatzen dira ekipamendu guztiak.

Eskaintza aberatsa dago Agorrosinen, hiru kontzeptu bateratzen dituelako: kultura, aisialdia eta kirola. Horrenbestez, hiru behar horiek asetzeko instalazioak ditu. Hala ere, hiru kontzeptuak eta eremuak ez daude bata bestetik isolatuta, eta espazioak konpartitu egiten dituzte kasu batzuetan.

Hala, kirolari dagokionez, errendimendua, batetik, eta osasuna eta aisialdia, bestetik, batzen dira, eta txapelketetarako prestatu nahi duten kirolariek hantxe dute euren lekua, baina baita jaioberriek, ikasi nahi dutenek, urrituek... ere. Igerilekuak eta bainuetxea dituzte horretarako Agorrosingo eremu bustian.

Eremu lehorrean, gimnasioa eta erabilera askotarako aretoak

daude; baita fitness eremua ere. Belar artifizialeko futbol zelaia eta aurrerago egingo dituzte. Datorren urtean osatuko da eskaintza bainuetxe batekin eta kanpoko eremu berdearekin.

KULTURA EKIPAMENDUA

Aisialdi eta kultura zerbitzu osatua ematen da. Alde batetik, Xipizaro ludoteka han dago orain, astelehenetik egubakoitzera zabalik. 12-15 urteko gaztetxoendako ikastaroak ere Agorrosinen emango dituzte: perkusio eta dantza ikastaroa eman zen urrian, eta larrugintza eta capoeira tailerak daude aurreikusita.

Bestalde, 263,57 m²-ko taberna dago, 445,94 m²-ko terrazarekin; formatu txiki eta ertaineko kultura emanaldietarako ere erabiliko dituzte bai taberna, bai -eguraldia lagun- terraza.

Ikus-entzunezko gelak izan du erabilerarik: han egin dira Bergarako film laburren lehiaketako emanaldiak, eta han emango da ere bihar, zapatua, hasiko den eskubalo entrenatzaileendako ikastaroa. Aste barruan, yogarako erabiltzen dute gela hori.

Eta gastronomia ere kultura denez, jatetxea ere badu Agorrosinek, egunero zabalik eta eguneko menuarekin.



IGERILEKUAK

Agorrosin osoko izarra dira igerilekuak, horiek dira eta erabilienak. Ume eta guraso asko joaten dira, eta igerileku txikia da gehien erabiltzen dena, baina handia, 10 kale izanda ere, beteta egon izan da.



UME ETA GAZTETXOENDAKO LEKUA

Xipizaro ludoteka zabalik dago egunero astelehene-tik egubakoitzera Agorrosinen. Horrez gain, udalak antolatutako gazte ikastaroak han egingo dituzte: orain hurrengo, larrugintza eta capoeira.



FITNESS ARETOA, ARAKASTATSU

Arrakasta handia izan du fitness aretoak, eta udalak erabaki du, denborarekin, horretarako areto handiago bat izango duela Agorrosinek. Oraingoan, oso gela erabilia izaten jarraitzen du. 180 m²-koa da.



TABERNA ETA EMANALDI ARETOA

Goiko solairuan daude taberna, 263 m²-tik gorakoa, eta jatetxea, eta orain arte han kultura emanaldirik egin ez bada ere, erabilera hori ematea da helburua. Alboko terrazak 400 m²-tik gora hartzen du.

www.ulmapolimero.com
informa@polimero.ulma.es
Tel.: 943 78 06 00

ULMA Hormigón Polímero

Hormigón Polímero

Agorrosin kirolgune berriko leiho-isurkinak eta horma-txapelak ULMAk jarritakoak dira

FATXADA AIREZTATUAK

ERAIKUNTZA

KANALIZAZIOA

■ AGORROSINGO LANGILEAK

Agorrosingo zerbitzuak, erabiltzaileen esanetara



HARRERA BULEGOAN

Argazkian, ezkerretik eskumara, Agorrosin ekintzaguneko harrera bulegoan ari diren administrari laguntzaileak: Einer Ostolaza, Eneritz Ibarburen eta Olatz Zaldúa. Amaia Zabaleta Agorrosingo gerentea dugu.



SOROSLE LANETAN

Mikel Mendizabal, Iñigo Larrañaga eta Itxaso Martin ari dira igeriketa eskolak ematen eta sorosle lanak egiten. Ikastetxeetako neska-mutikoekin batera, adin guztietako jendea dabil aipatutako igeriketa ikastaroetan.



MANTENTZE-LANAK

Iker Ibarburen da Agorrosin ekintzaguneko mantentze-lanen arduraduna. Agorrosin lanean hasi aurretik, udaltzain lanetan ibili zen. Mikel Zubizarretak, berriz, zortzi urte daroma igerilekuetan lanean.



KIROL MONITOREAK

Goian, Nerea Egaña, Judith Larrañaga, Leire Larrea eta Ana Gabajo; makurtuta, berriz, Edurne Muxika eta Lourdes Igartua. 15 bat monitorea daude, aerobik, spinning, yoga, pilates edota mantenu gimnasiako eskolak ematen.



GARBITZAILEAK

Goizean goiz hasten dira Agorrosin ekintzaguneko garbitzaileak lanean, 05:00etan. Arantxa Unamuno, Sorkunde Zubizarreta, Dolores Obeso (argazkian, ezkerretik eskumara), Tere Diez eta Mari Karmen Castillo ari dira lanean.



AGORROSIN TABERNA

Agorrosin taberna San Martin egunean zabaldu zuten. Lagun koadrila handia ari da bertan lanean. Aste barruan 07:00etan zabalzen dute eta aste bukaeretan, 09:00etan. Gosariak, menuak eta afariak ematen dituzte, besteak beste.



Atebi

APAREJADOREAK

OBREN PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZA LANAK

XABIER GALLASTEGI IDIGORAS
Arkitekto Teknikoak

Ibargarai 35, behea-ekerra
20570 BERGARA
Tel.: 943 777 000
atebi@atebi.net



San Miguel

DECORACIONES Y AISLAMIENTOS

Distribuidor Oficial
ISOVER



ASFAITEX

Styrodur



eurocoustic
OWA-SONEBEL

arena

ROCLAINE

Norberaren babeserako
equipamenduak
eta lanerako arropak

Laister Zeramika
erakusketa berria zabalik

Ordutegia:

Astelehenerik-ostiralera
08:00etatik-13:00etara,
14:30etatik-19:00etara

Larunbatak
10:00etatik-13:00etara

Amillaga 5 - 6 pabilioia - BERGARA

Tel.: 943 76 47 90 - Faxe: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70

■ ERABILTZAILEEN IRITZIAK

Zer iruditu zaizu Agorrosin?



XABAT IRAZOLA

"Igeriketa taldean nabil eta igerilekura etortzen naiz estiloa hobetzera astean hiru edo lau aldiz. Ura epelagoa dago hemen".



LOLI MORALES, ROSA SIERRA ETA TOÑI MORALES

"Egunero etortzen gara igerian ikastera, ikastaroan dihardugu. Lehengo instalazioen aldean ondo daude hauek, baina entzun dugu prezioak asko igoko dituztela, eta horrekin ez gaude conforme. Udarako kanpoan zerbait egokitzea nahiko genuke".



AGUSTIN HEIS

"Gimnasioa eta igerilekua erabiltzen ditut. Korrika egin aurretik luzatze-arietak egiten ditut. Bada-go lekua makina gehiagorendako".



AMAIA IRIZAR

"Aerobic egitera eta igerilekura etortzen naiz. Lehengo instalazioak baino hobeto daude, baina aldagelatan urarekin izan da arazorik".



JULIO MOLPECERES, PAQUI GARCIA ETA ARAN PORTU

Pilates ikastarora eta gimnasia etortzen da Paqui; Julio, berriz, igerilekura eta Aran noizean behin tabernara. "Agorrosin ondo dago, baina oraindik txikia da, igerilekua batez ere. Taberna ere azkar betetzen da afalorduetan, jendeak gustuko duen seinale".



XABIER ZABALETA

"Spinning ikastaroan hasi naiz. Instalazioetan bada zer hobeturik: aldagelatak lurrean babesa ipintzea eta pilaketak saihestea".



GIZA TALDEA, ESPERIENTZIA,
TEKNOLOGIA ETA KALITATEA



Landeta auzoa z/g 176 posta-kutxa 20730 Azpeitia
(Gipuzkoa) Tel.: 943 81 24 62 Faxa: 943 81 66 19
administ@antzibar.com www.antzibar.com



Eraikitzailea: Antzibar SA

■ HIRI-BAINUETXEA, EKAINERAKO

Hidromasajea, saunak, txorroak eta beste, Agorrosinen udarako

ENEKO AZKARATE

Datorren urteko ekainerako prest izango dira Agorrosinen hiri-bainuetxea eta kanpoaldeko belardia. Debagoieneko lehenengo bainuetxea izango da. Izango ditu ur beroko ontziak, ur txorroak, ur ohe eta ur jauziak, dutxa bereziak, sauna...

Agorrosin ekintzaguneko bigarren fasean egingo dira hiri-bainuetxea eta kanpoko belardia. Lanak urtarrilean hasiko dituzte eta 900.000 euroko aurrekontua izango du bainuetxeak eta beste 600.000 berdeguneak. Bainuetxea 18 urtetik gorakoendako izango da. Azkenaldian boladan dagoen zerbitzu bat, osasun zirkuitua, eskaini nahi du Bergarako Udalak.

Kiroldegiari, osasun perspektiba txertatu nahi zaio. Espero da batik bat jende helduak, bizkarreko edo lepoko arazoren bat duenak, erlaxatzeko ur txorroak eta hartzea gustuko duenak e.a. erabiltzea. Baina, oro har, edozein pertsona heldurendako eskaini nahi da zerbitzua, gero eta jende gehiagok eskatzen baitu zerbitzu hori.


400 METRO KOADROKO GUNEA

Hiri-bainuetxea Agorrosin gunearen sarreraren ezkerrean egongo da, 400 metro koadroko gune batean. Horietatik, 80 metro koadro hartuko dituzte aldagelek-bi aldagela izango dira- eta gaintzekoak bainuetxeako ekipamenduek. 45 lagunendako tokia egongo da.

Zerbitzu hauek eskainiko ditu: ontzi hotza (ura, 14 gradutan), 0,90 metroko sakonera izango duena; ontzi handia (ura, 36 gradutan), eta izango dituen: lepoalde eta bizkarreko txorrotak, hidromasajea, ur oheak eta ur jauzi txikiak. 1,20 metroko sakonera izango du gehien eta 0,50 metro gutxienerako sakonera. Bestalde, izango ditu uretako dutxak (dutxa ziklonikoa, kaskadakoa kainoi handi-



Bainuetxea zelakoa izango den erakusten duten irudi batzuk: hemen, bainuontzia.



Lurrin gela.



Saunetako bat: suediarra; bero lehorra botatzen du.



Dutxa handia, txorro handikoa.



Pedilubioa, ur txorroak jasotzeko.

koa, pedilubioa...). Era berean, erlaxazio areto bat egongo da: isiltasuna bermatzen duen eremu lasaia, etzaulki eta guzti. Bestalde, areto klimatizatuak ere egongo dira: sauna suediarra (bero lehorra, temperatura: 80-100 gradu eta %5-20ko hezetasuna), sauna turkiarra (bero hezea, lurrin sauna bezala ezagutua, 35-45 gradu eta %100eko hezetasuna), eta sauna hotza edo frigidariuma, izotz iturriarekin.

FUNTZIONAMENDU AUTONOMOA

Bainuetxeak ez du mediku edo espezialista berezirik izango erabiltzaile bakoitzari egokitutako zirkuitua gomendatzeko. Hortaz,

erabiltzaileak berak erabili ahal izango ditu zerbitzuak bere komenentziaren arabera. Edozelan ere, gaixotasun eta eritasun bakoitzarendako ibilbide bereziak ipiniko dira eta igerilekue-tako sorosleek gainbegiratuko dute erabiltzaileen erabilera osasuntsua.

Urtarrilean hasiko dituzte bainuetxea egiteko lanak, eta ekainean zabaldu nahi dute

SARRERA, KIROL TXARTELAREKIN

2007an, urte osorako kirol txartela egiten dutenek zerbitzu hori erabili ahal izango dute, baita kanpoaldeko belardia uda partean ere. Kirol txartela ateratzen duten bergarrek Debagoieneko beste herrietako kirol instalazioak ere erabili ahal izango

Erabiltzeko, kirol txartela edo Agorrosinerako sarrera beharko dira

dituzte eta beste herrietakoek Bergarako igerilekuak ere bai; baina ez bainuetxea eta ezta beste kirol instalazioak ere. Edozelan ere, kirol txartel barik ere sartu ahal izango da Agorrosinera, sarrera ordainduta, eta zerbitzu guztiak erabiltzeko aukerarekin, baita bainuetxea ere.

Bergarako Udaleko kirol arduradunek aditzera eman dutenez, bainuetxearen zerbitzua beste turismo eskaintza bat bezala saldu nahi dute kanpokoendako, eta, alde horretatik, turismo bulegoekin eta bertako ostatuerekin (base-ri turismo etxe, hotel...) harremanak sendotu nahi dituzte eskaintza bateratua egiteko.



KIROL AUkera

KIROLETAKO EKIPAMENDU INTEGRALA

FUTBOL ZELAIK • ALDAGELAK • IGERILEKUAK • GIMNASIOAK • KIROLETAKO MATERIALA (ELASTIKOAK, GALTZAMOTZAK...) • ETAB.

Hirubide edifizioa, 2. erdisotoa, 1. go lokala Errekalde auzoa 20.018 Donostia Tel/Fax: 943 37 68 04 Web-a: www.kirolaukera.com

*Gipuzkoarrok asmoak
eraikitzen ditugu*.*

**Gipuzkoako Foru Aldundiak 2,1 milioi euro
jarri ditu Agorrosingo kiroldegia
eraiki ahal izateko.*



Gipuzkoa hiria
gero eta hurbilago!

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

hemen bada

giro!

Zatoz gure musikoz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel.: 943 79 92 01

**Gustuko musika**

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

IOSUtaberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia

Kroasantegia

Gertatutako janariak

Mitarte 1

Tel.: 943 77 03 08

**EXPRESS TABERNA**Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43

Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

Loteria primitiboak
eta kizielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

HIRUSTA JATETXEA

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

Gurea
TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95**Matikua jatetxea**

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68



Olidenek dio eskualde kontzientzia handiagoa dugula

Aparkalekuak herritik kanpora ateratzearen alde azaldu zen alkatea

Kirol etxearen proiektua idaztea 600 mila euro izango da

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO Debagoieneko alkateei eskainitako GOITBko *Debarri* saioak denboraldi berria hasi du astean. Aretxabaletako alkate Arritxu Oliden izan da Alberto Gorritiberea kazetariaren aurrean jartzen lehenengoa, eta herriko proiektuen gainean jardun zuten. Herriarren galderak ere helarazi zizkieten.

GARRAIO PUBLIKOA
Hilabete pasatxo darama Olidenek Mankomunitateko presidentea, eta horren gainean galdetuta, oraindik "zentratzen" dabilela esan zuen, eta oso lanpetuta dagoela: "Bakoitzak bere herriari begiratzen dio oraindik, baina poliki-poliki gaintzen goaz eta Debagoiena gaitz kontzientzia gara. Horretarako zerbitzu publikoak lantzen hasi behar dugu: kultura eta kirol zerbitzuak, garraioa...".

Hain zuzen, garraio publikoa erabilita agintariek eredu izan beharko luketela esan zion herritar batek, eta ados azaldu zen Oliden. Autobusaren eskaintza asko hobetu dutela eta herritarrek ondo hartu dutela aipatu zuen. "Donostiara uste dut orduro daudela autobusak eta 50 minutuan iristen dira, eta Gasteiz izan arren oraindik hiri bailarakoontzat, Donostiarekin lotura behar-beharrezkoa zen", gaineratu zuen.

"Bailaran automobil asko ibiltzen dira, eta horrek gabezia bat dagoela adierazten du", jarraitu zuen, eta lanera doazen eta ikasleen mugimenduak bideratu beharko lirakeela gaineratu. Tranbia izan daiteke irtenbidea, eta proiektuaren zain dago Aretxabaletako Udala. "Hasierako proiektuari alegazioak aurkeztu genizkion, baina eskatutako gutzia ez zen posible egitea. Horregatik desbideraketa egin dute eta onartu aurretik erakustaldi publikoa jarri beharra daukate. Uztailetik gaude zain eta martitzenean bertan esan zidaten dokumentazioa gertu zutela; hortaz, astean jasoko genuela", argitu zuen Olidenek. Exekuzio proiektua esleitura duela Jaurlearitzak jakinarazi zuen, baina ez zen ausartu eperik ematen.

OZTOPOAK AUTOENDAKO
Automobil asko dabiltzan lekuan aparkalekuak arazo, eta kexu azaldu ziren hainbat herritar GOITBko kamera aurrean: "Aretxabaletan 3.150 automobil ditu-

UDALA > ARRITXU OLIDEN GOITB-KO 'DEBARRI' SAIOAN

Kulturarako eraikina zelan dinamizatu aztertzen dabilta



ARRITXU OLIDEN Agintaldia bukatzen dago, eta balorazioa egiterakoan, aurreikusitako proiektuek aurrera doazela ikustea dela politena aitortu zuen.

M.A.

gu, bi eta hiru familiako", jakinarazi zuen. Lur azpikoak egiteko begira ibili direla azaldu zuen: Ilargi plaza parean iturria dagoen lekuan eta Herriko Plazan. Baina plaza gutxi eta garestiak izango lirakeela gaineratu zuen. "Autoei gero eta oztopo gehiago jarri behar diegula uste dut eta garraio publikoa bultzatu; hortaz, aparkalekuak herriko kanpoaldean egitearen aldekoa naiz ni", esan zuen, eta jarraitu: "Gainerako leku batzuetan arazo bada

ere, oraindik aparkalekuak gehiago ditugu autoak baino".

BIDEGORRIA HASTEAN
Bidegorriaren proiektuaren gainean ere jakin gura izan zuten aretxabaletarrek. Hilabete barruan hasiko direla CVL lanategia eta Eskoriatzara bidean dagoen tunelaren arteko zatia egiten argitu zuen. "196 mila euroko aurrekontua dauka eta Udalak egingo du". Egin barik geratzen diren bi zatiak, Arra-

sate eta CVL artekoa eta tuneletik Eskoriatzarainokoa Aldundiko Ingurumen Sailaren eskutan dago. Lehenengoaren aurrekontua 230 mila euro inguru da eta bigarrenarena 90 mila. "Bidegorriari bizikletak nondik ibili zehaztuko diote, eta 1,60 metroko zabalera izango du horrek. Hala ere, tarte batzuk nahiko estuak dira eta oinezkoek eta bizikletek batera pasatu beharko dute", azaldu zuen.

KIROL ETXEA ETA KULTURA ETXEA
Kirol etxearen berri ere eman zuen: "Ideia lehiaketako saria proiektua egitea zen, eta datorren urteko aurrekontuetan sartuko dugu, 600 mila euro inguru izango dira; kirol etxe berriaren lanak, oster, ezingo ditugu 2007an hasi dirutza handia delako: 9,2 milioi euro". Kanpoko igerilekuaren gainean galdetu zion herritar bati argi esan zion ez zutela egingo: "12 hilabeteetan erabiltzeko igerilekua gura dugu. Gainera, uste dut ez daukala zentzurik herri guztietan egiteak, kostua handia da eta gutxi erabiliko genuke".

2007an bukatuko duten proiektua kulturarako eraikina da. Dagoeneko hasita daude ekipamendu eta dinamizazio kontuak aztertzen eta hainbat bisita egin dituzte; Donostiako Koldo Mitxelena, esaterako. "Egia da toki egokirik ez dugula izan ekitaldiertarako, baina antolatuta, antolatzen ditugu bai Loramendik, bai Udalak, eta oso jende gutxi hurreztatzen da. Ez dakit zer gertatzen den: publizitate gutxi, interes falta... Loramendiren eta Udalaren arteko elkarlana bultzatu behar dugu antolaketa lanak hobetzeko", azaldu zuen. Horren haritik, argitu zuen Loramendik kudeatzen duen ludoteka lehiaketara aterako dutela, legeak eskatzen duela. Gaineratu zuen 11 urtetik aurrera dagoen hutsunea zela bete aztertzen dabilzala.

Bukatuko maiatzaren 27ko Udal hauteskundeetan EAJko zerrenda-buru izango den galdetu zion Gorritibereak: "Egia esateko, Aretxabaletako alderdiko herri batzarrak eskatu dit, baina nik neuk oraindik ez dut hartu erabakirik", erantzun zion Arritxu Oliden alkateak.

Gipuzkoa saria jasoko duen Itziar Astiazaran aretxabaletarra, herriaz harro

Gipuzkoa saria emango dio Aldundiak Nafarroako Unibertsitateko Farmaziako dekanu Itziar Astiazaran aretxabaletarrari, eta zuzenean berba egiteko aukera izan zuen Alberto Gorritibereak. "Harriduraz jaso nuen berria eta merezi ez dudan ohore handia dela deritzot", adierazi zuen. Elikaduraren gaineko hainbat ikerketa egin ditu Astiazaranek eta

azaldu zuen elikadura ohituren eta osasunaren arteko loturak garrantzi handia hartu duela azken urteotan.

Aretxabaletaren gainean ere galdetu zion: "Garapen urbanistikoa orekatua daramala herriak ikusten dut horra joaten naizen bakoitzean; ondorioz, herri oso osasuntsua dela esango nuke", adierazi zuen Astiazaranek.

EUSKARA > BEINKE ELKARTEAREN URTEURRENA

Afaria eginda ospatuko dute 20. urteurrena

Ludotekako umeen antzezlan, Beinke-Loramendi dantza, 'Jotzeko prest!' pala txapelketako finala eta beste ekitaldi batzuk abenduaren 15ean

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Herria girotuko duten ekitaldiekin ospatu gura du Loramendi EEK Beinke elkartearen sorreraren urteurrena. Hala, ekitaldi apalak egingo dituzte, eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango da jai giroa sortzeko. Ume zein nagusi, izango dute zer ikusirik abenduaren 15ean.

BEINKE-LORAMENDI DANTZA

1986ko abenduaren 15ean egin zuten herritar batzuek Beinke elkarte sortzeko lehen batzarrak, eta egun horretan bertan egingo ditu Loramendik urteurreneko ospakizunak. "Egubakoitza da abenduaren 15a, eta egun horretan bertan ospatuko dugu Beinkeren urteurrena", dio Loramendiko dinamizatzaile Leire Lardizabalek. "Ludotekako umeak antzezlan gertatzen

dabiltza, eta Beinke-Loramendi dantza entseguak ere aurrera doaz", gaineratu du. Bide batez gogorarazi gura du dantza entseguetara joateko ez dela izenik eman behar aurrez, eta hasita egon arren norberak ahal duenean Basabeazpi gunera hurreratu besterik ez duela. Izan ere, askok bere garaian ikasi zuten aipatutako dantza, eta orain gogorarazita nahikoa lukete. Hitzordua egunetan izaten da, 19:00etatik 20:00etara, esandako moduan Basabeazpi gunean.

Urrian hasi zuten *Jotzeko prest!* pala txapelketaren finala ere abenduaren 15ean egingo dute, eta orduan jakingo dugu jokatzen dabiltzan zazpi bikoteetatik onena zein den. Horrez gain, beste ekitaldi batzuk ere antolatuko gura dituzte, nahiz eta oraindik lotu barik izan.

AFARIA TABERNA-BERRIN

Eta zela ospatu urteurren bat mahaiaren bueltan eseri barik. Hala, ekitaldirik garrantzitsuenetakoa afaria izango da. "Bazkideek etxean jasoko dute afariaren berri, baina ez da bazkideentzat bakarrik, herritar guztientzat dago zabalik", diosku Lardizabalek. 30 euroren truke eskainiko dute afaria Taberna Berri jatetxean. Izena azaroaren 27a baino lehen eman behar da Loramendi elkartearen.

ESKERRAK TALOGILEEI

Bestalde, Loramendik eskerrak eman gura izan zizkien irailaren 23an San Migel jaietan jarritako talo txosnaren inguruan lanean ibilitako guztiei. Horregatik, afaria eskaini zien joan zen egubakoitzean Apotzagako elkartearen, eta 55 lagun elkartu ziren. "Oilasko eta gazta tarta bikainak gertatu zizkiguten, eta afalostean txantxa jolasak egin genituen. Benetan giro polita sortu genuen guztion artean!", aitortu digu Lardizabalek.



AFARIA San Migeletan taloak egiten ibili ziren guztiei eskerrak eman gura izan zizkien Loramendi EEK.

ENERITZ URRUTIA



M.A.

Itxita dago Otalora kalea

Parrokia eta Untzillarako bidegurutzea bitartean itxi zuten Otalora kalea astelehenean lanak hasteko, eta orain Lausitta kaletik ibili behar dute automobil zein autobusek. Udaltzainak argibideak ematen eta txarto aparkatutako autoak zaintzen ibili dira lehenengo astean, batez ere Lausitta eta Errekabarren kaleetan.

MUGARRIAK > ONARTUTA UDALAK EGINDAKO LANA

Herriko mugarren berri eman du Foru Aldundiak

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek ekainean berrikusi zituzten mugarrak

M.A. > ARETXABALETA

Ekainean berrikusi zituzten Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek bi herrien arteko mugarrak. Aldundiak orain onartu egin du bi udalek aurkeztutako akta bateratua.

1889KO AKTAREN ARABERA

Guztira 44 mugari berrikusi zituzten bi egunetan. Lana egi-

teko mugaketa batzordeak osatu zituzten bi udalek, eta horiekin batera Aldundiko ordezkariak, lurren jabeak, tokia ezagutzen zuten auzotarrak eta muga beste herri batekin eginez gero, herri horietako ordezkariak izan ziren; Aramaio eta Barrundiakoak, esaterako. Mugarrak zenbatzerakoan, 1889an bi udalerrien arteko mugari komunak zehazteko egin zen seinalamendu akta jarraitu zuten.

Mugarrien gaineko argibide guztiak jaso ditu Aldundiak eta ikusgai jarri herritarrentzat azaroaren 3ko GAOn. Banan-banan mugari guztien xehetasunak datoz jasota.

> BERBALDIA

Iñaki Arnaiz aretxabaletarrak Brasilgo egoeraren berri emango du eguaztenean, hilak 16

Azken bi urteotan Brasilen egon den Iñaki Arnaiz aretxabaletarrak Brasilgo egoera izango du berbagai hilaren 16an. Diapositiba emanaldia izango da, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Gainera, Mundukideek gonbidatuta Brasilgo Movimiento Sin Tierra taldeko kideak dabiltza gure ibarrean, eta Iñakiri lagun egingo diote eguaztenean Brasilgo egoeraren berri ematen.

> KIROLA

Jotzeko prest! pala txapelketa aurrera doa, eta dagoeneko hasi da norgehiagoka berotzen

Loramendi EEK antolatutako pala txapelketa aurrera doa. Hona martitzeneko emaitzak: Joseba Urkia eta Juanan Priego 20 - Alex Azkargorta eta Aitor Alzola 24; eta bigarren partiduan, Iñaki eta Benito Arnaiz 20 - Asier Zubia eta Jon Etxeberría 24. Azaroaren 2ko emaitzak: Iñigo Louvelli eta Ibon Antero 7 - Juanan Priego eta Joseba Urkia 24; eta bigarren partiduan, Zigor Lasagabaster eta Unai Iturriotz 9 - Xabier Jausoro eta Josu Sarasua 24.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

mingainari tiraka

Siddique Mohammad > Pakistandarra

"Dagoeneko atzerritarra naiz Pakistanen"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Pakistango Gujrat eskualdean jaio zen Siddique Mohammad, baina dagoeneko hiru urte baino gehiago pasatu dira handik alde egin zuenetik. 28 urte ditu, eta oso gustura bizi da Aretxabaletan.

Zenbat denbora daramazu gure herrian?

Bi urte, aurretik Bergaran egin nuen beste urtebete, eta Parisen ere egon nintzen denbora tarte txiki batean.

Zergatik erabaki zenuen zure herritik alde egitea?

Lan bila etorri nintzen. Gurasoez gain hiru anaia eta arreba ditut, eta nik bidalitako diruaren zain egoten dira.

Eta bazabiltza lanean?

Bai, eta Udalak lagundu egin dit. Auzolan egitasmoan nabil margolari lanetan. Laster bukatuko zait, eta orduan beste zerbaiten bila hasi beharko dut.

Gustura zaude gure herrian?

Oso gustura. Oso leku polita da eta



jende jatorra aurkitu dut; bai lankideak, bai gainerako herritarrak.

Zer egiten duzu lana bukatu ostean?

Lagunekin egoten naiz gustura; gaztelaniaz zein euskaraz berba egiten ikasi gura dut, eta lagunak behar ditut inguruan. Bizikletan ibiltzea ere gustuko dut.

Zure herria eta gurea oso ezberdinak dira.

Ez, ohiturak dira ezberdinak, baina han eta hemen jendea oso antzekoa da. Eta hemengo ohiturak gustuko ditut.

Musulmana zara?

Bai, eta Bergarako meskitara joaten naiz.

Eta etorkizuna zela ikusten duzu?

Auskalo! Itzultzekotan hilabete batzuetarako izango litzateke, senideak ikustera, baina nire bizimodua hemen dago. Atzerritarra izango nintzateke Pakistanen.

Aretxabaletarrei zerbait esan gura diezu?

Gabon zoriontsuak eta urte berri ona opa dizkiet guztiei.

> PARROKIA

Aurten hil direnen aldeko meza esango dute gaur, 19:00etan

Gaur, azaroak 10, aurten Aretxabaletan hil diren guztien aldeko meza esango dute Andre Mariaren Zeruratze parrokiari, 19:00etan.

Asteon, ostera, familiaren astea egiten dabilta Donostiako elizbarrutia osoan. *Maitasuna zaindu eta indartu* da aurten darabilten leloa. Hori horrela, asteburuaran parrokiari zein auzoetan egingo diren eukaristia guztiak familiaren aldekoak izango dira, eta maitasunaren alde egingo dute otoitz elkartutakoek.

> UDALA

Urteko azken ohiko osoko bilkura egingo dute astelehenean

Ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak astelehenean, hilak 13, 18:30ean. Urteko azken ohiko osoko bilkura izango da, bi hilabete behin egiten dutelako, eta lau gai izango dituzte eztabaidatzeko elkartzen direnek. Taxiaren datorren urteko prezioak aurkeztuko dituzte Mankomunitatearekin bateratu ostean, eta gainerako hiru gaiak Ogasun Sailetik iritsiko dira: Udalak dituen ondasunen inbentarioa eta kreditu aldaketa, esaterako.

> ELKARTASUNA

Sahararen aldeko bilketa egiten dabilta Basabeazpin

Saharara joango dira Arizmendi eta Txantxiku ikastolako hainbat ikasle eta irakasle abenduaren 1etik 8ra. Eskolako materiala, botikak eta kirol materiala eraman gura dituzte, eta diruarekin batera materiala jasotzen hasi dira. Hala, Basabeazpi gunean kaxa jarri dute, papera, arkatzak eta borragomak jasotzeko. Ikasleak poliki-poliki hasi dira eroaten, eta gura duten guztiak hurrera daitezke materialarekin.

HIRUATX > EKUATORE GINEAKO PROIEKTUA

Alberto Trojaola aretxabaletarrak hiru aste egingo ditu Mitemeleten kooperatibako zuzendaritza taldeak antolatzen

Izaskun Intxausti ingeniari agronomoak nekazariekin egin du lan, artoa eta soja zela erein eta lurra zelan gertatu azaltzen

aholku tekniko-profesional guztiak ematen ere saiatuko da.

NEKAZARIEKIN LANEAN

Bestalde, Izaskun Intxausti ingeniari agronomoa egon da Mitemeleten bertako eta inguruko nekazariekin lanean. Artoa eta soja zelan erein eta horretarako lurra zelan gertatu erakutsi die Intxaustik. Gogora dezagun oilaskoak hazi gura dituztela Mitemeleten sortutako kooperatiban, eta horretarako ezinbestekoa dutela pentsua. Laster jasoko dute lehenengo arto eta soja uzta, baina Intxaustiren esanetan bigarrena hobe izango da. Gainera, Ekuatore Gineako baldintzak aztertu ostean, urtean bi edo hiru uzta jasotzea aurreikusi dute. Hala, poliki-poliki aurrera doa Hiruatxek hasitako proiektua.



NEKAZARIAK Mitemeleteko langileak proiektua hasi zutenean.

MUNDUKIDE

M.A. > ARETXABALETA

Hiruatx elkarteak Ekuatore Gineako Mitemelete herrian duen CIPA proiektuko tutore batzordeko kide da Alberto Trojaola aretxabaletarra. Dagoeneko Mitemeleten dago Trojaola, eta hiru aste egingo ditu. Kooperatibako zuzendaritza taldeak antolatzea eta kideei formazioa ematea izango ditu eginbehar nagusiak. Eskatzen dizkioten

L. GONZALEZ

M A R G O A K

**Pintura orokorra
eta papereztatua**

Basabe poligonoa F6 ARETXABALETA Tel.: 686 113 581

MUGARRIAK > BATZUK LEKUZ ALDATUKO DITUZTE MARTITZENEAN

Barrundiarekin mugan dauden mugarrak batzuk lekuz aldatuko dituzte

Udalaren aspaldiko kezka bati konponbidea emango diote martitzenean; Jaurlaritzak eskatuta, Barrundiakoek hitzordua egin dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Badirudi Eskoriatzako Udalak Barrundiako (Araba) Udalarekin daukan arazoa konpontze bidean dagoela. Hainbat urte igaro ondoren, martitzenean, hilaren 14an, bi udaletako ordezkariak elkartu egingo dira hainbat mugarrak lekuz aldatzeko.

Bi udal horien arteko tirabirak aspalditik datoz. 1999an Eskoriatzako Udalak Arabako herri

horrekin dituen mugak berrikusi zituen eta zenbait mugarrak mugitu behar zirela ondorioztatu zuen. Horretarako, 20ko eta 30eko hamarkada bitartean egindako aktak aintzat hartu zituzten. Horren ostean, arazoa probintzien arteko mugan zegoenez, eskoriatzarrek Gipuzkoako Foru Aldundira jo zuten, eta hark auzia Eusko Jaurlaritzara eraman zuen, haren kompetentzia delako.

Hala, Jaurlaritzak mugarrizteko egiteko espedienteak irekitzea erabaki zuen.

ESKORIATZAK JAURLARITZA ALDE
2000ko martxoan bi udaletako ordezkariak mugarrak ikustera joan ziren: bi alkateak, bina zinegotzi, idazkariak eta teknikoak, hain zuzen ere.

Eskoriatzarren ustetan, hainbat mugarrak ez zeuden leku egokian, eta hala jakinarazi zuten. Barrundiakoek, ordea, ez zuten eskaera horrekin bat egin.

Konponbiderik eza ikusita, Eusko Jaurlaritzak erabaki bat hartu zuen auziaren gainean.

Mugan dauden mugarrizteko zortzi, hirugarrenetik hamargarrenera lekuz mugitu behar zirela, hain zuzen ere.

BARRUNDIAKOEK HELEGITEA

Barrundiakoak ez zeuden konforme Jaurlaritzaren erabakiarekin eta helegitea egin zuten. Baina auzitegiak Jaurlaritzaren erabakia berretsi egin zuen 2001ean, hau da, epaiak Eskoriatzako Udalaren alde egin zuen.

Beraz, horren arabera, erabaki hori betearazi behar zuten 2001ean bertan.

Ordutik hona, helburu hori betetzeko asmoarekin, Eskoriatzako Udala Barrundiakoarekin harremanetan jartzen saiatu da, baina egin dituzten hitzordu guztietan arabarrek kale egin dute. Horren ondorioz, ezin izan dituzte mugarrak lekuz aldatu.

BARRUNDIA ORDEZKATZEA

Saiakera horiek guztiak egiteaz aspertuta, 2006ko uztailan Eskoriatzako Udaleko osoko bilkurak erabaki zuen arazo hori behin betiko konpontzea. Hain zuzen ere, udal bilkurak aho batez onartu zuten Jaurlaritzari eskatzea

Jaurlaritzak berak eta epaitegiek berretsitakoa betearaztea. Are gehiago, erabaki zuten Jaurlaritzari eskatzea betearazpen horretan Barrundiako Udala ordezkatzeko.

Jaurlaritzak Eskoriatzako Udalarik jakinarazi zion arabarrek ordezkatzeko baino gurago zuela Barrundiako Udalarik azkeneko abisua egitea.

MARTITZENEAN, MUGARA

Hala egingo zutela ez zirudien arren, arabarrek Jaurlaritzaren azken eskaera aintzat hartu dute eta mugarrak lekuz aldatzeko eguna eta ordua jarri dute. Martitzenean izango da hori, hilaren 14an. 10:00etan, hirugarren mugarrak kokatuta dagoen puntu berean, Mugar-luze inguruan batuko dira bi udaletako ordezkariak.

Eskoriatzarrek eskatu dute Jaurlaritzako ordezkari batek lekuko lana egin dezala. Toki Administrazioako zuzendariak jakinaraziko du han izango dela horren akta jasotzeko.

Mugan batutako ordezkariak adostutako puntuetan zulo berriak egin, mugarrak sartu eta beste egin beharko dute.

ERAKUSKETA > AUTOBIDEA

Autobideko lanak, argazkitan

Onbide.org elkarteak autobidearen lanen gainean batutako informazioa jarri dute ikusgai

Elizateetan egindako apurketak, eta oro har bestelako kalteak jaso dituzte 70 bat argazkitan

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako udalerrian egiten dabilzan autobideko lanek hainbat buruhauste ematen dabilta herritar batzuei. Lehenengo, autobideak kaltetuen batzordea osatu zuten, eta gero Onbide.org izeneko elkarteak, hain zuzen ere. Azken horrek autobideak, Abiadura Handiko Trenak eta halako beste azpiegitura handiek eragin ditzaketan kalteei aurre egite-

ko lana egiten dihardu azken urtean.

Horren harira, Onbide.org elkarteak eta Aitzorrotz kultura elkarteak elkarlanean autobideak eragindako kalteen gaineko erakusketa prestatu dute azken asteotan. Salaketa-erakusketa horri *Txikiziorik* ez izena jarri diote, eta dagoeneko ikusgai dago. Abenduaren 14ra arte egongo da, Inkernu tabernan.



ARGAZKI UGARI 70 bat argazkik osatzen dute Inkernuko erakusketa. I.B.

BI ZATITAN BANATUTA

Erakusketa bi alderdi nagusitan banatu dute: batetik, udalerriko elizateetan (Marinen, Mazmelan, Apotzagan eta Zarimutzen, batez ere) egin dituzten apurketa eta kalte nagusiak batu dituzte. Horiek detaileko eta argazki

panoramikoen bidez erakusten saiatu dira, eta horietako bakoitzaren gaineko informazioa eta azalpenak jaso dituzte.

Bestetik, autobidea egiten dabilzan enpresak eragindako bestelako kalteak ere aintzat hartu dituzte: legez kanpoko hondakindegia, isurketa toxikoak, Intxaurtxuetara jausitako harriak, Santa Ana gainean zabaldutako ke lainoa eta beste gertaera batzuk batu dituzte bigarren atal horretan.

70 BAT ARGAZKI

Onbide.org elkarteko lagunek esan digute kalteen gaineko argazki eta informazio ugari dutela. Hain zuzen ere, erakusketan 70 bat argazki jarri dituzte.

Erakusketa horrekin lotuta, Onbide.org-ek eta Aitzorrotz kultura elkarteak asmoa dute azaroan bertan kultura etxean autobidearen lanen gaineko berbal-di bat antolatzeko.

KIROLAK

Areto futboleko gazteei mehatxuak

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futboleko gazteen taldeak mehatxuak jasan zituen orain dela gutxi, Erromon norgehiagoka bat jokatzeko zebiltzala. Kontatu digutenez, Erromoko taldearen zale batzuek kantxara jauzi egin eta aurre egin zieten jokalariei bizi. Horrez gainera, mehatxu egin zieten, labana atera eta zartatu egingo zizutela.

Eskoriatzako Udaleko PSEko zinegotzi Inaki Pierrugesek salatu du norgehiagoka hartako epaileak ez zuela mehatxuaren aurrean ezer egin eta ez duela Erromoko taldearen kontra inolako neurririk hartu.

> IKUSKIZUNA

Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak salgai daude

Hilaren 25ean, zapatuan, Pirritx eta Porrotzek *Marimotx* ikuskizuna aurkeztuko dute kiroldegian. Eta dagoeneko salgai daude sarrerak. Arrasateko Elkar dendan, Aretxabaletako kioskoan eta Eskoriatzako Dorleta paperdendan eta kiroldegian eskura daitezke 5 eurotan.

ILE APAINDEGIA



APAINDU

San Juan kalea 12c behea
ESKORIATZA

Tel.: 943 08 26 40

ELKARTASUNA > ERAKUSKETA ETA BERBALDIA

Brasilgo Movimiento Sin Tierra elkartearen gaineko jardunaldiak

MST elkarteko 18 lagun daude Eskoriatzan, prestakuntza programa baten esku hartzen

Brasildarrak hemen daudela baliatuta, erakusketa eta berbaldia egingo dituzte

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Azken asteotan Brasilgo Movimiento Sin Tierra (MST) elkarteko 18 lagun daude HUHEZIn. Mundukidek, Saiolanek eta Lankik elkarlanean antolatutako programa baten bitartez ekarri dituzte gurera, eta programa hori Eusko Jaurlaritzak finantzatu du.

Mundukidek urtero ekartzen ditu Hego Amerika eta Afrikako herrialdeetako ordezkariak truke programaren bidez. Oraingo kasua, berriz, desberdina da. Ez da truke programa, formaziorako ekimena baizik. Aipatutako elkarteek Brasilgo MST elkartearekin harremana egin dute, eta

Debagoienara ekarri dituzte prestakuntza jasotzera, eta inguruetara oso bisita gutxi egiteko asmoa dute.

GIZA MUGIMENDU GARRANTZITSUA
MST 1985ean sortu zuten Brasilen. Elkarte horrek Brasilgo 23 estatutan lan egiten du eta haren helburua da nekazari eta behartsuendako nekazaritza lurra eskuratzea. Orain arte lan izugarria egin dute, eta horretan jarraitzen dute. MSTren borroka-metodoak beti dira jendetsuak eta baketsuak. Hain zuzen ere, halako ekintzak egiten dituzte: kale agerraldiak, kontzentrazioak,

gubernadore eta ministroekin elkarriketak, gose grebak...

MST munduko giza elkarte garrantzitsuenetako bat da, eta nekazariari antolatzeko bidea ematen die. Hain zuzen ere, dagoeneko milioika lur hektarea berreskuratu dituzte premia duten nekazarien alde.

SEBASTIAN SALGADOREN LANA
Debagoienara etorri diren 18 lagunek Brasilen kooperatibak eta nekazaritza esplotazioak abiarazteko prestakuntza jasotzen dihardute, baina etenaldia egingo dute Eskoriatzan elkartearen gaineko azalpenak emateko.

Aitzorrotz kultura elkartearekin lankidetzan, Movimiento Sin Tierra elkartearen gaineko erakusketa jarriko dute Eskoriatzako Inkernu tabernan. Gaurtik, egubakoitza, hilaren 29ra arte egongo da ikusgai.

Erakusketa Sebastian Salgado argazkilaria ezagunaren hoge-

bat argazkik osatuko dute. Salgado egin zuen bidaia baten MSTren esperientzia ezagutu eta urtebete egin zuen Brasilen elkarte horretako nekazarien artean. Horietako argazkiren batzuk batu dituzte erakusketan, eta hainbat azalpen gehitu dizkiete.

BIDEO TERTULIA ETA BERBALDIA
Horrekin lotuta, eguaztenean, hilaren 15ean, *Los sin tierra, por los caminos de America* dokumentala emango dute Inkernun, 22:00etan. Film hori Miguel Barros zuzendariak egin zuen eta oso harrera ona izan zuen hainbat jaialdi espezializatutan. Hain zuzen ere, 72 minutu irauten du lanak.

Horrez gainera, hilaren 22an, MSTko kideetako batzuek elkarte horren gaineko berbaldia egingo dute kultura etxean, 19:00etan. Ekitaldi berean, aipatutako dokumentalaren zati batzuk ere emango dituzte.

> AZPIEGITURAK
AHTren kontrako kale agerraldia egingo dute

Gaurko, egubakoitza, kale agerraldia deitu du AHT Gelditu Elkarlana taldeak. 19:30ean izango da, eta helburua da Abiadura Handiko Trenaren kontra egitea.

Antolatzaileak oso kezkatuta daude herritarrei galde-tu barik Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Estatuko Gobernuak halako azpiegitura erraldoia egin gura dutelako. "Onurak baino gehiago, konpondu ezinezko kalteak ekarriko ditu".

> IKUSKIZUNA
Oihulari Klownek hasierako lana berreskuratu du

Datozen asteetan Eskoriatzan hainbat kultura ekitaldi izango dira. Pirritx eta Porrotx pailazoaren ikuskizun berriak eta Anje Duhaldek egingo duen kontzertuaz gain, hilaren 24an Oihulari Klown taldeak hasierako *Dena klowntrolpean* egingo du.

Margolanak egiteko batzen dira astero

Amuska emakumeen elkarteak hainbat ikastaro antolatzen ditu ikasturtero. Dagoeneko hasita daude horietako batzuk. Adibidez, azken 4 urteotan astero olioak egiteko batzen dira. Ikasturte honetan martitzenero 20 bat lagun margolanak egiten aritzen dira kultura etxeko bigarren solairuan. Ikasturte honetako bi txandak beteta daude, baina Maria Jesus Carrillo irakasleak jakinarazi digu otsail aldera beste ikastaroren bat abiarazteko asmoa dutela.



IKER BARANDIARAN



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



bere ustez



Alaitz Jauregi

Gure erosketak laister

Domekia da, 2038. urteko domeka bat, erosketak egitteko eguna (astian zihar ez dogu eta denborarik hartzen). Aparkatu dot kotxia zentro komertzialeko parkiñian 14. bueltan, hartu karrua 20 euroko txanponakin eta barrura. Zenbat jende!

Sartu denda batera ta musika arraro-arrarua dago topera, dendako langiliak korrika alde batera ta bestera beltzez jantzitxa keizpiak bezela, jendia alkarri erropak eskutik kentzen, umiak

"Lehen bai ondo jirutzen ginala Pakitan dendan, eta Pilarrenian, eta Maritxunian eta..."

negarrez, betiko andria herri guztiandako berbetan, probadoretako txandia hartu eta 1037! Banoia erdi mariatuta kanpora.

Gorako eskilara mekanikotan sartu naiz eta bateko bultza besteko pelotoia behetik gora! Eta baita behera be!

Lortu dot irtetzia eta sartu naiz komunian lasaittasun pixka baten bila. Tazatik irten daben bi eskuk bajau doste prakak, papela emun eta *Eskerrik asko!* esan. Eskuak garbitzeko hiru ordu itxoin bihar zanez, banoia kotxe aldera izerdi baten. Parkiñeko irteeran 279 euro ordaindu ta esan jat neure buruari: lehen bai ondo jirutzen ginala Pakitan dendan, eta Pilarrenian, eta Maritxunian, eta...

KULTURA > UGARTEREN BIOGRAFIA ETA HAREN OBRAREN KATALOGAZIOA EGIN NAHI DUTE

Alfontso Ugarte musikaria ezagutarazteko ekitaldi sorta

Lizarrako eta Antzuolako udalak dira ekimenaren sustatzaile nagusiak; herri bietako abesbatzek ere udalekin batera dihardute ekitaldiak antolatzen

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Azaroan hasi eta datorren urteko maiatzera arte, Alfontso Ugarte antzuolar musikaria ezagutarazteko eta omentzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Antzuolako eta Lizarrako udalek, hainbat herritarrekin batera. Herri bietako abesbatzek ere badihardute ekitaldiak antolatzeko lanean. Eurak izan ziren, gainera, ekimenaren bultzatzaile.

AURKEZPENA AZAROAREN 24AN

Antolatutako ekitaldi sortaren berri emateko, aurkezpene egingo dute azaroaren 24an, egubakoitza. Aurkezpenarekin batera, Alfontso Ugarteren gaineko erakusketa zabalduko dute, Olaran etxeko aretoan. Erakusketa horretan ikusgai egongo dira argazkiak, partiturak eta Ugarteren elementu pertsonalak. Momentu honetan Lizarran dago ikusgai erakusketa hori, azaroaren 19ra arte. Erakusketa zabaltearekin batera, Antzuolako abesbatzak Ugarteren obraren emanaldia egingo du.

Bestalde, abendu hasieran Ugarteren gaineko hitzaldia egingo du Ibon Nabaskuesek. Lizarrakoa da Nabaskues, Ugarteren senitartekoa. Musikologoa ere bada eta Ugarteren bizitzaren eta obraren gainean berba egingo du.

BEKAREN AURKEZPENA

Ekitaldi sortaren barruan, Antzuolako eta Lizarrako udalek sustatutako beka dugu. Beka horren nondik norakoak ere aurkeztuko dituzte hilaren 24ko aurkezpenean. Eusko Ikaskuntzak bideratuko du beka hori eta helburua izango da Alfontso Ugarteren bizitza eta obra aztertzea eta hark egindako konposizioen katalogazioa egitea.



UGARTE Lizarrara bizi izatera joan eta han ezkondu zen.

UDALA

Datorren urteko maiatzean beteko dira 70 urte Alfontso Ugarte hil zela. Orduan ere hainbat ekitaldi izango ditugu. Besteak beste, Lizarrako eta Antzuolako abesbatzen emanaldia.

ANTZUOLATIK LIZARRARA

Antzuolan jaio zen Ugarte 1879. urtean. Donostiako kontserbatorioan egin zituen ikasketak.

Gero, 1901ean, Lizarran lortu zuen lanpostua, parroikiko organo-jotzaile. Hantxe ezkondu zen. 1920. urtean, Lizarrako musika bandako zuzendari izendatu zuten. Musika aldizkarietan idazten zuen eta musika irakasle ere ibili zen. Musika konposizio ugari egin zituen, gehienak erlijiosoak. 57 urte zituela hil zen, Lizarran, bihotzekoak jota.

> INTERNET

Webgunean hainbat aldaketa egin ditu udalak

Aldaketa batzuk egin ditu udalak webgunean. Batetik, frantsesez ere irakur daiteke orain. Bestalde, agendan eta berrietan argazkiak sartzeko aukera dago eta plano topomikoa ikusgai dago.

Azkenik, aipatzekoa da gutxitu fisikoendako egokitzan dihardutela webgunea.

> KULTURA

Nagore Igartzaren argazki erakusketa Bergarako Nahikarin

Nagore Igartza antzuolarrak *Gelak* izeneko argazki erakusketa du Bergarako Nahikari tabernan. Gaur egun Barzelonan bizi da Igartza. Diseinu grafiko eta argazkilaritza ikasketak egin ditu eta bi arloak uztartu ditu erakusketan. Azaro bukaera arte dago ikusgai.

> MENDIA

Zerainen mendi ibilaldia egingo du Arrola elkarteak

Azaroaren 19rako, domeka, Zeraingo burdin meategien ibilbidea egiteko irteera antolatu dute Arrola mendizale elkarteak kideek. Umeez eskolan bertan eman dezakete izena. Gainerakoek, berriz, hilaren 15ean, eguaztena, Arrolaren egoitzan, 19:00etatik 20:00etara.

> ERRETIRATUAK

Gabonetako loteria salduko dute datorren astean

Antzuolako erretiratuen elkarteak Gabonetako loteria salgai jarriko dute datorren astean. Eguaztenerako eta eguenerako, hilak 15 eta 16, jarri dute hitzordua, 18:00etatik 19:00etara, erretiratuen elkartearen egoitzan bertan, Zurrategi plazan.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

UDALA > OSOKO BILKURA

Inbertsioak finantzatzeko mailegua eskatzea proposatu du Udalak

Maalako parkeko, pilotalekuko eta Pagatzako lanak finantzatzeko lituzke Udalak, kreditu aldaketa egin eta 188.605 euroko mailegua eskatuta

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Egueneko osoko bilkuran, besteak beste aurrekontua, ordenantza fiskalak eta hainbat mozio ziren landu beharreko gaiak.

Udal aurrekontuan aurreikusitako inbertsioak finantzatzeko ez zuten diru partidarik zehaztu. Hori dela eta proposatzen ziren aurrekontuaren

kreditu aldaketa egitea. Onartuz gero, 188.605,49 euroko mailegua kontratatuko lukete Maalako parkeko, pilotalekuko eta Pagatzako lanak finantzatzeko.

ORDENANTZA FISKALAK

Udalbatzarrean ordenantza fiskalen igoera %3koa izatea ziren proposatzekoak.

Horrez gain, Udalaren baso pisten eta bideen erabilera arautzeko ordenantza ere ziren onartzekoak. Azken urteotan baso bideak egokitzeko inbertsioak egin dira; beraz, premia ikusi dute arautegia ezartzeko, "bertatik ibiltzeko eskubidea murriztu gabe, erabilpen desegokia edo neurritz kanpokoa eta, ondorioz, zoruaren hondatzea gutxitu dadin", dio ordenantzak.

Ordenantzak debekatzen du, besteak beste, hainbat ibilgailuak, gurpiletan kateak dituztenak, arrastekoak, 20 tonatik gorakoak eta hiru ardatz baino gehiagoko kamioiak. Baita ere azken baserriatik aurrera motordun ibil-

gailuekin denbora-pasa joatea: ehizara, perretxikotara...

Hala ere, salbuespenak daude, eta kasu berezietarako baime-na eskatu beharko da udaletxean, baita fidantza bat ordaindu ere (gutxienez 600 euro).

MOZIOAK

Bestalde, hiru mozio ziren eztabaidatzekoak: batetik, Aralarrek maniobra militarrek salatuz eta Udal eremuan maniobrak debekatzeko eskatuz aurkeztutakoa.

Bestetik, zinegotziek Udaleko Erregistro Orokorreko sarrerak eta irteerak irakurtzeko eragotzen ez izatea eskatuz aurkeztu zuten Aralarrek beste mozio bat.

Hirugarrenik, Elgeta Auzolanean plataformak euskal preso politikoen eskubideak errespetatzeko eskatuz sartutako mozioa ere ziren aztertzeak.

Enara Merino > Ludotekako arduraduna

"Umeak plazan jolas daitezke, baina neguan bestelako ekintzak egiteko toki egokia da ludoteka"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Astelehenean zabaldu zuten ludoteka eta apirilera bitartean aste barruan egunero egongo da irekita, arratsaldez. Enara Merino markinarrak egingo ditu ludotekako begirale lanak, eta harekin izan gara berbetan.

Zer dela eta ludotekako begirale lanetan?

Aurten hasi naiz Bergaran Haur Hezkuntzako ikasketak egiten, eta umeak betidanik gustatu izan zaizkit. Beraz, Elgetan aukera hau ikusita aprobetxatzea pentsatu nuen.

Zer da ludoteka?

Umeek eskolatik kanpora jolasean, lanak egiten, eskulanean... denbora pasatzeko lekua.

Zer eskainiko duzue?

Haurrek eurek nahi dutena egin dezakete: jolasak, eskulanak, antzerkiak... Askotariko jolasak eta materiala dauzkagu.



Enara Merino markinarrak umeei lagunduko die ludotekan.

IRATI AGIRREAZALDEGI



GOIENKARIA

Hamaika elgetar Midi d'Ossaun

Agoki kirol taldeak antolatuta, mendi irteera egin zuten herritarrek joan den aste bukaeran, Pirinioetara. Hamaika mendizalek hartu zuten parte txangoan, eta bidean lainoa, haizea eta hotza lagun izan bazituzten ere, Midi d'Ossau mendi gailurrerako bidea zapatuan egin zuten, eta, esan digutenez, oso ongi pasa zuten. Gaua, berriz, Hoz de Jacako aterpetxe batean egin zuten elgetarrek. Hurrengo mendi irteera hilaren amaieran egingo dute Elgeta inguruko mendietara.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Zein da zure lana ludotekan?

Umeei laguntzea. Nagusiagok batez ere ez dute gustuko euren gainean egotea, baina zaindu egin behar dira. Materiala falta bada ere nik bideratzen dut.

Ludotekaren helburua zein da?

Umeek plaza-eta badauzkate jolaserako, baina neguan bestelako ekintzak egiteko toki bat izatea; baita umeei elkarren artean harremanak izatea ere.

Zenbat neska-mutil daude?

15 umek eman dute izena, eta epea itxita egon arren beste

batzuek ere azaldu dute interesa; beraz, baliteke gehiago etortzea.

Elgetan adin horretako umek badute beste irtenbiderik?

Bai, batzuek musika eskolara edo psikomotrizitate saioetara joaten dira, baina ludoteka ere irtenbide egokia da, batez ere eguraldi txarra dagoenerako.

Nola moldatu zara umeekin?

Hasiberria naiz, baina umeei eurek asko laguntzen didate. Iaz zer egiten zuten esaten didate. Umeak, gainera, oso askeak dira Elgetan, bakarrik etortzen dira.

KULTURA > TRIKITILARI EGUNA

Trikitilari Egunarekin batera, 10. urteurrena ospatuko dute

Bihar, zapatua, egingo dute aurtengo Trikitilari Eguna; egun bera aprobetxatuko dute taldearen 10. urteurrena ospatzeko

UBANE MADERA > ARAMAIO

Arratsalde partean hasiko dira trikiti doinuak Ibarrako kalean barreiatzen. Hain zuzen ere, 17:30ean, Trikitixa Taldekoek kalejira egingo dute Ibarrako kaleetan. Gero, 18:00etan hasita, erromeria izango da plazan. Berezia izango da, eskolaren 10. urteurrena ospatzeko. Hori horrela, Xabier Aranburu eta Rakel Pujana trikitilariak gonbidatu dituzte erromeriara, aramaiarren hankak dantzan ipin ditzaten.

Bien bitartean, eta urteroko ohiturari jarraituz, buzkantzak eta txorizoak banatuko dituzte, doan, Bizente Goikoetxea plazan daudenen artean.

Eta bukatzeko, 19:00etan, azken asteotan saltzen ibili diren errifen irabazleak zeintzuk diren jakiteko zozketa egingo dute plazan bertan. Hain zuzen ere, hiru sari opari egingo dituz-

te: hiru baserri turismotan aste bukaera bana.

Hamargarren urteurrena izanda, eskolakoek herritarrekin konpartitu nahi dute egun berezi hori, eta horregatik dei egin diete biharko jaian parte hartzera anima daitezen.

HISTORIA, LABUR

Sorreratik izan du osasun ona Aramaioko Trikitixa Taldeak, zaletasun handia dago-eta herrian. Sortu ere sortu zen hainbat herritarrek interesa erakutsi zutelako panderoa eta trikitia ikasteko. Hala, Udalak ekimena bultzatu zuen eta sasoi hartan Arrasaten eskolak ematen zituzten Gurutze eta Josune Uribarren

hartu zituzten irakasle izateko. Harrezkero, Josunek pandero eskolak ematen ditu eta Gurutzek, berriz, trikitiarenak.

Aldaketak ere izan ditu, hori bai. Nabarmenena da oraingo ikasleak hasierakoak baino gaztetxoagoak direla, zelanbait trikitia ikastea eskolaz kanpoko jardun bilakatu da-eta.

Kontuak kontu, hamar urteotan taldearen sendotasuna gorde duen seinale da 2006-2007 ikasturterako 32 ikasle daudela eskolan. Astean behin elkartzen dira eskolak hartzeko. Eta gero, eskolan ikasitakoa erakusten dute, besteak beste Erretiratuen Egunean, Olenzeron, Santa Agedan, Arbel Egunean eta jaietan.

Antzerki saioa izango da gaur kultura etxean eta Farola Eguna, berriz, kalean

Gaur, barikua, bi ekitaldi izango dira iluntzean Aramaion: batetik, 17:00etan, Jakin eta Jolas taldearen eskutik antzerki saioa egingo dute kultura etxean. Ipuinak antzeztu egiten dituzte Jakin eta Jolas taldekoek.

Bestalde, 18:00etan, Farola Eguna ospatuko dute, Guraso Elkarrekin bultzatuta. Eskolan elkartuko dira eta handik Andra Marirako bidea hartuko dute, faroltxoekin lagunduta: "Neguan lagunduko digun argia eramango dugu", esan digu antolatzaileetako batek. Izan ere, horixe da Farola Egunaren funtsa. Hemen inguruan, Aramaion bakarrik ospatzen dute Farola Eguna, hasieran eskolako irakasle batek bultzatuta; orain, berriz, Guraso Elkarrekin hartu du hori bultzatzeko lekukoa.



IDAZKARITZAN Udaletxera eraman zituzten sinadurak.

JOKIN ETXEBARRIA

AHT > SINADURA BILKETA

Herri galdeketa eskatzeko 657 sinadura batu dituzte

Uztailetik hona ibili dira sinadurak batzen; Aramaioko hautesleen %50ek sinatu dute

J.E./U.M. > ARAMAIO

Martitzenean aurkeztu zituzten, udaletxean, Abiadura Handiko Trenaren gainean batutako 657 sinadurok; tartean daude 12 auzoetako alkateen sinadurak eta herriko 12 kultur eta kirol elkarten atxikimenduak.

Oro har, oso balorazio positiboa egin dute ekimenaren bultzatzaileek: "Oso ona, %50ek baino gehiagok sinatu dute-eta. Gainera sinatzaileen artean denetik dago: nagusiak, gazteak eta baita adinez txikiko

batzuk ere. Aramaion hori lortzea oso arrakastatsua da eta uste dugu Udalak ezin diola bizkarra eman sinadura horiei guztiei", adierazi dute AHTren kontrako taldek.

MOZIOA, AZAROAREN 29AN

Sinadurekin batera, herri galdeketa aldeko mozioa ere aurkeztu zuten udaletxean; hain zuzen ere, nahi dute udalbatzarrak gai hori eztabaidatzea azaroaren 29an egingo duten osoko bilkuran.

JAIK > SAN MELIXENAK GANTZAGAN

Besteak beste, txirrindulari igoera izango da jaietan

Gaur hasi eta domekara arte izango dira ekitaldiak Gantzaga auzoan

U.M. > ARAMAIO

Samelixenak 2006 iritsi dira Gantzaga auzora, eta, azken urteotan moduan, auzoko gazteriak antolatzen du egitarau mardula datozen hiru egunotarako.

Hasteko, gaur, barikua, kantua afaria egingo dute auzoko elkarteak, Izpizten. Hitzordua da 21:00etan.

ARETXABALETAKO ABESBATZA

Bestalde, bihar, zapatua, Aretxabaleako abesbatzaren bisita izango dute gantzagarrek, 12:00etako meza eurek abestuko dute-eta. Horrez gainera, mezaren ostean kontzertua egingo dute aretxabaletarrek. Eta bazkaltzera joan aurretik, Bermut dantza proposatzen dute, Janire, Jone eta Amaia trikitilariekin.

Zapatu arratsaldean mus txapelketa jokatu dute Izpizte elkarteak. Eta uuek, berriz, hitzordua dute, 17:30ean, Txantxi, Txintxe eta Montxorekin jolasak eta barreak egiteko.

Egunarekin amaitzeko, gauean, Jon Ostolatza eta Unai Andonegiren eskutik dantzaldia egingo dute.

DOMEKAN, TXIRRINDULARITZA

Domekari begira, iragarri dute auzoko aldeko meza esango dutela, 11:00etan; eta 11:30ean, Arrasate Musikaleko txistulari bandak kontzertua egingo duela, elizan bertan, Juan Karlos Larreategiren zuzendaritzapean.

Horren ostean, 12:30ean, txirrindulari igoera egingo dute, 26. aldiz.

Eta 13:00etan, trikiti txikiteoa egingo dute, Janire, Jone eta Amaiarekin.

Jaiekin amaitzeko, tute txapelketa egingo dute, hori ere Izpizte elkarteak, domekan, 17:00etan hasita.



ANTONIO GARCIA

Iñaki Nafarratek irabazi du Aramaioko saria

Gasteizera joan da Zuiako Koadrilako argazki lehiaketako lehenengo saria; Antonio Gartzia irabazi du Arratzu-Ubarrundiako argazki batekin (goikoa). Bigarren saria Juan Mari Errazti bergararrak irabazi du, Aramaioko argazki batekin. Eta Aramaioko saria, berriz, Iñaki Nafarratek irabazi du, Oletako baserri baten argazkiarekin.

Bestalde, argazki lehiaketaren harira, Aramaioko Udaletik jakinarazi digute datorren astean esango dutela Udalaren lehiaketaren emaitza.

OSPAKIZUNA > SAN MILIXAN JAIA

Gatzaren inguruan antolatu dute San Milixan jaia, artisauek lagunduta

Oñatiko Klax elkartekoez egongo dituzte bonboiak herritarren gatzarekin

'Bihurri' aizkolariak erakustaldia egingo du: hiru metroko enbor mozketara

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Domekan, azaroak 12, ospatuko dute gatzagarrek San Milixan jaia. Makinatxo bat lan izan dute azken egunotan Udaleko ordezkari zein herritarrek, eta jai bikaina gertatu dute. Aurten, baina, goizez bakarrik izango dira erakustaldi eta artisau postuak, 10:00etatik 15:00etara.

ARTISAUAK ETA TALOAK

Azken urteotako jaiak behera egin duela ikusita beste zerbait antolatu gura zuten aurtengo San Milixanetan. Hala, gatz hartu dute ardatz, eta suak eta txokolateak egingo diote lagun San Milixan egunean. Hala ere, ohi-turari jarraituz, artisauak izango dira Gatzagako pilotalekuan. Aurreko urteetan baino gutxiago etorriko dira, Udalak hala gura izan duelako, baina norberak ekoiztutako produktuak eka-



ARTISAUAK laz baino gutxiago hurreratuko dira, baina gura beste talo egongo da, baita bonboiak ere.

GOIENKARIA

rriko dituzte, goxoak batzuk eta dotoreak besteak: zilarrezko bitxiak; kandelak; egurrezko jostailuak; opil, gozoki eta pastelak; euskal buztzingintzaren produktuak; xaboi naturalak eta beste hainbat. Iaz lehenengoz egon

ziren Nafarroako Latasa anaiak aurten ere hurreratuko dira Garesko piperrik goxoenekin. Hainbat mota ekarriko dituzte: pikilloa, pikoa, bola... Eta bertan erreta eraman ahal izango dute hurreratutakoak.

Artisauen postuekin batera Sorginak emakume taldeak talo txosna jarriko du, eta barrua berotzeko talo goxoak eskainiko dizkigute. Artisauendako bazkaria ere *sorginek* egingo dute. Talak, baina, ez dira izango jateko

bakarrak; izan ere, bonboiak egongo dira dastagai, gatzeko bonboiak. Gatz ureko iturritik hartutako uretik herritarrek gatz jaso dute etxean. Gatz horrekin bonboiak egingo dituzte Oñatiko Klax txokolate elkartekoez.

'BIHURRI' AIZKOLARIA

Eguerdian, bestalde, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolari eibarraren gorabeherak jarraituko dituzte San Migel plazara etorritakoek. Lodiera handiko enborrekin egiten du lan *Bihurri*-k eta domekan ere erakustaldi polita eskainiko du: "Hiru metro dituen enborra moztuko du, eta gero motozerrarekin irudiren bat egiteko asmoa dauka", esan digu Kultura zinegotzi Jon Sasiainek.

GATZ EKOIZPENA MUSEOAN

Gatzaga herria eta gatz elkarrekin doaz eta bata ez da ezer bestea barik. Horren erakusgarri da Eugenio Otsoa gatz museo, eta San Milixan jaietarako bertako dorla egokitzea erabaki zuen Udalak. Orain arte ere azaltzen zuten gatzaren prozesu guztia museoan baina gatz ekoizteko modurik ez zeukaten. Horregatik atal-letan banatutako dorla jarri dute, eta azpian sua egingo diote. Bertako iturrian jasotako urarekin gatz zela ateratzen den erakutsiko dute hemendik aurrera, eta domekan izango dute herritar zein kanpotarrek ikusteko lehenengo aukera.

UMEAK > MARRAZKI LEHIAKETA

Gatzagako ume eta gaztetxoek ere aurkez ditzakete marrazkiak Eskoriatzako Udalak deitutako lehiaketara

Herriko ludoteka zabaltzeko ez dute aurkitu oraindik hezitzailerik, eta Gurel guraso elkarte oso kezkatuta dago

M.A. > GATZAGA

Egin zure Gabonetako marrazkia leloarekin marrazki lehiaketa antolatu du Eskoriatzako Udalak. 6 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako da, eta gatzagarrek ere har dezakete parte.

ABENDUAREN SERAKO

Ume bakoitzak marrazki bakarra egin behar du eta Eskoriatzako ludotekara edo bibliotekara ero-

an abenduaren 5a baino lehen. Lan bakoitzaren atzealdean datuak jarri behar dituzte marrazkilariek: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta maila. Lehen Hezkuntzako maila bakoitzeko sari bat egongo da, eta zozketa bidez hautatuko dute. Gabonetan, gainera, marrazki guztien erakusketa jarriko dute kiroldegian.

HEZITZAILERIK EZ

Bestalde, Gurel oso kezkatuta dago ez duelako aurkitzen hezitzailerik ludotekarako. Egunean ordubetez 2 eta 6 urte arteko umeekin egoteko gura du. Deialdia egin zuen orain aste batzuk, baina ez zen inor aurkeztu, eta orain Eskoriatzako hurreratu dira laguntza eske. Ea erantzunen bat jasotzen duten.



LUDOTEKA Hezitzaile baten bila dabilta lehenbailehen zabaltzeko.

GOIENKARIA

> PARROKIA

Domeketako mezak herrian bertan esaten hasi dira

Domu Santu egunera arte Dorletako santutegian esaten zituzten mezak, baina negu partea iritsi da, eta joan zen domeka ezker herriko parrokiaren esaten dituzte. Domeketan dira, 12:30ean, eta Arantzazuko fraidea hurreratzen da.

> ARGAZKIAK

Zerutik herriari ateratako argazkiak daude salgai

Hegazkin txiki batetik Gatzagari ateratako hainbat argazki jarri ditu enpresa batek ikusgai Labidea dendan. Hainbat tamainatakoak daude, eta prezioa ezberdina da bakoitzarentzat. Labideatik pasa daitezke interesatuak argazkiok ikusi eta eskaera egiteko argibideak jasotzeko.

> FUTBOLA

Aretxabaletak du kontrario gogorrena, Touring

Preferente mailako hamargarren jardunaldia jokatu du asteburuan, eta, hasiera baten, Aretxabaletak du kontrario gogorrena, Touring taldea hirugarren lekuan dago eta (zapatua, 17:00, Errenteria).

Aloña Mendik Ordiziaraino egingo du bidaia, seigarren lekuan dagoen taldearen kontra lehiatzera (zapatua, 15:30). Mondrak, azkenik, Pasaiaraino joan beharko du, beste pauso bat emateko puntu bila (zapatua, 16:30).

> SASKIBALOA

Promociones Legarzia taldea hartuko du Mugarri Alkesak

Urdaneta mendean hartuta, Mugarri Alkesak etxean duen bultzada aprobetxatzen jarraitu gura du Promociones Legarzia taldearen kontra (zapatua, 18:00, Iturripe). Gainera, Urdanetaren kontrako garaipena ez zen nolanhikoa izan, sailkapenari begira baino gehiago, moralki asko zegoelako jokoan; benetako errebantxa izan zen. Bada, garaipen horrek ematen duen indarrarekin kantxaratuko dira bihar.

> ARETO FUTBOLA

Eskoriatzako Alderdi Sozialistak mehatxuak gaitzetsi ditu

Joan den astean, Eskoriatzako gazte mailako taldeak Erromoko (Bizkaia) hainbat zalderen mehatxuak jasan zituen. Hala, Eskoriatzako Alderdi Sozialistako bozeramaile Iñaki Pierruguesek salatu egin ditu mehatxuak.

Oraingo asteburuari dagokionez, Euskal Ligako Eskoriatzak hirugarren postuan dagoen Izkepot taldea izango du kontrario, bihar, 18:30ean, Laudion.



ORBEAKO MAILLOTAREKIN Arrasatekoa maillot laranja jantzeko zain dago; bitartean Orbeako jantziekin hasi da entrenatzen.

X.URTZELAI

Baiezatzea falta zen, baina bazirudien Ivan Velascok Euskaltelen jardungo zuela datorren denboraldian; Arrasatekoak, baina, ez du deirik jaso

TXIRRINDULARITZA > IVAN VELASCO

"Euskaltelen deiaren zain jarraitzen dut; inork ez dit ezer esan"

XABIER URZELAI > BERGARA

Orbeako maillotarekin ikusi dugu Ivan Velasco entrenatzen, Euskaltelekoarekin ibiliko zela uste genuenean. Abuztuaren amaieran amaitu zuen denboraldia, eta iraila oporretan igaro eta gero, Arrasatekoa urrian hasi da berriro entrenatzen, bere kontura. Velascok esan digu oraindik ez duela Euskaltelen gaineko berririk: "Ni deiaren zain nago, oraindik inork ez dit ezer esan. Egia esateko, hasieran, inork deitzen ez zidala ikusita larritu egin nintzen. Orain lasaia nago, ez dizkiot buruari

horrenbeste buelta ematen". Velascok, baina, ez du itxaropenik galdu: "Uste dut Euskaltelen oraindik badagoela lekua, eta leku hori betetzea da gura dudana". Orain dela bi hilabete inguru egindako elkarrizketan Jon Odriozolak baiezatu ez bazigun ere, Oñatikoak Euskaltelen ikusten zuen Velasco. Arrazoi bategatik edo besteregatik, baina, jauzi hori atzeratu egin da.

BERE KONTURA ENTRENATZEN

Orbeako gainontzeko taldekideak bezala, Velasco dagoeneko hasi da entrenatzen: "Oraindik Orbe-

an ez dago zehaztuta nortzuek jarraituko duten eta nortzuek ez. Badakit taldekideak euren kontu dabilzala entrenatzen, eta horretan nabil ni ere; berez, otsailean hasiko ditugu txapelketak".

Profesional mailan urtebete soilik eginda, Velascok gustura amaitu du denboraldia: "Ezin dut esan sekulako denboraldia egin dudarik, baina nahiko gustura geratu naiz. Euskal Bizikletan ez nuen zortetik izan, Gatzagan amaitzen zen etapan erori eta erretiratu egin behar izan nuelako. Baina Limousineko Tourrean 11. amaitu nuen, eta Errioxa-

ko itzulian 14.a izan nintzen. Pozik egoteko emaitzak dira".

ZUZENDARIAREN GAINEAN

Orain arte bere zuzendari izan den Jon Odriozolaren gainean galdetu diogu: "Lasterketan oso zuzendari zorrotza da. Taldearen alde egiten du, individualismoen gainetik, eta txirrindularia ondo estutzen du. Uste dut Euskaltelek asmatu egin duela fitxaketa horrekin, ziklistak ondo gidatzen dakien zuzendaria da eta". Ea denboraldi berrian Velascok Odriozolaren agindupean jarraitzen duen.

PIRAGUISMOA > ESKOLA KIROLA

Ur bizietan eslaloma egiten ikasteko elkartuko dira bihar Zubillagan

XABIER URZELAI > BERGARA

Bihar, zapatua, 15:30ean hasiko dute Zubillagan piraguismoko topaketa. Beti Bustiko arduradunek aditzera eman digutenez, gaztetxoek ur bizietan eslaloma egiten ikasteko antolatuta dituzte jardunaldiak. Hala, eskola kirolaren barruan infantil eta alebin mailetakoko neska-mutikoek jardungo dute. Esan barik doa Oñatiko errekek ez duela ur bizi handirik, baina nahikoa da ur geldo-

ak atzean utzi eta Beti Bustiko gaztetxoek beste aurrerapauso bat egin dezaten.

HAINBAT KLUB

Begarako eta Oñatiko piraguiten ordezkatuko dute Beti Busti taldea, baina ez dira Oñati errekan bakarrik ibiliko: "Gurekin batera Atletico San Sebastian, Santiagotarrak (Irungo taldea), Nautico (Donostiako taldea) eta Kostapeko (Pasai Donibaneko

taldea) klubetako gaztetxoak izango dira. Aurreikusten dugu gutxi gorabehera 45-55 neska-mutiko elkartuko direla", esan digu Kuxi-k.

GUZTIEK ZIRKUITU BERA

Adin askotariko gaztetxoak izango badira ere, guztiek bete beharko dute zirkuitu bera. Hori bai, lehiatzerakoan kontuan hartuko dute hori. Eslalomeko piraguak erabiliko dituzte.



Beti Bustiko piraguita bat, Debako uretan.

GOIENKARIA

ATLETISMOA > BEHOBIA-DONOSTIA

Berrogeita zortzi ordu ere ez kronometroak lanean hasteko

Hamabi mila lagunek hartuko dute esku domekan Gipuzkoako proba herrikoienean

Lasterketako hainbat protagonistak aurreratu dute fisikoki inoiz baino hobeto daudela

XABIER URTZELAI > BERGARA

Antolatzaileek ez dute domekan lan makala izango, inoiz baino korrikalari gehiago izango duen lasterketa kontrolpean mantendu beharko dute-eta. 12.000 lagunek eman ahal izan dute izena, eta beste 1.600 lagun geratu dira izena eman barik, itxaron zerrendan. Eta, 12.000 lagun horien artean gutxi batzuk izango dira aurrealdean; badirudi, baina, gutxi horiek inoiz baino hobeto presatu dutela proba.

GORPUTZALDI ONEAN

Joan den urtean lehenengo helmugaratu zen Chema Martinez da faboritoetako bat. Iaz, madrildarrak marka polita egin zuen (1:02:11), baina gehiago estutu behar da Alberto Juzgado 1999an kronometroa geratu zuen moduan geratzeko (0:59:23). Orain arte, Philip Rugut izan da marka horretara gehien gerturatu den korrikalaria (2001ean, 0:59:27). 2002. urtetik hona, baina, inork ez du ordubete baino gutxiago egin.

Chema Martinez, baina, inoiz baino gorputzaldi hobean dago,

eta errekorra gainditzeko moduan egon daiteke. Kronometroaren kontrako borrokan, baina, beste lehiakide bat izango du: Robert Kipchumba kenyarra.

RITXAR ETA IRATXE, AURREAN

Ritxar Fernandez eta Iratxe Aranburu ere aurreko postuetan ibiliko dira. Joan den astean Orion erakustaldia eginda, Zarauzko korrikalariak erakutsi du fisikoki ondo baino hobeto dagoela. Aranburuk onartu bezala, oposaketak gaindituta (Arrasaten egiten du lan) joan den urtean baino gehiago entrenatu ahal izan da, eta agerian geratu dira emaitzak. Horrenbeste entrenatu barik ere, Aranburu izan zen joan den urtean emakume azkarrena. Orain arte 1:13:00 da Behobia-Donostian egin duen marka onena, eta denbora hori gainditzeko asmoz izango da domekan irteera puntuan.

Ritxar Fernandezek ere onartu digu bere marka onena gainditzeko moduan dagoela (1:01:41): "Berlingo maratonia egin eta gero ez nekien Behobiarako zelan erreperatu behar nintzen. Baina bost aste egin ditut ondo entrena-



KRONOMETROA LANEAN Domekan gehienak erlojuaren kontra lehiatuko dira. J.A.

tzen. Fernandezi komentatu diogu lasterkari guztiak iritsiko direla inoiz baino hobeto: "Kontuan hartu lasterketa komertziala dela, eta korrikalariak bere burua saldu egin behar duela". Faboritoen ganean ere galdetu diogu: "Txemak eta Kipchumbak lehia polita izango dute, baina kenyarra sendo badator, kontuz harekin! Sekulako korrikalaria da".

ASTELEHENEAN, INFORMAZIOA

Asteleheneko Goienkaria-k bertatik bertara jarraituko du domekako proba, eta zabal landuko dute astelehenean: sailkapen, argazki, kronika eta bestelakoen. Horrekin batera, GOITBk lasterketa grabatuko du, eta hori izango da Julen Iriondok aurkeztu duen *Harmailatik* kirol saioiko ardatza astelehenean.

> PALA

Gabonak arteko txapelketa antolatu dute Elgetan

Pala txapelketa antolatu dute Elgetan, ibarreko pilotalekuan gomazko paletaz jokatzen ibiltzen direnei zuzenduta. Txapelketa bikoteka egingo dute, eta azaroaren 15a da izena emateko azken eguna.

Elgetako pilotalekuan jokatuko dituzte norgehiagoka guztiak, 35 tantora. Eta, izena ematen duten bikoteek ordezkotoki baten izena eman beharko dute. Normalean, zapatu goizetan jokatuko dituzte partiduak, baina aldatzeko aukera egongo da. Izena emateko deitu 943 76 80 22 telefono zenbakira.

> FRONTENISA

Bihar hasiko dute Zubikoan frontenis txapelketa

Izena emateko epea atzo amaituta, zapatuan hasiko dute Oñatin bederatzigarren frontenis txapelketa. Txapelketa horrek Debagoieneko txapelketako rankigerako balioko du. Hala, txapelketa eskuratu duenak 12 puntu erdie-tsiko ditu.

Bihar hasiko dute txapelketako lehenengo fasea ligaxka modura izango da. Eta, lehenengo fasea gainditzera-koan egingo dituzte kanporaketa norgehiagokak.

Frontenisko txapelketa horren helburua da federatuta ez dauden jokalariek lehiatu ahal izatea.

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



600 m2 baino gehiagoko erakusketa
Ikusteko 31 sukalde baino gehiago
Merkatuko prezio hoberenak
Europar marka hoberenak

Armeko
Sukaldeak Integralak

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



YOSUTHERMIK
LEIHOAK ISOLATZAILEAK

Bisita ezazu leihoen erakusketa berria
Kalitate handiena
Gehieneko berma
Prezio hobeak

ERAKUSKETA BERRIA



Kataide Poligonoa, 4 pabiloia

ARRASATE

943 770157

SQUASHA

Jose Luis Unanuek eman du Euskal Ligan azkeneko kolpea

Asteburuan jokatu zuten Musakolan Euskal Ligako azken Txapelketa; hamahiru lehiakideren artean Mundaiz elkarteko jokalaria nagusitu zen

X.U. > ARRASATE

Goizean jokaturako kanporaketak, final-zortzirenak eta final-laurdenak ondo gaudituta finalerdietarako sailkatu ziren Jose Luis Unanue (Mundaiz elkartea), Miguel Odriozola (Mundaiz elkartea), Alberto Ferreiro (AKE squash elkartea) eta Liam Keane (Amaya elkartea). Arratsaldean jokatu zuten azken fase hori, finalerdia eta finala. Hala, lehenengo norgehiagokan Unanue eta Odriozola izan ziren aurrez aurre, biak Mundaiz elkartea ordezkatzeko. Erraz nagusitu zen Unanue (3-0), eta finalerako sailkatu.

Beste finalerdian, Arrasateko taldeko Ferreirok eta Liam Keane nafarrak gogotik bota zuten izerdia. Txapelketako partiduetatik parekatuena izan zen finalerdia hori; azkenean, baina, Iruñeko jokalaria nagusitu zen (3-2). Finala jokatu aurretik, Odriozola



FINALISTAK Unanue eta Keane, izerdi galanta botata.

AKE SQUASH TALDEA

la eta Ferreiro lehiatu ziren hirugarren postuagatik, eta ordurako zeukan onena emanda, Ferreirok laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

FINALA: KEANE-UNANUE

Eta finalean ere beste horrenbeste gertatu zen. Ferreiroren

kontra egindako esfortzua ondo ordainduta, Liam Keane ez zen Unanuerendako kontrario izan (3-0). Horrekin batera, aipatzekoa da Arrasateko taldeko Luis Mari Gordo kontsolazio txapelketako finalerdirako sailkatu zela. Hala, Euskal Liga amaituta, Masterra jokatzea falta da.



X.U.

Kopan denboraldia estreinatuta, Mikel Gonzalez GOITBra etorri da bisitan

Kopako norgehiagokaren biharamunean eta fisikoki oraindik errekupeatu barik, Arrasateko jokalaria Goienako egoitzan bisitan izan zen atzo. Realeko atzelariak balorazio positiboa egin zuen aurten jokatu duen lehenengo norgehiagokaren gainean, nahiz eta taldeak kanporaketa ez gaudituz: "Nekatuta amaitu nuen, karranpekin, baina gustura".

Hala, Real jarratzen duten komunikabideek bat egin zuten Gonzalez-en lana baloratzerako orduan: minutuak merezi dituela, alegia.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehenengo maila

Reala-Espanyol
Domeka. 17:00. Anoeta.

Preferente maila

Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Altamira.
Pasaia-Mondra
Zapatua. 16:30. Errenteria.
Touring-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Errenteria.

Lehen erregionala

Elgoibar-Bergara
Zapatua. 18:30. Mintxeta.

Bigarren erregionala

Soraluze-BTLS
Zapatua. 11:00. Ezozia.
Aretxabaleta-Urki
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Elgeta-Antzuola
Zapatua. 15:30. Unbe.
Zestoa-Mondra
Zapatua. 15:30. Zubiaurre.

Ohorezko mailako gazteak

Aloña Mendi-Beasain
Zapatua. 15:30. Azkoagain.
Mondra-Ordizia
Domeka. 15:30. Atxabalpe.
Martutene-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Donostia.
Bergara-Aurrera Ondarroa
Zapatua. 18:00. Ipintza.

Lehen mailako gazteak

Soraluze-Arrasate
Domeka. 16:00. Ezozia.
Bergara-Urki
Zapatua. 16:00. Ipintza.
Eibartarrak-Antzuola
Domeka. 15:30. Unbe.
Arizmendi Aretx.-Ilintxa
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Ohorezko mailako kadeteak

Arizmendi Aretx.-Bergara
Zapatua. 11:00. Ibarra.
Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 12:00. Ibarra.
Reala-Arrasate
Zapatua. 10:00. Zubieta.

Lehen mailako kadeteak

Ikasberri-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 11:30. Azpeitia.
Anaitasuna-Bergara
Domeka. 15:45. Txeriloia.

Ohorezko mailako infantilak

Arizmendi Aretx.-Lengokoak
Domeka. 11:00. Ibarra.
Arrasate-Eibar
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.
Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Lehen mailako infantilak

Urki-Bergara
Domeka. 10:30. Unbe.

Infantil txikiak

Añorga-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 12:00. Rezola.

Emakumezkoen Liga

Arizmendi Aretx.-G. Aurrera
Zapatua. 15:30. Almen.
Aloña Mendi-Agurain
Domeka. 10:00. Ibarra.
Mondra-BTLS
Zapatua. 15:30. Atxabalpe.

Emakumezkoen F-8

Arizmendi Arrasate-Luberri
Zapatua. 10:45. Almen.

Kadete emakumezkoak F11

Arizmendi Aretx.-Aloña M.
Zapatua. 12:30. Almen.

Alebin maila

Bergara-Elgoibar
Domeka. 10:00. Elgoibar.
Aloña Mendi-Urki
Domeka. 10:00. Elgoibar.
Lagun Onak-Arrasate
Domeka. 11:30. Elgoibar.
Aretxabaleta-Eibar
Domeka. 11:30. Elgoibar.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Liga

Izkepot-Eskoriatza
Zapatua. 18:30. Laudio.

Lehenengo maila

Ventanas Isu-Aloña Mendi
Gaur. 21:10. Lasarte.

Hirugarren maila

UDA Mercedes Goiko-Martu.
Zapatua. Ordu barik. Aretx.

Gazteak

Reijos Monda.-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Eibar.

SASKIBALOA

ACB

Bruesa GBC-Fuenlabrada
Domeka. 19:00. Illumbi.

Lehen maila

Mugarri Alkesa-Legarzia
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Gipuzkoako ligako senior maila (gizonetako)

Aloña Mendi-Haurtzaro Ikas.
Zapatua. 19:15. Zubikoa.
Cafes Aitona-Candy BKE
Zapatua. 16:00. Donostia.

Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)

Internacional-Eskoriatza KE
Zapatua. 19:30. Donostia.
Aloña Mendi-Ordizia
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako gazte maila (gizonetako)

Mugarri Alkesa-Graficas Ilb.
Domeka. 12:00. Iturripe.
Internacional-Aloña Mendi
Zapatua. 12:15. Donostia.

Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonetako)

Ford Mugarri-Ordizia
Zapatua. 12:00. Arrasate.

Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)

Aldapeta-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Donostia.

ESKUBALOA

Euskadiko Senior Maila

Ford Mugarri Ar.-Gure J.
Zapatua. 18:00. Musakola.

Euskadiko preferentea

Verkol Aloña-Errioxako U.
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Lehen territorial maila

Ormaiztegi-Arrasate Esk.
Domeka. 11:45. Zubipe.
Bergara-Donibane Eskub.
Domeka. 12:30. Labegariet.

Gazte maila (gizonetako)

Aloña Mendi-Donibane
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Bergara KE-Goierri OET
Domeka. 11:00. Labegariet.

Kadete maila (neskak)

Verkol Aloña-Cocina Aiala
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Federazio saria.

(emakumeak, gazte maila)
Jauja Andonegi-Verkol Aloña
Zapatua. 16:30. Mutriku.

Federazio saria.

(emakumeak, kadete maila)
Cons. Alaves-Arrasate
Zapatua. Ordu barik.
Gasteiz.

ERRUGBIA

Gazte maila

Gernika-Arrasate
Zapatua. 12:15. Gernika.

Beterano mailako lagunarteko norgehiagoka

Aragoi-Herensugeak
Zapatua. 16:00. Zaragoza.

PILOTA

Infantil mailako Gipuzkoako txapelketako norgehiagokak

Zapatua. 16:30. Angiozar.

Gazte mailako Gipuzkoako txapelketako norgehiagokak

Zapatua. 17:30ean. Eskoriatza.
Eskoriatza-Erriope

Kadete mailako Gipuzkoako txapelketako norgehiagokak

Zapatua. 18:00etan. Eskoria.
Eskoriatza-Erriope

Kadete mailako Gipuzkoako txapelketako norgehiagokak

Zapatua. 10:00etan. Alkiza.
Erriope-Aretxabaleta

Eskola mailako norgehiagokak

Zapatua. 15:30ean hasita 12
norgehiagoka jokatu
dituzte. Uarkape.

ATLETISMOA

Gipuzkoako Atletiada

Gipuzkoako infantil, alebin
eta kadete mailako atletia
gazteek hartuko dute esku,
bihar goizean, Anoetan.

42. Behobia-Donostia lasterketa

Domeka. 11:00. Behobia.

PIRAGUISMOA

Eskola Kirola barruan egingo den topaketa

Zapatua. 15:30. Zubillaga.



Elgeta eta Antzuola, aurrez aurre, bigarren erregionalean. Lider dagoen Elgetak bigarren sailkatuaren bisita izango du zapatuan Eibarren. Argazkian, Mondraren eta Antzuolaren arteko partidua.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **ITZULPENA**
Orhan Pamuk-en *Kar* itzuliko dute Jokin Zaitegi sariketan > 45



> **KOMUNIKAZIOA**
Berria egunkariaren estilo liburua kaleratu dute > 51

> **HODEI BEITIA**
Arkada Social eta Des-Kontrol musika taldeetan dabil Hodei. Azaroaren 18an Arkada Socialen azken kontzertua izango da, Jam aretoan

> 50



ARGAZKIA: BENITO CANTERO

'Seussen mundua', Bergaran

Bergarako Orfeoia 'Seussen mundua' musikala eskainiko du bihar, zapatua

Bi emanaldi izango dira bihar Udal Pilotalekuan, 19:00etan eta 22:30ean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Seussen mundua, Bergarako Orfeoia pasa den Gabonetan Bilbon estreinatutako ikuskizuna, Bergaran ikusteko aukera izango da bihar, zapatua. Bi emanaldi egingo dituzte Orfeoiko kideek Udal Pilotalekuan, bata 19:00etan eta bestea 22:30ean.

Seussical the musical ikuskizunean oinarritutako lana da. Eta AEBetan oso ezaguna den arren, Theodor Seussen lana ez da gurean askorik ezagutzen. Hala

ere, Seussek lan oparoa utzi zuen: 50 liburu inguru idatzi zituen eta bere lanen 100 milioi kopia saldu dituzte mundu zabalean. Hizkuntza askotara itzulita daude haren liburuak. 1904. urtean Springfielden (Massachusetts) jaioa, 1991n hil zen Theodor Seuss.

Orfeoia eskutik, Seussen lan bat euskaraz antzetzten den lehenbiziko aldia da. Broadwaytik Euskal Herrira datoz Seussen pertsonaiak, ikusleak konkistatu nahirik.

'Seussen mundua' musikala Bergaran

(43. orrialdetik dator)

Ikusle guztiendako moduko ikuskizun musikala alai da *Seussen mundua*. Valen Moñux da zuzendari artistikoa, eta jende ugari hartuko du parte: kantariak, musikariak, dantzariak eta antzezleak, besteak beste.

117 LAGUN TAULA GAINEAN

Guztira, 117 lagun izango dira taula gainean, Valen Moñuxek argitzen digunez: "Musikalean parte hartzen dutenen zerrenda amai-gabea da: Orfeoiko kideez gain, Musika Eskolako 20 musikari, kantu ikasleak... Bergarako emanaldietan, nobedade gisa, Tolosako Izaskun Arriola Dantza Zentroak hartuko du parte, emakumezko zazpi dantzarekin eta gizonezko beste dantzari batekin. Musikari dagokionez, esan bezala, 20 lagunek osatzen dute: Musika Eskolako irakasleek eta maila altuko ikasleek, besteak beste. Eta horrelakoetan gertatzen den moduan, eszenatokian azaldu ez baina laguntza parega-



EUSKARAZ Mundu zabalean *Seussen mundua* musikalaren bertsio ugari egin dira. Orfeoia euskarazkoa estreinatzen duen azken Gabonetan, Bilbon.

ENEKO AZKARATE

bea eskaini diguten lagun mordoa ditugu atzean".

David Azurtza da zuzendari musikala eta espazio eszenikoa

Jose Luis Raimondek diseinatu du. Eszenografia, aldiz, Kukubiltxo Antzerki Taldearena da eta testuaren itzulpena euskarara

Blanca eta Rosa Narbaiza ahizpek egin dute. *Seussen mundua* ikuskizunak bi ordu irauten du eta tartean 15 minutuko atsedenaldia izango da.

Orfeoia. New Yorkeko Music Theatre International konpainiari erosi zizkioten *Seussical the musical* lanaren eskubideak, eta lan gogorra izan zen hura moldatzea. "Bertsio ugari egin dira mundu zabalean, elkarren artean oso ezberdinak. Guk argi geneukan animaliekin egin nahi genuela, eta Kukubiltxo konpainiarekin harremanetan hasi ginen. Hasieratik hona gogor egin dugu lan, eta gustura gaudelortutako emaitzarekin, ea beste herri batzuetan ere antzertarik badaukagun... Itxaropen hori daukagu behinik behin, lan handia eskatu digun ikuskizuna izan delako eta merezi duelako ahal den toki guztietan erakustea", dio Moñuxek.

Zapatuko bi emanaldiak gertatzeko entseguak egin dituzte iraila ezkerko Orfeoiko kideek, domekero Seminarioko elizan. Oraingo astean, lau entsegu egin dituzte Udal Pilotalekuan. Frontoia antzertoki bihurtzea ez da erraza izan. Dena dela, guztia gertu dago biharko. Ikusleena da hitza orain.



MUSIKALA Ikuskizun alai da, adin guztiko ikusleendako aproposa.

BENITO CANTERO

'Seussen mundua', Bilboko estreinalditik hamar hilabetera Bergarako pilotalekuan

Oliver! arrakastatsuen ondoren, Bergarako Orfeoia egiten duen bigarren muntaia handia da *Seussen mundua*. Izan ere, *Oliver!* Bergaran estreinatzen zuten, 1999an, eta sekulako arrakasta lortu zuen Orfeoia: Hego Euskal Herriko antzoki nagusietan 11.000 lagun inguruk ikusi zuten.

Seussen mundua musikalaren estreinaldia joan den urteko Gabonetan egin zuten, Euskalduna jauregian. Hiru egunetan, abenduaren 27tik 29ra, bost emanaldi egin zituzten Bilbon, eta harrera beroa jaso zuten orduan ere, ikusleen zein kritikaren partetik. Estreinalditik ia urtebete igaro ondoren, Bergarako Udal Pilotalekuan ikusteko aukera izango dugu. Orfeoia eta ikuskizuna saltzeaz arduratzen den Producciones Serrano enpresak interesa azaldu dute ikuskizuna toki gehiagotan antzertzeko. Biharko bi emanaldietarako sarrera gehienak salduta badaude ere, gutxi batzuk geratzen dira: gaur, egubakoitza, 20:00etatik 21:00etara zabalduko dute Udal Pilotalekuko leihatila eta zapatuan, 18:00etatik aurrera. Sarrerek 15 eurotan eta 12 eurotan salgai jarri dituzte, baina 12 eurokoak bakarrik geratzen dira.

Zapatuko emanaldiekin ez da bukatuko musikaleko partaideen lana. Pilotalekuak txukun egon behar du domekan, arratsaldean pilota jaialdia dagoelako. Ikuskizuna amaitu eta argiak itzaltzen direnean ere, goizaldera arte gogor egin beharko dutela lan adierazi digu Valen Moñuxek.



Seussen mundua ikuskizuneko partaideak Oskorriko Natxo De Feliperekin, Bilbon lana estreinatzen zutenean.

ENEKO AZKARATE



La Txusma. GOIENKARIA

MUSIKA

Iskanbila eta La Txusmaren kontzertua

I.B. > ARRASATE

Bihar, zapatua, *Txiri*, *Zin* eta *Xaala*-ri omenaldia egingo diete Arrasateko 3.60 aretoan. Kontzertu omenaldia gauerdian hasiko da.

Txiri Arrasateko Iskanbila taldeko lehenengo abeslaria izan zen, eta *Zin* eta *Xaala* koadrila bereko lagunak. Hain zuzen, haiek gogoratze-ko omenaldiak egin izan dituzte azkeneko urteotan.

ASPALDIKO TALDEEN ITZULERA

Iskanbila punk-oi! taldeak arrakasta handia izan zuen 90eko hamarkada hasieran. Puñetazo eta Zakarrak taldeen irakaspenak jaso eta euskarazko kantuak idatzi zituzten. Besteak beste, *Jai...* eta *hil* disko luzea eta *Hay que machacar* singlea kaleratu zuten. Aspaldi utzi zioten zuzenean jotzeari, eta emanaldi bat egiteko elkartu dira.

Eurekin batera, La Txusma taldea bueltatuko da eszenatokietara. Heavya eta rock gogorra aldarrikatzen dituen Arrasateko beste talde horrek ez zuen inoiz diskorik grabatu, baina kontzertu oso biziak egin zituzten 90eko hamarkadan zehar. Bitxikeria moduan, taldekideetako bi (Oskar eta Patxi) aurretik Zakarrak punk-oi! taldeko partaideak izan ziren.

SARIKETA > JOKIN ZAITEGI LEHIAKETAREN XX. EDIZIOA

Pamuk-en eleberri bat itzultzeko sariketa

2006ko Literaturako Nobel Saria eskuratu duen Orhan Pamuk turkiarraren 'Kar' aukeratu dute

Interesatuak atal bat itzuli beharko dute eta irabazleak eleberri osoa 9.000 euroren truke

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Jokin Zaitegi sariketarak bere hogeigarrena beteko du aurten. Azkeneko urteotan AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak antolatzen dute elkarlanean, Kutzaren laguntzarekin. Sariketaren helburua da Arrasateko idazle horrek literatura unibertsala euskaratzen egingo ahaleginari jarraitzea.

Elkar argitaletxeak ekimenean esku hartzen duenetik, urteko Literatura Nobel saridunaren

liburua itzultzen dute. Eta aurten ere hala egingo dute.

ORHAN PAMUK NOBEL SARIA

2006an Suediako Akademiak Orhan Pamuk idazle turkiarrari eman dio Literaturako Nobel Saria. Hortaz, aurten idazle horren *Kar* (euskaraz, elurra) liburua itzuli beharko dute.

Hala, interesatuak liburu horren lehenengo atala euskaratu beharko dute, eta horren hiru

kopia bidali beharko dituzte AEDren egoitzara (Pablo Uranga 4, behe; 20500, Arrasate), 2006ko abenduaren 31 baino lehen.

Itzulpenarako jatorrizko hizkuntza turkiera da. Hortaz, euskal itzultzaile batek hizkuntza hori ezagutzea oso zaila denez, antolatzaileek testuak ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz jarriko dituzte eskuragarri honako webgunean: www.elkarlanean.com/jokinzaitegi. Era berean, bi hizkuntza erabiltzea gomendatzen dute.

Epaimahaiak aukeratutako itzulpenaren egileak 9.000 euroko saria jasoko du *Kar* eleberria itzultzeko. Itzultzaileak 2007ko irailean aurkeztu beharko du lana, eta Elkarrek Durangoko Azokan aurkeztuko du liburua.



GOIENKARIA

Valtierrako Banda eta Virgen de Nieva abesbatzaren emanaldia zapatuan

Bihar, zapatua, Valtierrako Bandak eta Virgen de Nieva abesbatzak kontzertua egingo dute 20:00etan. Emanaldia Oñatiko Mikel Goiaingeararen elizan izango da. Valtierrako Banda 1989an sortu zuten, eta Virgen de Nieva abesbatza 1994an.

Honako kantuak eskainiko dituzte zuzenean: *Caballeria ligera*, *El barberillo de Lavapies*, *Habanera*, *La tabernera del puerto*, *Haurtxoa sehaskan* eta *La Traviata*, besteak beste.

DANBAKA

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude:

danbaka.com webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZa; eta Espaloian jarritako kutxetan.

- 1 **DRAKES**
ONATI
Botoen %24,13
- 2 **KLAKSON**
ANTZUOLA-ZUMARRAGA
Botoen %19,45
- 3 **ABY-KEM**
BERGARA
Botoen %11,22
- 4 **UNNEA**
ONATI
Botoen %8,41
- 5 **SCAM**
ARETXABAETA
Botoen %8,14
- 6 **THE 5 TWISTERS**
ARRASATE
Botoen %7,19
- 7 **ANAL BAG**
ARRASATE
Botoen %4,6
- 8 **RAUL LASA**
ARRASATEI
Botoen %4,37
- 9 **OZEN**
ARRASATE
Botoen %3,23
- 10 **MALENKONIA**
ONATI
Botoen %2,70
- 11 **BELCEBLUES**
BERGARA
Botoen %2,32
- 12 **LITTLE, LITTLE, MUCH**
ARRASATE
Botoen %2,16
- 13 **AZKAITER PELOX**
BERGARA
Botoen %0,57
- 14 **MATX**
ELGETA
Botoen %0,57
- 15 **LOS CRETINOS**
ARRASATE
Botoen %0,45
- 16 **IGOR**
ARETXABAETA
Botoen %0,19
- 17 **JIM TNT & AMAIA**
ARRASATE
Botoen %0,15
- 18 **MAHASTER RIVER**
BERGARA
Botoen %0,07
- 19 **INALETRIK**
ARETXABAETA
Botoen %0
- 20 **YOTOX**
BERGARA
Botoen %0

DANBAKA))))))

ASTELEHENEKO GOIENKARIAn!

Danbaka-ko kontzertuen gaineko **informazio guztia** ASTELEHENEKO GOIENKARIAn:

kronikak, kritikak, iritziak, inkestak, taldeen inpresioak, argazkiak...
Eta baita ikuslearen sariaren gaineko sailkapen eguneratua.
Hori guztia eta gehiago... ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.

Erosi ASTELEHENEKO GOIENKARIA edo egin zaitetz harpidedun!

INFORMAZIO + www.danbaka.com

INMOBILIARIA
IBARGARAI 3 BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 97 97
www.inmokokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- S. Antonio 50 m². Berritua.
- Duplexa Ortuibar. Oso ondo.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- Angozar. Bi solairu. Berrituko.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Martoko 83 m². Prezio ona.
- Simon Arrietan 80 m². Berrituko.
- Ibargarai 87 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiare 65 m². Oso ondo.

Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon. 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.

Elgeta:

- Etxebizitza berrien eraikuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

Alfa
INMOBILIARIA
Hipotekas
Parrokia ondoan
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

ARRASATE:

- S. Josepe. 3 logela, egongela, sukaldia, kumuna. 25 m²-ko ganbara.
- Erguin. 2 logela, egongela, sukaldia eta kumuna
- Erguin. 3 logela, egongela, sukaldia, komun berritua. Kalitate ezin hobea.
- Makabena. 3 logela, egongela, jangela, kumuna, ganbara.
- S. Teresa. 3 logela, egongela, sukaldia eta kumuna, sotoa, berogailua, lehoiak
- S. Teresa. 3 logela, egongela, sukaldia, kumuna, sotoa. Oso eguzkitsua

ARETXABAleta

- Etxebizitza zoragarria lursailarekin.
- Marlole. Duplex paregabea, garajea, sotoa, trasteleku.
- Portasol. 3 logela, sukaldia, kumuna eta egongela.

ESKORTIAZA

- Baseri zoragarria. 7000 m²-ko lursaila. 450/700 ?

LBERTIO

- 2 baseri zoragarri eraiki berria • Duplex berria erdialdean.

1/ ETXEBIZITZAK
101. SALDU

Antzuola. Bi logela, egongela, bainugela, sukaldia, despentsa txikia. Atikoa da. Oso polita. Egoera onean. 141.000 euro, negoziagarriak. Deitu telefono honetara: 610 73 52 23.

Antzuola. Duplexa salgai Sagasti auzoan. Eraikin berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

Antzuola. Eguzki auzoan. Hiru logela, bi komun eta egongela-jangela handia ditu. Oso eguzkitsua. Igozailuarekin. Gavez deitu. 620 31 64 93.

Antzuola. Sagasti auzoan. Hiru logela, bi komun, egongela, sukaldia, despentsa, balkoia eta terraza. Garajea aukeran. 607 63 48 88.

Aretxabaleta. Markole kalean. 97 metro koadro. 649 66 49 70.

Arrasate. Otarora 2an. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sarzotzeko moduan. Deitu telefono honetara: 675 71 37 27.

Arrasate. Apartamentu berria salgai dago herri erdi-erdian. Egongela, logela bat, bainua, trasteleku, igogailua, berogailua. Oso polita. Deitu telefono honetara: 16:00etatik aurrera. 670 55 87 41.

Arrasate. Baserrira salgai dago Udala auzoan. Deitu telefono honetara: 655 71 84 02.

Arrasate. Etxebizitza salgai Ferrerri kalean. Teilatupea, 70 m². Bi logela, egongela eta sukaldia bat eginda, komuna eta bi trasteleku. Argitsua eta dena jantzita. 20:00etatik aurrera deitu. 943 79 54 81.

Arrasate. Etxebizitza salgai dago zerrajerak kalean. Hirugarren solairuan dago. 97,5 metro koadro ditu. Hiru logela, bi bainugela, eta hiru balkoi. Gainera garaje itxiarekin. Deitu telefono honetara: 605 77 58 64.

Bergara. Etxebizitza salgai San Pedro kalean. 605 73 37 39.

Bergara. Bidekurutzetako kalean, 50 m², guztiz jantzita eta berritua. 258.500 euro. Deitu telefono honetara: 699 65 48 34.

Bergara. Erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldia. Dena kanpoaldean, bista onekin. Solairu altua, igogailuarekin. Deitu telefono honetara: 620 18 59 06.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telef. Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA:

- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Oso ondo.
- Bolu 100 m². Ondo.
- Duplex berria. 72 m²+ 34 m².
- Zubiare 60 m². Oso ondo.
- Artelake 70 m². Oso ondo.
- Masterreka duplexa 170 m².
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Masterreka 74 m². Ondo.
- Angozar bi solairuko etxea. Berrituko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Masterreka 102. Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiare 62 m². Ondo.
- Mugertza. Duplex berria.
- Martoko 93 m². Berritua.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.

ANTZUOLA:

- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiarene kalean. Guztiz berritua. Hiru logela, balkoia, ganbara eta berogailua. Telefonoa: 943 28 76 36.

Bergara. Masterreka kalean etxebizitza salgai. 627 01 64 79.

Bergara. Simon Arrietan. 80m², berogailua, igogailua, guztiz berritua, garajea aukeran. Telefonoa: 664 73 49 60.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Hiru lokela, sukaldia eta komuna ditu, baita igogailua ere. Aukera ona da. 645 71 76 25.

Oñati. 86 m². Bidebarrietan, hiru logela, sukaldia, egongela, bi bainugela, ganbara eta garajea. 635 73 08 86.

Oñati. Etxea salgai San Lorentzon. Garajearekin eta ganbarekin. 656 74 80 47.

Oñati. Etxea salgai. Bigarren solairuan. 4 logela, 2 bainu, egongela handia, sukaldia eta trasteleku. 943 78 06 72 edo 646 95 80 62.

Oñati. Arantzazuko Ama kalean. 70 m². Bi logela, bi bainugela, egongela eta sukaldia, baita ganbara ere. Gavean deitu telefono honetara: 943 71 62 58.

Oñati. San Lorentzon etxea salgai. Garajearekin. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Ikasleentzako etxebizitza errentan. 3 logela, sukaldia eta komuna ditu. Telefono: 943 79 33 93.

Arrasate. Logela bat errentan ematen dute. Erdialdean. Deitu 19:00etatik 20:00etara bitartean. 943 79 87 59.

Vera (Almeria). Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzita (TB, garbigailua, mikrohuin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Hiru gazte etxea hartuko lukete errentan. 943 53 28 67.

Arrasaten. Estudio edo etxebizitza txiki bat errentan hartuko nuke. 690 06 36 20.

Bergara. Emakumeak etxea errentan hartuko luke. 654 07 39 95 edo 943 53 22 11.

Oñati. Etxebizitza txikia edo estudioa errentan hartuko nuke. 652 70 85 26.

105. ETXEA OSATU

Arrasate Etxea osatzeko bi neska behar ditugu. 618 08 20 36.

Arrasaten. Logela bat errentan hartuko nuke. Deitu telefono honetara: 609 06 36 20.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Garajea salduko nuke Kalegoian. 666 44 10 09.

Aretxabaleta. Garaje itxia salzten edo alokatzen dute erdialdean (Sta Cruz). 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

IRAGARKI SAILKATUAK
Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkiari ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

IRAGARKIA

Arrasateko Udal Plenoak, 2006ko urriaren 30ean egindako bilkuran, hasiera baten onartu zituen Biteriko Aparkalekuko Ustiapen Tarifak:

- Tarifa arrunta:** 0,030 €/minuto
- Tarifa bereziak:**
 - Hileko eguneko alokairu berritzagarria (8:30tik 20:30ra, astelohenetik larunbatera barne): 56,50 €
 - Hileko gaueko alokairu berritzagarria (20:30tik 8:30ra, astelohenetik larunbatera barne): 43,00 €
 - Asteko abonoa (24 ordu): 35,50 €
 - Hileko abono berritzagarria (24 ordu): 87,50 €

Tarifa horiek indarrean sartuko dira 2007ko urtarilaren 1ean, 2007 ekitaldi osorako. Horiek izango dira aipatu ekitaldian aplikatu beharreko gehieneko prezioak. Aurrekoa jendaurrain jartzen da HOGEITAMAR EGUNEZ, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Aipaturiko epean erreklamazioak epe ezean, aipaturiko Tarifak behin betikoz onartuztat hartuko dira.

Arrasate, 2006(e)ko azaroaren 2a
ALKATEA
Ignacio Lakunza Anton

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

ALKATEA

ARRASATE

Asteburuetarako banatzailea behar da.
615 78 44 16

Arrasate. Garaje plaza salgai (14 m²) Usaetxe plazan. Telefonoa: 665 71 40 34.

Bergara. Garaje itxia salgai Ibai-Ondon. 943 76 40 62.

Bergara. Garaje itxia salgai San Lorentzon. 943 76 40 05.

Arrasate. garaje itxia, 16 m² ditu. Erguin kalean dago. Copyprest ondoan. 669 49 49 46.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Sagastin garajea errentan ematen da. Telefonoa: 650 55 44 98.

Arrasate. Garaje itxi eta berria emango nuke errentan Legarain kalean. Gelmako aldapa eta Zigorrola arteko etxe berrietan. 635 73 17 39.

Arrasate. 16 metro koadro ditu. Larrea inguruan. Telefonoa: 695 78 47 97.

Arrasate. Bi autorentako garajea alokagai daukat Obenerrekan. 21:00etatik 22:00etara bitartean deitu. 943 79 69 41.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Eskortiatza. Bi etxabe salgai dauzat. Bata 95 metro koadrokoa eta bestea 60 metro koadrokoa. Udalak baimenduta dauka horietan etxebizitza egitea. 636 57 76 13.

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bulegoak errentan ematen dira Otalaran 18an. Uarkapeko arkupeetan. Telefonoa: 638 17 93 63.

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. 16 urteko gazte koadria batek lokala hartuko luke errentan, ahal bada, merke. 653 71 53 91.

BERGARA

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan zehaztatutako betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

- Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duena.
- Ekonomi jardueren gaineko zerga arautzen duena
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
- Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
- Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeko prezio publikoak arautzen dituena.
- Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
- Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeko tasak ezarrita dauden tasak arautzen dituena.

Hori guztia, Udaltzatza Osoak 2006ko urriaren 30eko bilera hartutako erabakiari jarraituz egiten da. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2007ko urtarilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan zehaztatutako erabaki bat etorriz, behin-behineko erabaki hau 30 lanegunetako jarriko da ikusgai jendaurrain Udaltzako iragarri taulan, interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki derizoten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arazuko epea erreklamaziorik gabe igarri ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiririk behin betirako onartuak izango dira akordio berriak hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2006ko urriak 31
ALKATEA

BERGARAKO UDALA

ARRASATE

Zerbitzaria behar da taberna baterako.
943 79 11 15

Bergara. Irakasle ikasketak egiten dabilen neska umeak zaintzeko gertu. 626 73 38 79.

Bergara. Neska euskalduna gertu umeekin lan egiteko arratsaldeetan. 606 65 98 42.

Bergara. Umeak edo adinekoren zaintzeko gertu emakume bat. Baita garbiketa lanak egiteko ere. 679 38 44 37.

Debagoiena. Emakume bat gertu etxeko lanak egiteko eta haurrak edo pertsona edadetuek zaintzeko. 677 84 60 21.

Debagoiena. Emakume prest dago etxeko lanak egiteko edota haurra zaintzeko. Telefonoa: 662 08 22 03.

Debagoiena. Neska gertu lan egiteko: garbitzen, nagusiak zaintzen, zerbitzari... Orduka, bertan bizi izaten ala kanpoko langile moduan. 663 46 93 60.

Debagoiena. Neska gertu tabernan lan egiteko, edo pertsona nagusiak zaintzen. 654 07 39 95.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 943 03 45 94.

Arrasaten edo inguruko herrietan. Esperientziadun emakumezko batek lan egiteko luke umeak edo perts onak nagusiak zaintzen, sukaldian laguntzen, garbiketara lanak egiten... Telefonoa: 679 38 44 37.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Hirugarren DBH mailan dabilen ikasle batek eskola partikularrak jaso nahi ditu etxean. Deitu telefono honetara: 943 76 55 77.

Ingeniaritzako lehen mailako ikasleak fisikako eskolak jasotzeko egubakoitze edo zapatuetan, zailtza argitzea. Deitu telefono honetara: 669 00 38 43.

DEBAGOIENA

Baserriko kiwiak salgai 10 kiloko kaxak
Oñatin:
943 78 18 32
Arrasaten:
943 79 17 79

502. EMAN

DBHko eskolak. Irakasle ikasketak dituen pertsonak DBHko 2. maila arteko eskola partikularrak emango lituzke. 650 23 34 98.

First eta EGA. Eskola partikularrak ematen ditut. 943 79 65 13 edo 650 41 72 40.

6/ MOTORRA

601. SALDU

AUDI A4. 1.9 TDI, diesela, 1999koa, 5 ate. Oso egoera onean. 667 61 74 43.

Voyager. Monobolumena. 2.5 SE T.D. 98ko modeloa, 7 eserleku. Oso ondo zaindua. 8.900 euro. 665 71 90 76.

Ford Focus. Diesela, 100 zaldi, bi urte, 68.000 km eta aire-giro-gailua. 607 91 31 80.

Ford Mondeo Trend. 5 urte dauzka, bete berriak. 80.000 km. 5 ate. Diesela. Oso ondo zaindua. Deitu telefono honetara: 630 90 71 67.

Golf GTI 3. 115 ZP, Eibach esekidurak, beira tindatuak, 3.300 euro. Deitu telefono honetara: 669 57 47 96.

Honda CBR 600 F motorra salgai. 1999koa. Aztertu berria. 45.000 km. Ihes-hodia, colin tapa eta marxa-adierazlea ditu. 4.500 euro. Deitu telefono honetara: 651 70 87 84.

Opel Astra 1.7 salgai. Diesela. 1995koa. 2.000 euro. Telefonoa: 686 67 17 38.

Opel Astra autoa saltzen dut. Turbodiesela. Ondo dago. 3.300 euro. Deitu telefono honetara: 647 29 93 44.

Peugeot 306. XSDT salgai. 1.9 turbo diesela. 1997. urte bukatzerako modeloa. Oso ondo zaindua eta egoera onean. 2.900 euro. Deitu telefono honetara: 677 98 42 98.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMINEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

BERGARA

Taberna errentan ematen da.
943 76 54 75

ARRASATE

Almacenes Arrasate enpresak administrazio eta salmentarako pertsona bat behar du.
943 77 00 34

BERGARA

Avenida tabernan sukaldaria behar da. Kontratuarekin.
943 76 20 46
656 78 12 04 (Iñigo)

Peugeot 806 autoa salgai. 6.000 euro. 605 72 17 34.

Peugeot Elyseo 50 Scooter motorra salgai. Egoera onean. 657 73 93 82.

Renault 19 1.4 salgai. SS-AS. 169.000 kilometro. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 943 77 04 50 edo 945 44 52 07.

Seat Ibiza 1.4. Ondo dago. 6 urte. 30.000 km. Beti garajeetan. 4.500 euro. Deitu telefono honetara: 670 49 62 19.

Trialeko kaskoa. NZI markakoa. Prezio interesgarria. Telefonoa: 645 72 24 25.

VFR 800i motorra salgai. Grista. Colin tapa motorraren kolore berekoa. 35.000 km. 1998koa. Maletarekin. Transmisio kit berria. 7.000 euro, negoziagarriak. Deitu telefono honetara: 615 76 38 43.

Volkswagen California 2.4 salgai dago. 1992koa. 9.000 euro. Jon. Deitu telefono honetara: 665 73 39 55.

Volkswagen Golf GTI salgai. SS-AG matrikuladuna, oso egoera onean, 1.500 euro. Deitu telefono honetara: 669 08 42 35.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Aretxabaleta. Antzinako altzariak salgai. Zaharberritu beharrean. 615 74 13 47.

hildakoak

- Irene Zabaleta Kortabarria. Oñatin, urriaren 21ean. 83 urte.
- Ignacio Herran Izarra. Bergaran, urriaren 26an. 93 urte.
- Mari Carmen Zengotitabengoa Mendigutxia. Bergaran, 27an. 64 urte.
- Soledad Arrieta Arrizabalaga. Bergaran, urriaren 27an. 88 urte.
- Dolores Perez Jimenez. Arrasaten, urriaren 28an. 83 urte.
- Julia Arregi Berasategi. Oñatin, urriaren 30ean. 92 urte.
- Cipriana Arizmendiarieta Ojanguren. Bergaran, urriaren 30ean. 92 urte.
- Juan Carlos Mancebo Sukia. Arrasaten, urriaren 30ean. 73 urte.
- Martina Trojaola Markaide. Aretxabaletan, azaroaren 3an. 84 urte.
- Antton Garate Umerez. Arrasaten, azaroaren 5ean. 86 urte.
- Juan Manuel Vicente Vicente. Aretxabaletan, azaroaren 5ean. 75 urte.
- Norberto Santiago Lanz Otero. Arrasaten, azaroaren 5ean. 85 urte.
- Ambrosio Moreno Macias. Aretxabaletan, azaroaren 5ean. 77urte.
- Hilaria Lopez de Bergara Ortueta. Arrasaten, azaroaren 6an. 81 urte.



Valentin Kalboetxeaga eta **Margari Cortada** bergararrak 1956ko azaroaren 10ean ezkondu ziren. Urrezko ezteiak azaroaren 11n, zapatuan, ospatuko dituzte familia arteko bazkari batekin. Zorionak bikote, eta muxu handi bana etxe-koen partetik!



Carmelo Martinez eta **Nieves Kalboetxeaga** bergararrak 1956ko azaroaren 10ean ezkondu ziren. Urrezko ezteien ospakizuna egingo dute azaroaren 12an, domekan, familiako eta lagunekin. Zorionak eta urte askotarako! Familia-koen eta lagunen partetik.

URTEURRENA

Felix Eugenio Eguren Agirrezabal

Leona Bengoaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Vicente Okina Salsamendi

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasateko **Denis Rodriguez** eta Zumarragako **Maria Ubarrtxea** zapatuan ezkonduko dira Urretxuko Lourdesko amabirjinaren elizan. Etxeberri jatetxean egingo dute bazkaria eta bidaian Tailandiara joango dira. Zorionak familia-koen eta koadrilakoen partetik!

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkari-tza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkarte: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22


Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.



Eskelaren prezioa: 85 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.



bila-bila 7



hitz gezidunak

	Haur hizke- ran, akabo!	Gizonezko izena	Etxeak egin
	Maliko herritar	Luzaz, luzaro	Argazkiko mendia
	Uzkerra		
	Landareak gara bota		
Arraanean egin	Karamelu		
Ipurdia	Arrisku		
		Moduak	
		Bizkaiko ibaia	
Geu			Nori atzikia
Haragi- saltzailea			Nihaur
			Berkelioa- ren ikurra
Orbana, orina		Euskal Telebista	
Baliorik ez duena		Azkena	
		Zareten hauek	

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Larritasuna

Zakur hau ero moduan dabil korrika batera eta bestera basamortu erdian. Arnasestuka eta zaunka egiteko ere gai ez dela geratu eta oihuka:
- Nekabendioro! Ez badiat zuhaitz bat bost minutu baino lehen aurkitzen, gainean egingo dut txiza.

Mamuak


Neskatoak mamua ikusi du eta:
- Barkatu, mamu jauna, baina sudurzapia erori zaizu. Eta mamuak:
- Ez da sudurzapia. Nire alaba da!

sudokua

5		9	1	6	7		3
	2		4	8			5
		5	3	1	2		
	3						4
		2	9	5	1		
	5		7	2			6
6		1	8	4	5		9

hieroglifoa

Zer da?




hizki salda

Debagoieneko 5 dorretxeren izenak

A	Z	E	H	U	O	I	J	Z
G	A	L	A	R	T	Z	A	U
O	E	D	I	M	A	I	R	M
S	N	U	A	R	L	O	I	E
A	A	D	H	L	O	E	N	L
L	G	A	B	I	R	I	A	Z
O	T	E	M	T	A	R	R	E
D	E	M	E	K	E	O	T	G
D	I	Z	P	I	N	T	E	I

soluzioak



K	E	U	Z	U	L	U	N
B	T	E	A	T	I	T	
	V	A	K	I	N	A	H
R	I	R	O	K	E	R	G
K	A	R	A	E	R	A	P
I	K	O	Z	G	O	B	
A	Z	T	P	U	T	Z	
R	I	A	R	M	A	L	
E	A	P					

bono fotoa



Zein da argazkiko auzoetako baten izena?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM IFA

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Isabel atun argia
3 latak packa (80g)

1,39 € 231 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Ainara Lazkanorendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Antzuola.

7	1	3	6	5	9	4	8	2
2	5	2	4	3	8	1	7	6
4	6	8	2	1	7	3	5	9
8	3	1	4	5	6	2	7	4
5	4	9	7	6	2	8	3	1
6	7	2	1	8	3	5	4	9
1	5	9	8	6	4	7	2	3
3	8	7	6	1	2	9	4	5
2	9	4	3	5	7	6	1	8

Jeroglifikoak: auskalo

I	E	N	P	Z	D	I	Z	O
G	O	E	K	E	M	E	K	E
R	E	A	T	M	T	E	M	T
Z	A	R	I	A	G	A	B	I
L	N	E	N	O	L	H	L	O
E	I	O	L	O	I	R	L	O
M	R	A	I	M	A	I	R	M
U	A	Z	A	R	T	Z	A	R
Z	I	O	H	U	A	Z	E	H



iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR 

40 ETXEBIZITZA SALGAI URIBARRIN 3. FASEA



www.sukia.com

 **943 79 20 48**

Informazioa eta salmenta:
ARRASATE Inbertsioak eta Zerbitzuak



AHOLKULARI INMOBILIARIOAK
ASESORES INMOBILIARIOS

Hodei Beitia > Des-Kontrol eta Arkada Social taldeetako baxu jotzailea

"Abesti zaharrak joko ditugu datorren astean egingo dugun azken kontzertuan"

Azaroaren 18an egingo du Arkada Social azkeneko kontzertua, JAM aretoan. Hala, Hodei Beitia gau erdi emango du taula gainean, Arkada Social ez gain Des-Kontrol taldearekin ere joko duelako. Gau berezia izango da, zale mordoa dituen taldeak agur esango duelako. Arrasateko 3.60 aretoan egin zuten azken kontzertuan, asko gertatu ziren kanpoan, sarrera barik.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Kontzertu horretaz gain beste gauza askoren gainean berba egiteko elkartu gara Hodeirekin. DAT tabernaren barra atzean lanean dabilela erantzun dugu galderok, kafe eta zerbeza artean.

Enpresaburu eta musikari, ez da aurkezpen txartel makala. Bai, baina ez dut neure burua enpresaburu ikusten. Musikari moduan ez dago bizi izaterik, eta lan egin behar...

Eta anaia eta biok zabilzate bi saltsatan, bai Des-Kontrolen, eta baita tabernan ere.

Des-Kontrola kasualitatez izan da, neu beste musika talde batean nabilelako. Lehenago, baina, Special Crew taldea sortu genuen, biok batera jotzeko, eta gero etorri zen Des-Kontrolen jotzeko aukera. Anaiari begira ikasi nuen baxua jotzen, hari begira, hark ez zidalako askorik erakusten (Barre). Eta tabernarena, neurri baten, geure aitarengatik izan da; hark animatu gintuen.

Zale mordoa dituen musika taldea uztekoan zaudete. Ez da normalena.

Ez, egia da, eta pena ematen du. Aspaldi erabaki genuen taldea uztea, eta, neurri batean, diskoa ere horregatik grabatu genuen, agur gisa. Azkenean, beste gauza bat gehiago da, beste ardura bat, eta ezin da dena batera egin.

Zer dauka, bada, Arkada Social taldeak?

Guk geuk ere ez dakigu ondo. Egia esateko, gure kontzertuetara 50 lagun joaten ziren, ez gehiago. Eta, diskoa atera eta agur esan genuenean hasi ziren gazteak gure musikagatik interesatzen. Diskoa atera eta Eskoriatzan egin genuen kontzertua, eta goraino bete zen gaztetxea. Ordurako, baina, erabakita geneukan taldea utzi egin behar genuela. Hala, gazte askok ez gaituzte jotzen ikusi.

Eta horregatik izan zuten Monterongo eta 3.60 aretoko kontzertuek horrenbesteko arrakasta?

Horregatik izango da. Monteronen harrizta geratu ginen, baina gurekin batera beste talde batzuek ere jotzen zuten, tartean, Antinowhere League taldeak. 3.60 aretoko kontzertua, baina, sekulakoa izan zen. Jendea kanpoan geratu zen, eta horregatik erabaki genuen beste kontzertu bat egitea, azkena.



XABIER URTZELAI

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Mekanizazio modulua, eta ia-ia beste modulu bat (Barre). Gero, sukaldari lan egiteko kurtso bat egin nuen. **Arrasateko txoko bat:** Lehengo klaustroak! **Musika talde bat?** American Static. **Musikari bat?** Matt Breed, Ran-

cid taldeko baxu-jotzailea. **Amets bat?** Zinema-zuzendari izatea. **Betetako amets bat?** Des-Kontrol taldean igarotako ia bi urteak. **Mania bat?** Ba, seguruenek, galdera horri geure amak erantzun dizu hobeto. **Gizadiaren asmakizun onena?** Rock-and-rollera.

Datorren zapatuan egingo duzue kontzertu hori. Aurreratu zerbait.

Des-Kontrol, Anti Sozial eta Enboskada taldeek joko dute gurekin batera. Lagun artean egindako kontzertua izango da, eta abesti zaharrak joko ditugu. Azken batean, lau taldeok batera jo zuten sasoi gogorazazi gura dugu.

Kontzertu hori alde batera utzita, nondik antzematen da inozo bat lehenago, barra atzetik ala eszenatoki gaineratik?

Egia esateko, bi lekuetatik antzematen da nor den inozoa. Barra ostean egoten den jendea eta kontzertuetara etortzen direnak, gehienak, ezagunak izaten dira. Noski, horrek ez du esan gura ezagunen artean ere ez dagoenik inozorik.

Goizaldean kontzertuko trasteak jasotzea, ala ordu horretan taberna batzen hastea? Zer da gogorragoa?

Uf! Ez dut sekula horretan pentsatu... Neuk kontzertuko trasteak batzea aukeratu nuke, ezkutatzeak aukera handiagoa egoten da-eta (Barre).

Des-Kontrolera bueltatuta, talde horretan nork galtzen du lehenengo kontrola?

Neurri batean, denok. Baina, akaso, *Peter* izango da guztion artean okerrera (Barre).

Zertan dabil orain taldea?

Taldeko abeslari Unamunori ebakuntza egin diote, eta lasaigo gabilta. Abesti berriak sortzen ari gara, *split*-erdibana egiten den diskoa-berri bat gertatzen gabilta. Eta gogoan daukagu datorren urtean AEBetan egingo dugun bira ere.

Ze alde dago Des-Kontrol eta Arkada Social taldeen arteko musikan?

Ez da erraza erantzutea. Arkada Socialen neuk egiten nituen abesti asko, eta Des-Kontrolen anaiak ere beste asko. Esango nuke nire erritmoak anaiarenak baino tristeagoak direla, Des-Kontrolak bizkorrago jotzen duela. Azken batean, jende ezberdinez osatutako taldeak dira; horixe da musika aldetik dagoen ezberdintasuna.

Taberna eta entseatzeko lokala alde batera utzita, non aurkituko dugu Hodei?

Uf! Ba... ez dakit. Seguruenek, beste tabernaren batean.

HEDABIDEAK > 'BERRIA' EGUNKARIAREN ESTILO LIBURUA KALEAN DA

'Berria'-ren estilo liburua erakutsiko dute gaur HUHEZIn

'Berria' egunkariaren estilo liburua aurkeztuko dute eguenean Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan, eta HUHEZIn erakutsiko dute gaur arratsaldean


ENEKO AZKARATE > ESKORIATZA

Aurkezpena liburua egiten jardun duen taldearen koordinatzaileak, Irene Arraratsek, egingo du.

Liburua dagoeneko kalean da eta ohiko tokietan eskura daiteke 25 euroren truke; *Berria*-ko harpidedunek 20 eurotan. Izan ere, liburua, *Berria*-ko langileendako ez ezik, euskaraz lanean diharduen kazetari orrendako da egokia. "Euskarari eta hizkuntzaren normalizazioari egindako ekarpena ez ezik, euskarazko kazetaritzari eginikoa nabarmendu behar da. Euskal kazeta estiloaren lanketan, orain arte egin den lan serioena eta sistematikoena da; begi-bistakoa den testu produkzioagatik ez ezik, baita egindako lanaren sistematizazioagatik ere". Liburuaren egileetako baten, Beatriz Zabalondo elgetarraren, hitzak dira. Beatriz Zabalondo HUHEZIn irakasle da gaur egun. Harekin batera, hauek jardun dute liburua egiten: Jose Luis Aranguren *Txiliku*, Arkaitz Goikoetxea eta Irene Arrarats; azken hori, esan bezala, koordinazio lanetan.

KAZETARITZA MODU BERRIAK

Estilo liburuak hedabideetako lan tresnak dira, hedabide bakoitzak berea antolatzen du, eta bere langileek -kazetariak, argazkilariak, kolaboratzaileak...- baliatzen dute eguneroko lanean. Hedabide bakoitzak berak ezarritako irizpideei jarraituta antola-



NEURRIRA EGINA *Berria*-ren estilo liburuaren azala.

GOIENKARIA

tu eta eratutako lan tresna eraginkorra da estilo liburu bat. "Baina *Berria*-ren estilo liburua ez da arau bilduma hutsa. Idazten dutenendako lagungarri izateko asmoz egindako liburu bat da, batez ere komunikazio argiaren eta idazkera erakargarriaren zerbitzuan", dio Beatriz Zabalondok. Haren esanetan, "*Euskaldunon Egunkaria*-ren estilo liburuetatik haratago joan nahi izan da: edukietan, batik bat; baita obraren egituraketa eta kontzeptualizazioan ere".

Egileak saiatu dira estilo liburuak lagungarria izaten *Berria* egunkaria ere erakargarria izan dadin. Erakargarria, batez ere, bi aldetatik: batetik, kazetaritza aldetik, eta, bestetik, idazkera aldetik. "Horregatik, kazetaritza modu berritzaileak bultzatzen saiatu gara, informazioa eta interpretazioa uztartzen dituztenak, eta idazkera bizia eta bizigarria proposatu nahi dugu: idazkera argia, zehatza eta, aldi berean, irakurlearentzat zozagarriagoa izan dena", esan digu.

teknologia berriak

> ERLOJUA

Maila askotariko kirolariendako espresuki diseinatutako GPSdun erlojuja

Erloju horrek sentikortasun handiko GPS argailu bat du, satelliteak era azkarrean hartzeko zuhaitz eta eraikin garaie azpien artean ere dabilena.

Bihotz-erritmo monitorizazioa, grabatutako ibilbideak deskargatzeko ahalmena eta aurreko entrenamenduekin lehiatzeko funtzioak ditu, beste batzuen artean.

Bada, Forerunner 305 erlojuak hamar orduko autonomia dauka eta bere prezioa 600 euro inguru da.



Forerunner 305 erlojuaren pantaila pertsonalizatu egin daiteke 12 datu filtrarekin eta hiru pantaila datuarekin.

> MP3 IRAKURGAILUA

Hiesaren aurka dirua batzeko, Appleren iPod Nano edizio berezia gorri kolorean

Ez da produktu berria, karkasa gorridun iPod Nano edizio berezia baizik. iPod Nano (PRODUCT)RED du izena eta U2 taldeko Bono abeslariak sortutako hiesaren aurkako fundazioa diruz lagunduko du. 4 GB eta 8 GB-ko memoriarekin eskuragarri dago. Saldutako unitate bakoitzeko hamar dolar emango dute Afrikan hiesaren aurkako fondo globalerako. iPod solidarioa, beraz. Kanpainaren informazio gehiago: <http://joinred.com>



Kolorea da aldatzen den gauza bakarra, beste guztia lehengoa bezala da.

> BIDEOKAMERAK

Panasonic HDC-SD1, AVCHD formatua erabiltzen duen bideokamerarik txikiena

Panasonic etxeak HDC-SD1-en berri eman du, AVCHD (Advanced Video Codec High Definition) formatua erabiltzen duen bideokamera.

Bereizmen handiko bideoa grabatzeko gai da 3CCD-ko sentsorea erabiliz. Bateriak 65 ordu inguru irauten du etengabeko grabaketan. 4GB-ko SDHC txartela, Leica 12x zoom optikoa, HDMI irteera, USB ataka, hiru hazbeteko (pulgada) LCD pantaila eta Dolby 5.1 jasaten ditu.

Gabonetarako aterako dute eta bere prezioa 1.600 euro inguru izango da.



Nahiz eta bideokamera txikia den, bateriak 65 ordu irauten du etengabeko grabaketan.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
azabarte@goiena.com
943 76 92 70

- Eta baita ere:
- www.aizue.com
 - www.litura.com
 - www.baster-aldejetetxea.com
 - www.ehmff.com
 - www.gelatzu.com
 - www.haurtxoa.com
 - www.klorofila.com
 - www.landaluze.com
 - www.uxarte.net



Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/briz-aseguruak	/ekilore	/gertu	/joseba	/ohiak	/udalatz
/aebpn	/BZ-sistemas	/elejalde	/gorkagarai	/korozabaleta	/ogizun	/udalaitz
/aretxargi	/drag-oriental	/ezkutuorly	/gorkataxi	/markiegi	/okipark	/urdeki
/argi-plastik	/gallastegi	/galgorri	/gurea	/maulanda	/otzeta	/urbietia
/arregi	/ganesha	/gallastegi	/guztizeder	/mayte	/pando	/vitoria
/atai	/garaia	/ganesha	/hamaika	/merkeopari	/richimaier	/ziripot
/azkarate		/garaia	/irudisport	/multipticas	/tabernaberi	

berriak

> PROGRAMAZIOA

Conxita talde kataluniarraren diskoa irabazi nahi?

Didjeridu saioak astero disko baten bost ale zozketatzen ditu. Aste honetan Conxita taldearen *Amb Ietra petita* diskoa irabaz dezakezue. Parte hartzeko, bidali SMS mezua 5767 zenbakira. Eta idatzi beharrekoa: *Tokiko* (hutsunea) eta astean zozketatzen den taldearen izena; aste honetan *Conxita*. Jasotako mezu guztien artean zozketatuko dituzte bost ale. Aste-ro zozketa berria!

> PROGRAMAZIOA

Oñatiko alkatea elkarrizketatuko dute 'Debarri' saioan

Aste honetan hasi da *Debarri* saioaren denboraldi berria Goiena Telebistan. Datorren eguaztenean, 21:15ean, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatearen txanda izango da. Alkateak herritarrek egindako galderak erantzungo ditu saioan. Zuk ere galdera egin nahi baduzu, sartu www.goiena.net/webgunean eta egin zure galdera, edo, bestela, deitu 943 71 23 96 telefono zenbakira.

>ARRASATE IRRATIA

Kultura eta futbol kontuak 'Asteko Gainbegiratu'-n

Iñigo Arregi Arrasateko eskulturagilearekin Gasteizen daukan erakusketaren gainean jardun dugu asteon. Mikel Gonzalez Realeko jokalaririk, berriz, asteon jokatu-tako partiduaren gainean egin digu berba. Eta Jon Garai Kultura teknikariak kultura etxe berria aurkeztu digu.

Solasaldi horiek guztiak asteburuan berreskuratuko ditugu; horrela, bada, astearen laburpena izango duzue.

> ARRASATE IRRATIA

Matx eta Malenkonian asteburuko 'Danbaka' saioan entzungai

Matx elgetarrarekin ekingo diogu asteburu honetako *Danbaka* saioari. Azaroaren 3an Elgetako Espaloia antzokian eskainitako kontzertuaz gozatzeko aukera izango duzue, eta baita bakarlariarekin izandako solasaldiaz ere.

Domekan, berriz, Oñatiko Malenkonian taldeak hartuko du lekukoa. Iñigo eta Iñaki taldekideen azalpenak eskainiko dizkizuegu lehenengo eta joan den egubakoitzeko kontzertua izango duzue gero.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 21:15

Martxelo Rubio aktorearekin solasean 'Ilunpean' saioan

'27 ordu' filmarekin ezagutu genuen gehienok; gaur egun beste bi filmetan dihardu lanean

GOIENKARIA > ARRASATE

Gaur bertan elkarrizketatuko du Oihana Elortza kazetari oñatiarrak Martxelo Rubio aktorea *Ilunpean* saioan, 22:15ean. Kasualitatez izan zen *27 ordu* filmeko aktore, baina gustatu egin zitzaion esperientzia eta Madrilera joan zen interpretazioaren inguruko ikasketak egitera. Hala, handik bueltan, besteak beste *Goenkale* telesailan ikusi ahal izan dugu. Gaur egun, 40 urte beteta, Madril eta Donostia artean bizi da Martxelo Rubio. Orain gure artean dabil, bi film grabatzen ari baita: bata Donostian eta bestea Bilbon.



IBILBIDE LUZEA 27 ordu egin zuenetik lan askotan hartu du parte Rubiok. o.e.

'ERREPORTAJEA' > ASTELEHENA 21:45

'Arientzako behi baten memoriak' erreportajea eskainiko digute

GOIENKARIA > ARRASATE

Astelehenean 21:45ean eskainiko digute *Arientzako behi baten memoriak* izenburupean datarren erreportajea. Aretxabaletako Arientza auzoan bizi dira Abasolotarrak. Bi anaiaren artean, aitak utzitako behien nego-

zioarekin aurrera egin dute. Esne ekoizpena asko aldatu da; teknologia berriek ekoizpen prozesuan aldaketa ugari ekarri dituzte: esnea batzeko robotak erabiltzen dituzte, behien gaixotasunak kontrolatzeko ordenagailuak... Horrek guzti horrek

abantaila ugari ekarri diete eguneroko lanean, baina hala ere inbertsio handia egitea eskatu du. Esne ekoizpenaren sektorea kolokan izan da askotan; edozein ere, Julen Abasolo baikorra da. Sakrifizio handiko lana izan arren, gustura dago.

Erreportajeak esne ekoizpenaren prozesu guztia erakutsiko dizue; goizeko seietan hasten dira Etxebarri baserrian lanean, orduan joaten da kamioia esnea batzera. Gero, jaten eman, azpiak garbitu, zelaira atera... Abasolotarren behiek ez dute oporrik hartzen!

telebegi

Unai Moraza > www.eibar.org/blogak/telezaborra

Telebista eta ni

TVEk 50 urte bete berri ditu, nik 29 urte uztailean. Atzera begiratuta... denboran kokatu ditzakedan lehen oroitzapen telebisiboak 1982koak dira. Naranjitoaren marrazki bizidunak eta Mundiala.

Ez naiz bakarria izango antzinako oroitzapenak horrelako gertakariei esker kokatzen dituen. 1984: Los Angelesko Olinpiaden irekiera ekitaldiarekin akordatzan naiz. Umetxo bat nintzen, eta gizonezko batzuk hegan egiten ikusi nituen. Geroago jakingo nuen tranpa zegoela, bizkarrean motor bat zutela. 1986. urtea: arratsaldean telebista ikusten ari nintzen, eta emisioa moztu egin zuten Challengerraren ezteandaren berri emateko. ETB1en jaiotza ez dut gogoratzen, baina ETB2rena bai, telebista-aparailuan erruletarekin buelta eta buelta kate berria sintonizatzen. Kate pribatuaren etorrera. Inork ikusten ez zuen Antena3 kutrea. Nerabeontzako propio egina zirudien Teta5 dibertigarria. Canal+, ostiraleko film pornoarekin.

Eta bukatzeko, nire belaunaldiak telebistan inoiz ikusiko duen ikuskizunik handiena, irailaren 11.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. Iñigo Arregi eskulturagilea; Mikel Gonzalez Realeko jokalaria; Valen Moñuxekin *Seussen mundua* ikuskizuna berbagai, Zigor Masip, Jon Garai Kultura teknikaria...
16:00 Danbaka: Matx.
23:00 Danbaka: Matx.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.
16:00 Danbaka: Malenkonian.
23:00 Danbaka: Malenkonian.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko
programazioa**Egubakoitza, 10**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka-Malenkonian. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu: Marta Bermejo. 16:15 Mandio. 16:45 Albisteak. 17:15 Bihurkorra. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Debarri-Aretxabaleta. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Hitz bitan. 22:15 Ilunpean-Martxelo Rubio. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 11

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorra eta Snorkeldarrak. 11:00 Ikusmira. 11:30 Jazmina. 12:00 Astekoak. 12:15 Bizitegia. 12:30 Didjeridu-Marta Bermejo. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Debarri-Aretxabaleta. 14:30 Danbaka. 15:00 Teknopolis. 15:30 Hitz bitan. 16:00 Erreportajea. 16:30 Ilunpean-Martxelo Rubio. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@. 20:00 16mm. 20:30 Didjeridu. 21:00 Berbaire. 21:30 Danbaka. 22:00 Astekoak. 22:15 Bizitegia. 22:30 Ilunpean-Martxelo Rubio. 23:00 Erreportajea. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 12

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Snorkeldarrak, Nonochan eta Bihurkorra. 11:00 Mandio. 11:30 Erreportajea: Euskalduna (izango) naiz. 12:00 Danbaka. 13:00 Gatza eta berakatza. 13:30 Berbaire. 14:00 Astekoak. 14:15 Bizitegia. 14:30 Didjeridu. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazmina. 18:30 Hitz bitan. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Astekoak. 20:15 Bizitegia. 20:30 Ilunpean. 21:00 Debarri-Aretxabaleta. 22:00 Erreportajea. 22:30 Didjeridu. 23:00 16mm. 23:30 Danbaka. 23:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 13

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Hitz bitan. 14:45 Albisteak. 15:15 Ilunpean-Martxelo Rubio. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Gatza ta berakatza. 16:00 MKT. 16:15 Jazmina. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:15 Danbaka. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea: Arientzako behi baten historia. 22:15 Hasiberriak. 23:15 Didjeridu-Marta Bermejo. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 14

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Erreportajea: Arientzako behi baten historia. 14:45 Albisteak. 15:00 Didjeridu: Marta Bermejo. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean-Martxelo Rubio. 18:15 Gatza ta berakatza. 18:30 MKT. 18:45 Albisteak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Belceblues. 22:15 16mm. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Harmailatik. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 15

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka-Belceblues. 14:45 Albisteak. 15:15 16mm. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Hitz bitan. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Erreportajea: Arientzako behi baten historia. 18:45 Albisteak. 19:15 Danbaka. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorra. 20:45 Berriak. 21:15 Debarri-Oñati. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Debarri-Oñati. 22:15 Hasiberriak. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 16

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Debarri-Oñati. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Erreportajea. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 16mm. 18:45 Albisteak. 19:15 Gatza ta berakatza. 19:30 MKT. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Aby kem. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.



DANBAKA))))

DEBAGOIENeko II. MUSIKA LEHIAKETA

1. KONTZERTUA
AZAROAK
17
Egubakoitza | 22:30
Elgetako Kafe Antzokia

IGOR
ARRASATE

MAHASTER RIVER
BERGARA

LOS CRETINOS
ARRASATE

YOTOX
BERGARA



KAMISETAK SALGAI!

INFORMAZIO +
www.danbaka.com

Azaroak 10-17

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



ELGETA

> 'Erreleboa' antzezlan arrakastatsua antzertuko dute gaur, egubakoitza

Erreleboa antzezlan komikoa ikusteko aukera izango da Espaloia antzokian, 22:30ean. Soldadutzaren gaineko parodia da. Algecirasen elkar ezagutu dute bi euskaldunek, bata soldadutza hasi berri eta bestea laster bukatzeko.

Kontzertua




BERGARA

> Antzinako UFO heavy taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan

Heavy musikazaleen aspaldiko ezaguna da UFO taldea. Disko berriarekin datoz, irailen ateratakoa: *The monkey puzzle*. Gainera, Andy Parker hasierako bateria-jolea taldera itzuli da. Gaur, egubakoitza, da kontzertua, 21:00etan.

Kontzertua



OÑATI

> Valtierako musika bandak eta abesbatzak emanaldia egingo dute parrokian

Valtierako seme-alaba asko bizi dira Oñatin, eta asteburu honetan, hango musika banda eta Virgen de Nieva abesbatza ere herria izango dira. Bihar, zapatua, emanaldia egingo dute parrokian, 20:00etan.

ARRASATE

> Bideoklip emanaldia eta kontzertuak, 3.60 aretoan

Honako emanaldiak izango dira 3.60 aretoan: bideoklip gaua (gaur, egubakoitza, 23:00etan) eta Txiri, Zin eta Xaala omenaldi kontzertua Iskanbila eta Txusmarekin (bihar, zapatua, gauerdian).

Kontzertu bukaeran, Mansilla rock-and-rollen emanaldia egongo da.

BERGARA

> Conflict Noise eta Nova taldeek kontzertua egingo dute

Conflict Noise (Bilbo) eta Nova (Lezo) taldeek musika emanaldia egingo dute gaztetxean. Metal estiloa egiten dute biek.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

Ikuskizunak

BERGARA

> 'Seussen mundua' musika ikuskizuna egingo dute

Seussen mundua ikuskizuna taularatuko du Bergarako Orfeoak bihar, zapatua. Sarrerak erosteko aukera dago kultura etxean; sarrerak agortuz gero, egunean ez dute txarteldegia irekiko.

Bihar, zapatua, pilotalekuan, 19:30ean eta 22:30ean.

ARETXABALETA

> Brasilgo egoeraren gaineko diapositiba emanaldia

Brasilgo egoeraren inguruko diapositiba emanaldia egingo du Iñaki Arnaiz aretxabaletarrek.

Eguenean, hilak 16, udaletxe zaharrian, 19:00etan.

Ospakizunak

BERGARA

> Gaztainerre eguna ospatuko dute San Martin eskolan

Gaztainerre eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza, San Martin herri eskolan. Ikasle eta irakasleak patioan batuko dira 16:00etan gaztainerre jateko.

16:30ean, nahi duten guztiak joan daitezke festan parte hartzera.

Bestelakoak

ESKORIATZA

> Umeendako taldeko jolasak eta tailerrak bihar, zapatua

Bihar, zapatua, taldeko jolasak izango dituzte 3 eta 6 urte bitarteko umeek ludoteketan; bestetik, gaztelekuko erabiltzaileek fimo tailerren parte hartzeko aukera izango dute aste bukaera osoan, bitxiak egiten ikasteko.

Taldeko jolasak bihar, zapatua, izango dira; tailerrak, zapatuan eta domekan.

Erakusketak

ANTZUOLA

> Argazki lehiaketara aurkeztu dituzten lanen erakusketa

Antzuolako argazki lehiaketako lanak ikusteko aukera izango da. Horrez gain, formatu digitalean aurkeztu duten argazki gustukoenari botoa emateko eta sariduna aukeratzeko aukera dute herritarrek.

Erakusketa asteburuan egongo da zabalik, eta domekan, 19:00etan, jakinaraziko dituzte irabazleen izenak.

DONOSTIA

> Idoia Azkarate bergararrak erakusketa ipini du

Idoia Azkarate margolari bergararrak erakusketa dauka Donostiako Kursaal kafetegian.

Azaroaren 30era arte dago zabalik.

ARRASATE

> Jon Fernandez de Arroiaberen margo erakusketa

Margolan erakusketa dauka Jon Fernandez de Arroiabek Harresi aretoan, honako bisita ordutegian: astegunetan, 18:00-20:00; zapatua eta jaiegunetan, horrez gain, 12:00-14:00.

Hilaren 26ra arte dago zabalik erakusketa.

ARRASATE

> Saharako kanpalekuen gaineko argazki erakusketa

*Sahara, kanpamentuetara bidai*a izeneko argazki erakusketa antolatu dute Arizmendi eta Txantxiku ikastolek eta Nubi elkarteak. Monterronen dago, eta gaur, egubakoitza, da azken bisita eguna.

16:00etatik 20:00etara dago zabalik.

BERGARA

> Miguel Okinaren margolan erakusketa Aroztegi aretoan

Miguel Okina margolari bergararrak *Bizitza bat margoari eskainia* izeneko artelan

erakusketa dauka Aroztegi aretoan.

Hauze da bisita ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30, zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30, eta domekan, 12:00-14:00.

Erakusketa zabalik egongo da azaroaren 26ra bitartean.

Antzerkia

OÑATI

> 'Artea' antzezlan egingo du Txalo taldeak bihar, zapatua

Yasmina Rezak idatzitako *Artea* antzezlan egingo du Txalo antzerki taldeak. Ramon Agirre, Joseba Apaolatza eta Asier Hormaza dira aktoreak, eta margolan bitxi batek hiru lagun arteko harremana zelan aldatzen duen kontatzen du antzezlanak.

Bihar, zapatua, Santa Anan, 22:30ean.

Lehiaketak

ESKORIATZA, LEINTZ GATZAGA

> Gabonetako marrazki lehiaketa 6-12 urte bitartekoendako

Eskoriatzan eta Gatzagan bizi diren 6-12 urte bitarteko umeek Gabonetako marrazki lehiaketan parte har dezakete. Norberak marrazki bakarra aurkez dezake. Maila bakoitzeko sari bat zozketatuko dute. Marrazkiak abenduaren 5a baino lehen entregatu behar dira ludoteketan edo liburutegietan.

Marrazkiekin erakusketa egingo dute Gabonetan.

ESKORIATZA

> Udal Liburutegiko orri-puntua aukeratzeko lehiaketa dago

Liburutegiak datorren urtean erabiliko duen orri-puntua aukeratzeko lehiaketan parte har daitezke 21 x 5,50 cm-

ko lanekin, gai eta teknika libreak. Lanak liburutegian entregatu behar dira azaroaren 30a baino lehen.

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

Musika

ELGETA

> Danbakako hirugarren kontzerturako sarrerak

Honako taldeek joko dute Danbakako hirugarren emanaldian, azaroaren 17an: Igor (Aretxabaleta), Mahaster River (Bergara), Los Cretinos (Arrasate) eta Yotox (Bergara). Sarrerak eta abonua erosteko aukera dago Gaztekutxaren bidez, Espaloia antzokian edo Goienako egoitzetan, eta halaber 902 36 38 51 telefonora deituta. Danbakako kamisetak ere eros daitezke.

Argibide gehiago: www.danbaka.com.

PROPOSAMENA

LEINTZ GATZAGA

> San Milixaneko azoka egingo dute etzi, domeka

San Milixanak ospatuko dituzte gatzagarrek etzi, domeka, eta XIV. Langintzen Feria antolatu dute. Hamahiru postu izango ditu: loreak, belarritakoak eta eskumuturrekoak; egur-lanak; zilarrezko bitxiak, kandelak, artisau gozogintza, diseinua eta kamiseten serigrafia, egurrezko jostailuak, egur berezia lantzekoa, *patchwork*-a, zeramika, ehule-lanak, euskal buztingintza eta xaboi naturalak.

Azoka zabalik egongo da 10:00etatik 15:00etara.



nire aukera



Olga Jauregi
Liburuzaina
Aramaio

"Herri polita dugu, eta hemen paseatzen dugu"

Asteburuan, familiarekin mendira bueltatxo bat ematera joatea gustatzen zait. Aramaion eta inguruan ibiltzen gara, herri politean bizi gara-eta, hemen gustura ibiltzen gara pasean. Eguraldi txarra egiten duenean, txamarra ona jantzi eta berdin-berdin irteten gara. Oporrak ditugunean, Pirinioetara, Galiziara, Nafarroara... irteten gara.

Irakurtzea ere gustatzen zait, noski, ahal dudan neurrian. Irakurtzen saiatzen naiz gauean, beste guztiak ohera joan direnean.

Ze liburu irakurri duzu azkeneko?

Hain boladan dagoen *La catedral del mar*. Ondo dago. Denetarik irakurtzen dut: euskaraz, gaztelaniaz, umeen liburuak... *El código Da Vinci* famatua ere irakurri nuen, baina gehiago gustatu zitzaidan Dan Brownen beste liburu bat, *Ángeles y demonios*.

Eguraldi txarrarekin ere mendira joaten zarete...

Bai, bai. Eta elurra egiten duenean, noizean behin, eskiatzera joatea ere gustatzen zaigu, familia osoaren gustua egiteko eta zaletasun hori ere asetzeko.

Aramaioko zein txoko duzu gustuko?

Dena gustatzen zait, baina aukeratu behar badut, Andra Mari aldean, Goiko Errota... oso inguru ederrak dira, eta orain, udazkenean, benetan polit daude.

Musikazalea bazara?

Bai, gustatzen zait musika, baina ez dut talde favoritarik. Ia denetarik gustatzen zait: betiko euskal abestiak, musika lasaia, baina baita martxa apurtxo bat ere. Unearekin doa.

Zinema

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

World Trade Center
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Ant bully
Domeka: 17:00.
Salvador
Eguena: 20:30.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Laberinto de pasiones
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Salvador
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Jorge el curioso
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Buenas noches y buena suerte
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Infiltrados
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

(Zehaztu gabeko filma)
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Infiltrados
17:00, 19:45, 22:30.
Los Borgia
19:45.
El destino
17:00, 22:30.
Colegas en el bosque
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Kutsidazu bidea, Ixabel
17:00, 22:30.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Laberinto de pasiones
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Salvador
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Jorge el curioso
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Buenas noches y buena suerte
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Infiltrados
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

(Zehaztu gabeko filma)
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Va a ser que nadie es perfecto
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.
Alatriste
23:00.
El diablo viste de Prada
16:30, 19:00, 22:15, 00:30.
Los Borgia
16:00, 19:00, 23:00.
Ellos
22:00, 00:30.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Laberinto de pasiones
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Salvador
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Jorge el curioso
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Buenas noches y buena suerte
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Infiltrados
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

(Zehaztu gabeko filma)
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
El corral
12:15, 16:15, 18:15.
La dalía negra
20:15, 22:35, 00:55.
Yo soy la Juani
12:15, 16:45, 18:45, 20:45.
Un buen año
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Laberinto de pasiones
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Salvador
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Jorge el curioso
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Buenas noches y buena suerte
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Infiltrados
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

(Zehaztu gabeko filma)
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

ÁBACO BOULEVARD

El corral
12:15, 16:20, 18:15, 20:15.
Colegas en el bosque
12:15, 16:15, 18:10, 20:05, 22:00, 00:30.
La dalía negra
19:45, 22:15, 00:45.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

Laberinto de pasiones
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Salvador
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Jorge el curioso
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Buenas noches y buena suerte
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Infiltrados
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

(Zehaztu gabeko filma)
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.



Scoop ***

Zuzendaria: Woody Allen.
Aktoreak: Scarlett Johansson, Hugh Jackman, Woody Allen.
Erresuma Batua, 2006.
96 min. Komedia.

Woody Allenek Londres lanean jarraitzen du. Oraingo honetan *Scoop*-ekin suspentsezko komedia arin eta dibertigarria eskaintzen digu. Magia eta manuak erabiltzen ditu suspentsezko istorioa martxan jartzeko, Woody Allen eta Scarlett Johanssonen artean sortzen diren harremanen bitartez komedia nabarmetzen da, eta Johansson eta Hugh Jackmanen artean dudaz beteriko amodio istorioa sortuko du.

Allenek ikuslea dibertitzea nahi du, ez da sakotasun gehiegitan sartzen: pertsonaiak eta argumentua nahiko azalekoak dira, ez du film konplexurik egin nahi, komedia arina baizik, eta hori ederki lortzen du. Magia, suspentsea eta amodio osagaiak trebetasunehar nahastuak daude koktel freskagarria osatzeko. Zuzendaria erritmo egokia ematen die eszenei; umoreak tarte kriminala baino pisu handiagoa du, eta horrela, xumea baina xarmaz beteriko filma lortzen du. Umorezko detektibe argumentuaren erabilpenak eta Allen eta Johanssonen arteko harremanek *Misterioso asesinato en Manhattan* gogorarazten dute, eta suspentsearen erabilpenak Hitchcocken filmak dakartzkigu burura. Hori bai, Allen maila apalagoan mugitzen da, ez da pertsonaien psikologiari hainbeste arduratzen. *Scoop*-en umorea nagusitzen bada, tentsio girorik ez da galtzen. Nabaritzen da zuzendaria dibertitu egin dela film hau egiten, eta dibertsio sentsazio hori ikusleari ere heltzen zaio.

Antonio Zabala

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

World Trade Center ***

AEB, 2006. Zuzendaria: Oliver Stone.
Aktoreak: Nicolas Cage, Michael Peña, Maggie Gyllenhaal.
129 min. Drama.

John eta Will New York hiriko Portu Aginteko polizia dira, eta 2001eko irailaren 11ko erasoetan hainbat lagun salbatu ondoren, Dorre Bikien hondamendian harrapatuta gelditzen dira. Benetako pertsonen esperientzian oinarrituta dago filma.

Un buen año ***

AEB, 2006. Zuzendaria: Ridley Scott.
Aktoreak: Russell Crowe, Albert Finney, Marion Cotillard.
118 min. Komedia.

Max Skinner inbertsioetan aditua da. Provenzara joaten da osab eredentzian utzi dion mahasti bat saltzera. Baina tramite hutsa hasi dena gozatzeko moduko abentura bilakatuko da.

Infiltrados ****

AEB, 2006. Zuzendaria: Martin Scorsese.
Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Matt Damon.
152 min. Thrillerra.

Bostoneko talde kriminal handiena sustatu nahian dabilza poliziak. Horretarako, euren burua, Frank Costello, harrapatu nahi dute. Billy Costigan poliziaz hasiberriari taldean infiltratzea agintzen diote.

Todos los hombres del rey ****

AEB-Alemania, 2006. Zuzendaria: Steven Zaillian.
Aktoreak: Sean Penn, Jude Law, Kate Winslet, James Gandolfini.
140 min. Drama.

1946ko Pulitzer saria irabazi zuen liburuan, Robert Warrenen *Todos los hombres del rey* delakoan, oinarritutako filma da. Louisianako estatuko politikan boterera iristen da idealista bat, baina ustelkeriak porrotu ekariko dio.

Optimistas ***

Serbia, 2006. Zuzendaria: Goran Paskaljevic.
Aktoreak: Lazar Ristovski, Bojana Novakovic.
95 min. Drama.

Bost istorio batzen ditu filmak, denak Voltaireren *Cándido* lanean oinarrituta. Leloa hauxe da: Dena gaizki doanean dena ondo doala esatearen mania, horixe da baikortasuna. Milosevicen

ondorengoko Serbian girotuta daude istorioak, eta itxaropenak eta benetako baikortasunak bat egiten dute itxaropen faltarekin eta faltukeriarekin.

Flicka

AEB-Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Michael Mayer.
Aktoreak: Alison Lohman, Tim McGraw, Maria Bello.
94 min. Drama.

Familiako tradizioari jarraituz, Wyomingeko arrantxoan zaldiekin lan egitea da Katy McLaughlin gaztekoaren ametsa. Mustang basati bat aurkituko du, Flicka izenekoa, eta zaldiketarako prestazten hasten da.

GAL *

Espainia-Frantzia, 2006. Zuzendaria: Miguel Courtois.
Aktoreak: José García, Natalia Verbeke, Jordi Mollá, Ana Álvarez.
111 min. Thrillerra.

Espainiar kazetari batzuek GALen konplotaren gaineko ikerketa egiten dute eta, hortik tiraka, 80ko hamarkadako Espainiako gobernuaren zati batek talde hori antolatuta eta finantzatu zuela deskubritzen da. Horrenbestez, 1994an

11 funtzionario auziperatu eta kondenatu zituzten horregatik.

Saw 3

AEB, 2006. Zuzendaria: Darren Lynn Bousman.
Aktoreak: Tobin Bell, Shawnee Smith, Angus Macfadyen.
107 min. Thrillerra, beldurrezkoa.
Amandarekin, ikasle berriarekin, jigsaw hiltzaileak ihes egin dio poliziariei eta desagertu egin da. Hiriko detektibeak bila ari zatazkion bitartean, Lynn Denlon doktorea eta Jeff Jigsawren joko krudeleko hurrengo pieza bihurtzera doa.

Ficción

Espainia, 2006. Zuzendaria: Cesc Gay.
Aktoreak: Eduard Fernández, Javier Cámara, Montse Germán.
105 min. Drama.

Álex zine zuzendaria da, ezkondua eta bi seme-alabarekin. Hurrengo filmeko hariak bukatu ezinean dabil, eta Santi izeneko lagunak Pirinotian duen etxera joaten da egun batzuk pasatzera. Han Mónica ezagutuko du, eta, apurka-apurka, maitemindu egingo dira. Baina emaztea eta seme-alabak bisitatzera joaten zaizkio...

OIHAN HONETAN...
EHIZTARIA HARRAPAKINA DA

COLEGAS EN EL BOSQUE

EROS EZAZU ZURE SARRERA
ETA PARTE HARTU TIGER SHARK
MARKAKO QUAD HAUTAKO
BATEN ZOZKETAN

Bidal ezazu film honen sarrera:
GRUPO ABACO, DPTO. MARKETING,
PARQUE TECNOLÓGICO,
C/ JUAN DE LA CIERVA, 12,
C.P.: 46580, PATERNA (VALENCIA)
REF. COLEGAS EN EL BOSQUE

www.colegasenelbosque.com

ABACO

© 2006 Columbia TriStar Marketing Group, Inc. All rights reserved.

Puzzleko azken piezak jartzen

PUZZLEZALEA Ainhoa Galfarsoro 36 urteko aretxabaletarra puzzlezale amorratua da txikitatik

ERRONKA Azken hilabeteotan erronka berri bat dauka esku artean: 18.000 piezako puzzlea osatzea

ZALETASUNA "Hobby' entretenigarria da niretzat eta orduak eta orduak eman ditzaket, aspertu barik", dio Galfarsorok

EDU MENDIBIL > ARETXABALETA

Puzzlezale amorratua da txikitatik Ainhoa Galfarsoro aretxabaletarra. Azken hilabeteotan erronka berri bat dauka esku artean, 18.000 piezako puzzlea osatzea, hain zuzen: "Maiatzaren 13an hasi nintzen puzzlearekin eta 152 egun eman ditut dagoeneko puzzlearekin. Orduak ez ditut zenbatu, baina dezente izango dira, bai. Dena dela, oso gustuko dut, *hobby* entretenigarria da niretzat eta orduak eta orduak eman ditzaket, aspertu barik".

Egunotan bukatzen ari den puzzlea Donostian erosi zuen, Alde Zaharreko denda baten. Munduko lau mapa ageri dira puzzlean (2,76x1,92 m), laukietan banatuta. Eskolan ikasitakoa berritzeko baliagarria gertatuko zitzaion, behinik behin, azken urteotan herrialde berriak sortu direlako han eta hemen. Esan bezala, azken txanpan ari da Galfarsoro: "Bukaerara iristean hasten da lanik zailena, antzerako pieza asko egoten direlako. Nahiko buruhauste izaten ditut batzuz-



BUKATZEAR Hasieran pentsatutakoa baino lehenago bukatuko du Ainhoak 18.000 piezako puzzlea osatzen.

MIRARI ALTUBE

tan... Pazientzia behar-beharrezkoa da puzzleekin aritzeko, zenbaitetan soluzioa topatzeak denbora eskatzen duelako. Dena dela, hurrengo asterako-edo puzzlea bukatzeko itzaropena daukat. Hasiara baten, abenduaren 31rako bukatzea zen asmoa, eta aise ibiliko naizela uste dut...". Beraz, lagun batzuekin jokaturako afaria badirudi irabazi egingo duela Galfarsorok.

PUZZLE UGARI ETXEAN

Honako hau izango da 18.000 piezako bigarren puzzlea Galfarsororentzat. Aurretik, 10.000, 9.000 eta 8.000 piezako puzzleak ere eginak ditu. Baina gero eta erronka zailagoei aurre egitea da kontua, hala gozatzen delako gehien. Puzzle mordoa dauzka etxean, baina behin osatuta, desegin egiten ditu. "Etxean ni naiz puzzleak egiten dituen bakarra. Lehen ama haserretu egiten zitzaidan, egongela osoa hartzen nuelako niretako, puzzlea egiteko. Nik puzzlea osatu eta amak eta ahizpak deseginen zuten beti...".

ahobero

"Aski da! Honaino heldu gara. Realeko kontseiluak Zubiaurrek jokatu ez dezala lortu nahi du eta hori oso kontu larria da"

Ana Urkixo > Athleticen presidentea

Zubiaurreren auzian Athleticen presidentea biktima gisa agertu da, baina Reala bere interesak defenditzen ari da, Athleticen eta Zubiaurreren hanka sartzearen ondorioz.

iturri onetik

Debagoieneko ospitale berriko lanak urtarrilean hasiko dituzte

Debagoieneko ospitalea txiki geratu da gaur egungo eskaerari aurre egiteko, eta Arrasateko eraikin berria egiteko lanak lehenbailehen hasi nahi dituzte.

Eraikin berria (gaurko ospitalearen atzealdean) egiteko lanak azaro bukaeran adjudikatuko ditu Jaurlaritzak, lehiaketa bidez, eta asmoa da 2007ko urtarrilean ospitale berriko lehen harria jartzea.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Bertsoetan erantzuna

In vino veritas dio esaldi zaharrak, mozkorra egiatan ari dela. *The answer is blowing in the wind* idatzi zuen kantari zakarrak, erantzuna haizeak duela beregan.

Nik bertso baten aurkitu dut argia, joan den astean *Zutabek* sortutako zalapartan neure burua kokatzeko. Andoni Egañak honela bukatu zuen aspaldi bakeari buruzko bertso bat: *...bakea ez baita gerrarik eza, gerrarik nahi eza baizik*. Nire interpretazioan, armak isiltzea beharrezkoa da baina ez nahikoa; gatazka konpontzean, orduan iristen da bakea; eta armekin ibili denak gatazka konponbidean ikusi behar du, armei betirako uko egiteko.

Bi mahaletan banatzen bada lana, ondo. Baina bi mahaiaik ez dira autonomoak. Jokoan baitaude arazoaren bi mailak: *eza eta nahi eza*.

ai, ene!



Mickey Mouse ere zahartzen doa

Mickey Mouse biziko balitz, itxura hori izango luke. Kamisetak atara dituzte. Ai! Walt Disneyk burua altxatuko balu...

<http://tinyurl.com/gd2wt>



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51